



A H O T S A K

EMAKUMEAK HISTORIAN
HERNANI (1936 - 1970)

U.BARRUTIBENGOA N.ELIAS
G.GONZALEZ A.RODRIGUEZ

36ko gerratik
industrializaziora
bitartera,
Hernaniko emakumeek
eguneroko bizitzan
aurrera ateratzeko
erabili zituzten
hiru bizi estrategia
aztertzen dira:
nekazal produktuen
merkaturatzea,
estraperloa eta
apopilotza.

Eskerrak
liburu hau egitea
posible egin duten
guztiei
2004ko abendua.

GANBARAKO AHOTSAK

Hernaniko historian
emakumeek eginiko ekarpenak
(1936-1970)

Usoa Barrutiabengoa Olazabal

Nerea Elias Muxika

Garoa González Fernandino

Araitz Rodríguez Gutierrez

© Hernaniko Udala

Egileak: Usoa Barrutiabengoa Olazabal, Nerea Elias Muxika, Garoa González Fernandino, Aritz Rodríguez Gutierrez • ataritik@hotmail.com

Azala: Iosu - Jesús José González Rollan.

Argazkiak: Hernaniko Udal Artxiboa, Imanol Larretxea eta Fototeka Kutxa.

ISBN: 84-934193-1-1

Lege gordailua: 1448/04

Fotokonposaketa eta inprimaketa: antza, s.a.l. • Lasarte-Oria

Oroimena ganbara bat da.

Ganbaran, iraganaren puzzlea osatzen duten
oroimenak, traste zaharrak, gordetzen dira.

Denboraren joanaren testigu izan zen erloju zaharrak
ez du ordurik jotzen aspaldian.

Bere oinetan luzaroan pilatu den hautsak
zokoratutako ahotsak estali ditu.

Ateak ireki, erratza pasatu eta deiadarka etorri
zaizkigu ahotsak,

Hernaniko emakumeen ahotsak.

AURKIBIDEA

– ESKERRAK	9
– ATARIKOA	13
– LEHEN ATALA: PERIATIK MERKATU BELTZERA	19
• GERRA ETA GERRA OSTEA	19
• BASERRIAK, FAMILIAK ETA GENERO SISTEMAK	37
• EMAKUMEA ETA MERKATUA	45
• MERKATU BELTZAREN NORMALIZAZIOA	58
• EGOERA BERRIAN ERE, EMAKUMEA HORNITZAILE.....	62
• HERNANIKO MERKATU BELTZA: ERREKA(R)DERAK.....	69
• DENDETAKO ESTRAPERLOA: EMAKUMEEN EGINKIZUNA.....	75
• BIZIRAUTEKO JARDUEREN SEXUAREN ARABERAKO BANAKETA	80
–BIGARREN ATALA: ISILPEKO MERKATUA: APOPILOTZA	85
• INDUSTRIALIZAZIOA HERNANIN	86
• INDUSTRIALIZAZIO PROZESUAK ETA GENERO SISTEMAK	94
• FRANKISMOA ETA GENERO SISTEMAK.....	95
• EMAKUMEA ETA INDUSTRIALIZAZIOA HERNANIN.....	104
• EMAKUMEA ETA APOPILOTZA	108
– LABURBILDUZ.....	124
– BIBLIOGRAFIA.....	127
– BERRIEMAILEEN ZERRENDA	133

ESKERRAK

zkontzak ez zizun eman espero zenuen askatasun hura, baina zuk askatasun osoz utzi zenigun zure bizipenetatik, sentipenetatik, itxaropenetatik ortozik ibiltzen. Dudarik gabe, zure esperientziak gure inspirazio izan dira.

Familiaren lanbidea eta oroitzak mantendu dituen Rosariok, hasieran ezer kontatzeko ez zuenak, azkenean, estraperloaren garai ilun horietara hurbildu gintuen.

Maritxuk bere bizitzaren protagonista gisa aurkeztu zuen bere burua, eta, grazia handiz, Iruñeraino eraman gintuen gerra ostean, furgoneta batean, irina estraperloan ekartzera.

Nahiz eta berak hasieratik esan bere bizitzak ez zuela ezer interesgarririk, altxorrez betetako emakume batekin topo egin dugulako, mila esker, Manoli.

Regina eta Antxonek maitasun osoz hartu gintuzten beren etxean, eta horrela sentiarazi gintuzten beren bizitzako joan-etorriak kontatzen zizkiguten bitartean. Hurrengoan, bideokamera eramango dugu, zuen istorioak grabatzekoak baitira.

Santa Barbara bizirik mantentzen duen bikote bati, Pepi eta Hipolitori.

Bere ikasleak bagina bezala hartu eta, irakasle onek egiten duten bezala, gure zalantza guztiak argitzeko prest egon zen izaera handiko emakume eder bati, Eulaliri.

Zure burua gizon zahar eta ile zuriko bat bezala deskribatu zenuen, eta, Hernaniko kaleetan paseatuz denboran atzera eraman izanagatik, eskerrik asko, Imanol.

Gerraz ez ezik errepublika garaiaz ere ondo oroitzen zen Felixari. Bonbardaketak arkupe batean puntua eginez igarotzen zituenari.

Piliri, unerik larrienean irribarretsu ireki dizkiguzulako Hernaniko hainbat ate, “eskerrak”.

Izututa, trenean, seme-alabekin eta ilusio bete maletarekin etorri zen Matilderi, etorkinek bizitza berri bati nola ekiten dioten azaldu zigulako.

Akola baserriko atarian arratsalde bat eta mila istorio elkarbanatzera gonbidatu gintuzten senar-emazteei.

Avila utzi eta etorkizuna elkarrekin eraiki zuten Victoria eta Constantinori, familiako argazkien artean irribarretsu hartu gintuztelako.

Honoriori, euripean etxe batean sei lagun apopilo egon ziren garaiaz oroitu zelako.

Gurekin hain atsegin eta goxoa izateagatik, Anttoni, besarkada bat.

Balantxa baserriko Zeziliri, gu bezalako kale-ume batzuei baserriko bizi-tzaren gorabeherak erakusteagatik.

Izena bezain alai eta “xalada” zarelako. Esker mila, Felixiana.

Agustinari, bizitza umorez nola hartzen den erakutsi digunari.

Zure gaztaroko kontuak entzun genituen eta gezurra dirudi, zu ikusiaz, aspaldiko garaiez ari zinenik. Jarraitu zure goizeroko paseotxoekin, Anttoni.

Katalinari, aspaldiko garaiak gurekin batera patxadaz gogoratzeagatik.

Florinari, bihotzeko atea hain maite duzun etxeko atea bezain zabal ireki zenizkigulako; muxu bat.

Asentsiori, baserriko atea eta oroitzapenen atea parez pare irekitzeagatik.

Miren Klementeri, Hernaniko lantegietan emakumeek egin zutena gogoan gordetzeagatik.

Ahaztu gabe, eskerrik beroenak Carmen Diezi, Gizarte eta Kultur Antropologiako ikasketetan irakasle eta lagun izan zaitugulako; zure adorea gure lanaren oinarri izan da. Beti jo dugu zugana gauzak ilun samar ikusten

genituenean, eta zuri esker, arazo horiek argia ikusi dute. Berriz ere, mila esker.

EHUko Antropologia Saileko irakasle eta UEUko Antropologia Sailaren zuzendari den Aitzpea Leizaolari, antropologian lehen urratsak egiten ari garenoi gure lanak jendaurrean agertzeko aukera eskaintzeagatik, eta bururatzeko zaizkigun proiektu “zoroetan” babesa emateagatik.

Berdintasun Sailari eta Emakumeen Kontseiluari, Hernaniko emakumeen memoria berreskuratzeko erakutsi duten kezkatagatik eta, ondorioz, lan hau posible egiteagatik.

Nerea Aresti eta Miren Llona historialariei, artean elkar ezagutu gabe gure nondik norakoak jarraitu dituztelako, eta elkar ezagutu eta gero guk haiek jarraituko ditugulako.

Hernaniko Udal Artxiboko jendeari, gurekin izandako pazientziarengatik.

Eskerrak Iosuri, bere bulegoa “kuartel” moduan erabiltzen uzteagatik, eta askotan artista baten ideiak beharrezkoak direlako gauzak beste ikuspegi batetik ikusteko.

Dudarik gabe, gure gurasoei eta anaia-arrebei eskaini behar diegu lan hau; azken batean, haiei esker ase ahal izan baitugu gure jakin-mina. Eskerririk asko, Rexu eta Xabier, Bego eta Tito, Juani eta Angel, Bea eta Iosu. Unai, Izaro eta Aritz. Eta baita Borjari ere.

Zer esango zen beldur izan arren gurekin hitz egin nahi izan dutenei, liburu honen parte direnez, gure eskerrik beroenak.

ATARIKOA

Emakumeen historia ahaztu, isildu, erbesteratu, baztertu, eta azken batean, ikusezin bilakatu izan dute. Historiaren bertsio hegemonikoetan ez dute tarterik boteretik gabeko talde sozialek. Zoritxarrez, emakumeak ere aho-tsik gabeko talde horien artean daude. Daten eta izenen historiak ez die tarterik uzten egunerokotasunaren protagonista anonimo diren horiei.

Ikerketa honen helburua Hernaniko emakumeen historia berreskuratzea da; orain arte ahotsik izan ez dutenei ahotsa ematea. Horretarako, ezinbestekoa da historia genero¹ ikuspegitik lantzea. Generoak pertsonen bizitzaren arlo guztiak ziprztintzen baititu; genero ideologiak uneoro eragiten baitu gudan. Genero sistemak² (emakume eta gizonen arteko erlazioak) botere sistemak dira, eta horiek aztertuz ikusten da nola eraikitzen diren banakoen eta gizarte espazioaren arteko harremanak, eta harreman horiek nolako desberdintasunak sortzen dituzten. Beraz, emakumeen historia berreskuratzeaz ari garenean, ez dugu esan nahi emakumeez soilik mintza-

¹ *Generoa*: Generoak ar edo eme jaiotzetik, ezaugarri biologiko horretatik haragoko azterketak egiteko bideak irekitzen dizkigu. Nozio honen bitartez, gizon-emakumeen artean sortzen diren harremanak eraikuntza kultural eta sozial gisara azter litezke, esentzialismo biologikoak alde batera utzita.

² *Genero sistemak*: Gizaki sexuatuak gairela oinarritzat hartuta, gizonentzako, alde batetik, eta emakumeentzako, bestetik, egokiak diren portaerak eraikitzeari egiten dio erreferentzia kontzeptu honek. Ikuspegi horretatik planteatzen da eme edo ar jaiotzeak (bereizketa biologikoa) emakumeak edo gizonak eraikitzea (bereizketa soziala) dakarrela berarekin, eta horrek maskulino eta femenino kontsideratzen diren portaera kanonetara egokitzea. DIEZ, C. (1999). Honako artikulua honetatik jaso eta geuk itzulua: "Sistema de género, desigualdad e identidad nacional" 147-172or, in ALBITE, P. (Koor). *Sociedad Vasca y construcción nacional*. Donostia. Gakoa.

tu behar dugunik, hori eginez errealtatea desitxuratuko baikenuke. Genero ikuspegia erabiltzen badugu, erlazioen ideia landu behar dugu; ez dugu gizon-emakumeen portaera ulertuko, baldin eta beraien artean espazio sozio-politiko eta ekonomiko jakinetan nola artikulatzen diren aztertzen ez badugu. Gizartean gizon eta emakumeen arteko harremana gertatzen da; beraz, historia gizonen eta emakumeen, biei, dagokie.

Gure ikerlan honetan, 36ko gerratik industrializaziora bitarteko garaia aztertuko dugu, Hernaniko emakumeek bideratu zituzten hiru bizi-estrategia ardatz hartuta. Izan ere, emakumeek egindako ekarpenak aztertzeaz gainera, garrantzizkoa iruditzen zaigu beste pauso bat ematea: ekarpen horiek egiteko emakumeek erabili dituzten bideak eta estrategiak ikertzea. Gerrari dagokionez, baserri giroa oinarri hartuta, **emakume nekazariak** produktuak ekoizten eta merkaturatzen egindako lanaz arituko gara. Gerra osteari dagokionez, berriz, gerraren ondorio ekonomiko eta sozialak direla medio emakumeek familientzako eta herriarentzako oinarritzko lehengaiak lortzeko ireki behar izan zituzten bide berriei erreparatuko diegu, merkatu beltzean eta **estraperloan** “aditu” izan baitziren. Industrializazioak dakarren garapen ekonomikoa dela eta, Hernanira etorkin ugari iritsi zen, eta **apopilotzaren** fenomenoak agertu zen. Apopilotza erroldetan agertzen ez den baina oso kontutan hartu behar den jarduera da, jarduera horretatik zetorren diru sarrera garrantzitsuak senarraren edo bestelako senitartekoen soldata “osatzen” baitzuen eta familiaren biziraupena posible egiten baitzuen.

Sarrera honen lehen lerroan nabarmendu dugun moduan, emakumeen historia isildu egin da, eta horrek hutsune handia sortu du bai historiografia orokorrean, eta baita emakumeen autobiografian ere. Hutsune hori bete ahal izateko, bi informazio bide nagusi erabili ditugu: dokumentu idatziak eta berriemaileekiko elkarrizketak. Dokumentu idatziak berriemaileen bitartez lortu dugun informazioari sostengua emateko erabili ditugu; baina, ikerlan honetan, Hernaniko gizon-emakumeen hitzak dira protagonista, haiek baitira liburu honetan idatzi duguna lehen pertsona bizi izan zutenak. Emakumeak elkarrizketatzen hasi ginelarik, konturatu ginen ez diotela behar adina garrantzi ematen egin zutenari. Nolabait, gizarteak ezartzen dien bigarren mailako toki hori barneratu egin dute, eta asko kostatzen zaie beren protagonismoa onartzea. Autozentsura egiten dute. Beraz, emakumeen memoria berreskuratzeko zailtasun asko daude.

Bestalde, aztergai dugun garaia dela medio (1936-1970), ez da erraza esperientzia horiek bizi izan zituen jendea topatzea. Batzuek ez dute iraganekeo garai haiez hitz egin nahi; historiaren protagonista asko, berriz, ez daude gure artean jada. Beraz, premiazkoa irizten diogu era honetako lanak sustatzeari. Behin esan ziguten bezala, beranduegi gatoz historiako zenbait une berreskuratzeraz.

Ikerlanean zehar hizpide izango ditugun hiru estrategiak (baserriko produktua merkaturatzea, estraperloa eta apopilotza) emakumeen eguneroko jarduerak ziren, besteak beste, eta litekeena da egunerokotasun horrek galarazi izana berez zuten garrantzia. Hala ere, gogoan izan behar dugu historia egunez egun egiten dela, egunerokotasunak egiten duela historia. Gainera, Hernaniko emakumeek adierazi ziguten moduan, egunerokotasun hori ezinbestean gainditu beharreko erronka iraunkor bat izan zen beraien-tzat. Ikusiko dugun bezala, erronka hori gainditu ahal izateko, beraien artean harreman sareak eraiki eta abian jarri zituzten, eta harreman sare horiek sekulako garrantzia izan zuten.

Beraz, nahiz eta haiek oraindik ez konturatu, guztion historian lehen mailako tokia dagokie.

*“Ai maitia, maitia. Mundun bizitzeko
ezer ez duenak buelta asko ematen din”.*

Almudena.

PERIATIK MERKATU BELTZERA

GERRA ETA GERRA OSTEA

1936ko irailaren 13an amaitu zen gerra Hernanin. Falangistak sartu ziren Urnietatik barrena eta erreketek, herriz, Onddi menditik behera, eta herria hartu zuten. Irailaren 12an sartu zen lehen aldiz Armada Nazionalea herrian, eta, hurrengo egunean erori ziren azken erresistentzia guneak, Santa Barbarako gotorleku eta lubakiak. Errepublikak, herrialde honetan babes handia izan zuen arren, hondoa jo zuen. Herria altxatuen menpean gelditu zen. Beraz, gerrak oso gutxi iraun zuen Hernanin, borrokaldiak laster amaitu ziren. Gerra ostea 1939. urtea baino lehenago hasi zela esan daiteke, hortaz.

Herrian bertan gerra amaitu zelarik, ordea, herritarrentzat luzaroan iraun zuen, asko izan baitziren borrokara kanpora joan behar izan zutenak (gerrak zirauen tokietara hain zuten). Hernaniarrek nazionalen nahiz errepublikarren aldean borrokatu zuten; elkarriketatuek esaten duten bezala, tokatzen zitzaienaren arabera. Hala kontatu du Mertzek: hiru anaiarekin eta ahizpa batekin bizi zen, ama eta amonaz gainera, eta hiru anaiek gerrara joan behar izan zuten. Baina hirurek ez zuten alde berean borrokatu:



Soldaduen desfilea Hernaniko kaleetan zehar (1956). Kutxa Fototeka: 0424-4

*[...] gure etxetikan biru mutil kanpoan ziren, biru anaiak. Bi jun ziren Francorekin... harrapatu zutelako... bai zera, bestela por aqui! Hirugarrena preso hartu zuten. Bi anai jun zian Francorekin, bestea beste aldera." **Mertxe.***

Hernaniko herrian gerrak ez zuen asko iraun, arestian esan dugun bezala. Dena den, gerra bukatu arte ez ziren martxan jarri (eraginkortasunez) gerra osteko garaiazen ezaugarri izan ziren estatu frankistaren antolamendu erak (legeak, dekretuak...). Lege eta antolamendu horien artean, bereziki aipatzekoa izan zen arrazionamendua, lehen atal honetako bigarren aztergaia. Hala ere, legeak lege gisa gerra amaitu arte indarrean jarri ez zituzten arren, gero lege bilakatuko ziren hainbat jarduera egiten hasi ziren nazionalak pixkanaka beren esku gelditzen ari ziren herrietan.

Historiografiak, oro har, bi garai bereizitzat ditu gerra eta gerra ostea, baina gure ikerketan bi aldi horien analisia bateragarria dela ikusi dugu; besteak beste, gerraren iraupen laburra medio. Hain zuzen ere, egokia deri-

tzogu Hernanin 1936/1951-2 tarte kronologikoa osorik hartzeari, Hernaniko herriaren dinamikaren ezaugarriak berdintsuak izan zirelako tarte horretan guztian, nahiz eta ondotxo jakin beste zenbait gauza sakonki aldatu zirela.

Tarte kronologiko horren lehen zatian, hau da 36ko gerrari dagokion zatian, herriaren egunerokotasunean eragin bizia zuen askotariko talde bat hartuko dugu aintzat: emakume baserritarrak. Bigarren zatian, berriz, estraperloaren jardueran murgilduko gara, eta herriko jarduera horretan emakumeek izan zuten egitekoa azpimarratuko dugu.

Osotasun gisa hartu dugun denbora tarte honetan, jarraitasun bat nabari da emakumeen egoeran, baita testuingurura egokitze emakumeek erabiltako estrategietan ere (merkatu eta estraperloarenak, guri dagokigunez). Bi jarduera horiek helburu berbera zuten, hornikuntzarena. Baina badute alderik ere, honako hau nagusiki: bata legezkoa zela, eta bestea, berriz, legez kanpoko. Legezko jardueraren bidez hornigai nahiko aurkitzen ez zutenean, biziraupena ziurtatu ahal izateko legez kanpoko bideetara jo zuten, etxeko lan taldea³ hornitzearren.

Aztergai ditugun bi estrategia horietan, emakumeek zuten etxeko lan taldea hornitzeko ardura. Ardura hori bere buru gain hartu arazo nagusietakoa genero harremanetan emakumeak atxikitzen zaion papera da. Baserriko produktua merkaturatzeak eta estraperloan aritzeak lotura zuzena dauka "hornitzaile" paperarekin. Bi ekintza horien bidez lortzen zuten etxeko guztientzako janaria. Gainera, eta aurrerago ikusiko dugunez, emakumeen hornitzaile paper hori ez zuten norberaren etxera begira soilik egiten. Etxeko ateak gainditzen zituen, Hernani osoa hornitzearaino. Baina hori guztia aurrerago aztertuko dugu lasaiago.

Urte haietan, sektore ekonomikoak zegoenez, askotariko herria zen Hernani. Baserriko ekonomiak ez ezik, garrantzi handia zuten zerbitzuen sektorea osatzen zuten denda eta saltokiek ere. Baita 60ko hamarkadako industrializazioaren aitzindari izan ziren hainbat enpresa eta lantegik⁴ ere.

³ *Etxeko taldea* eta *etxeko lan taldea* kontzeptuak oinarritzkoak dira ikerketa honetan. *Etxeko taldea* nozioa erabiliko dugu etxe berean bizi diren pertsonen taldeari erreferentzia egiteko. *Etxeko lan taldea* nozioak, berriz, izaera ekonomikoa du; kontzeptu horren bitartez deskribatuko ditugu etxe berean bizi eta taldearentzako diru sarrerak lortzen dituzten kideen multzoa.

⁴ Hirugarren garaian aztertuko dugu Hernaniko herriaren industrializazioa eta industrializazioak izan zuten garapena.

Gure ikerlanean sektore guztiak aztertzearen, lehenengo tarte kronologiko eta tematiko honetan, nekazaritza arloa aztertuko dugu, bigarrenarekin lotuta dagoena, ikusi ahal izango dugun moduan. Gerra eta baserria zutabe modura hartuta, badaude biak batzen dituzten hainbat gertaera.

Herria eta baserria

Hernaniko baserrietan, bizi-iraupena ziurtatu ahal izateko, eguneroko lanak egiten jarraitu beharra zegoen. Baina gerrako salbuespen egoerak nabarmen mugatu zuen baserritar ugariren bizitza. Argi antzematen dira muga horiek Eustaki⁵ eta Martaren⁶ bizitzetan. Biek baserrian igaro zuten haurtzaroa gerra garaian. Eustakiren amak gerra garaian ere hornitzaile papera betetzen jarraitu behar izan zuen ezinbestean:

*Gerra denboran ere bera jutean beti beti esnea partitzea Donostia, eta hor gertatzen zizagun ba klaro ama berandu etorri eguardin [gerra zela eta], ta nabiko komerik, ze eskolare, eskolare, nik uste gerra denboan ez nitzala eskolan basi ze aitta biltzen 38an [...] ni gerran, ez, ez giñan eskolan ibili, ez giñan eskolan ibili, ze ni nitzan zaharrena. **Eustaki.***

Martak egoki azaltzen du gerra garaiko harrapaketa askok jaki eta edariak eskuratzea zutela helburu. Berari halaxe tokatu zitzaion, eta ondo gogoratzen da soldaduak jaki bila gerturatu zireneko goiz hartaz. Etxean, bakoitza bere egitekoetan ari zen, eta soldaduak gerturatzeak denen arreta erakarri zuen; Martaren kasuan, ez zen bortizkeriarik izan.

Hala ba, goiz batian esnia astuakin ta, hala jartzen giñun astua ta biborrakin, oain astua, anaia jun tzan esnia eamatera goizian eta, gerra zibillan ordun, in tzun zea, letxeroik etorri ez esnin billa. Gero bere esniakin etxea berriz ta, oain ez da ikusten, baiño oain hemen dena itxiya do arbolakin, ordun histan tzan gaiñian bidia, ikusi emen tzitun hor bebeke koskatikan nola zeto-

⁵ Eustaki: Hernaniko baserri batean jaioa da. Aita 36ko gudan hil zen. Amak lau alabekin aurre egin behar izan zion egoerari.

⁶ Marta: Bera ere baserrian jaioa da. Txikitan ama hil zitzaion eta etxearen ardura bere gain geratu zen.

rreren [...] Eta gizon pillo bat nola zetorren ta, astua eraiten [...] hor bebekeo zearaiño elkarrekin etorrira. "Osaba, osaba", atta patala ateatzea juna, "osaba, osaba, sekulako gizon pilla hemen da gurutziakin da". Gure osaba etzen baña guri etziguten ezer in e, gui etziguten ezer in. Etorri zan, geo ban sartu zian, jendiari esnia eosi eta dena baik bartu zuten esne guziya. Guk giñun esne guziya, zea, balde, ontzi handi batea bota, egosi, oain ekonomika da, baiño ordun lurrian ilten zan sua izaten zan, ban eosi eta dena bartu zuten esne hoi. Soldadu o boluntayu o baik zian. Geo jun tzian esnia hua bartula. **Marta.**



*Emakume eta gizonen osaturiko miliziar taldea armak eskuetan dituztelarik (1936)
Kutxa Fotoleka: 15-5(212-9).*

Harrapaketak, bakartuta gelditzeko arriskua... izan ziren herriko baserrieta-ko bizitzaren ezaugarriak. Dena den, baserritarren hitzetan, Santa Barbarako gotorlekutik gertu zeuden baserrietan izan ezik, Hernaniko baserrietan ez zuten jasan gerrak herrian izandakoa adinako eraginik. Alde batetik, ez zirela-ko leku estrategikoak, eta, bestetik, borrokako frontetik urrun zeudelako:

*Baño kaletikan ikara gehio, beldur gehio kalia. Klaro, tiro-teua. Ez da izaten, esto, baserri bat dagon lekun, gutxi harrapa-tzen baititu [...] Eske oso oso diferentea da, geo, gerra balekin, beti bonbardeua, eroritzen da, botatzen dute edo saiatzen dira deuseztatzen jendea dagon tokia, ordun baserria geatzen da beti baztar batian, beti ixiltasun batian, beti. **Eustaki.***

Baserrietan izan zuen eragina gerrak, baina herrikoek jasan zutenaren oso bestelakoa. Herrian “bonbardeuak” eta “tiroteuak” ugariak izan ziren. Herriak jasan zituen bonbardaketak faxistek Donostia eskuratu nahi zutela eta gertatu ziren. Hau da, Donostia hartzeko bidean, Donostia errepublikarren eskuetan baitzegoen, Hernani eta beste zenbait herri hartu behar izan zituzten lehenengo, eta herri horiek hartzeko haliabideetako bat bonbardaketa izan zen (Irun eta Lezon, adibidez). Hala ere, abuztuaren 5etik hasiak ziren jada Donostia bonbardatzen eta denbora kontua besterik ez zen eraso inguruko herrietara zabaltzea. Hernanin irailean egin zituzten bonbardaketak, hain zuzen herria hartu zuten hilabetean.



*Bonbardaketen ondorioz eraikin suntsituak Irunen (1950 hamarkada).
Kutxa Fototeka: 406506-558*

*"El 9 de Setiembre los pájaros bélicos, como les llamaba el diario Frente Popular, mataron en Hernani a Juan Fernández, Tomas Mendizabal Kortadi y Bautista Amiana Sasiain"*⁷

Petra, Zinkoenean jaio zen arren, oso gazte zela Santa Barbarara joan zen bizitzera, eta han bizi izan zituen bonbek eragindako tentsioak. Hamalau urte zituenean ikusi zituen gerturatzen lehen hegazkin haiek, eta horrela kontatu dizkigu berak une hartan bizitakoak:

*Hemen abioia ibiltzen zan, goizian goiz abioia, braum, braum, braum, bonba botatzen, ta hemen bonba bota, ta sekulako zuluak ein... ta lurra dena haizian... upel borren atzian gordetzen giñan. Hemengo atia dena txikitu, egaztiri lepua moztu, karo, metrallak, bonban zea, burnik. Atiare txikitu zunian, egazti denak aidian, jata neire zeatu zian metrallak. **Petra.***

Nahiz eta helburu nagusia, teoriar, Santa Barbarako gotorleku eta lubakiak izan, zibilen aurkako erasoak egin zituzten, eta, ikusi dugunez, hildakoak ere izan ziren. Herritarrek sirena moduko batzuk zituzten, hegazkinen eraso zetorrenean jotzen zituztenak, denak babesera joan zitezzen. Oro har, etxe sendoenetako sotoetara edo helburu horretarako berariaz prestatutako babes guneetara jotzen zuten, segurtasun bila.

*Bai, hemen bai, Hernanin jotzen zuten sirena, ta hara juten ginan korrika. Ta dana utzi, ta hara juten ginan, ta gure amona etzan juten, hemen gelditzen zan, etxian... etzan juten zaharra zalako, etxea etzun utzi nahiko ta. **Mertxe.***

Ez dakigu, etxea galduko zuen beldur, etxeari zion loturagatik edo adinean sartua izaki joan-etorri haiek egiteko moduan ez zegoclako ote zen, baina Mertxek horrela kontatu digu amonak sirena hotsa entzuten zuenean zer egingen zuen. Beraiek, berriz, korrika joaten ziren, eta, oro har, Plaza Berrin, gaur egun Banco Guipuzcoano dagoen etxean, gordetzen ziren. Andrekalean bizi zirenez, hura zuten hurbileneko babes gunea, baina bazen besterik ere.

⁷ EGAÑA, I (1998). *Guerra Civil en Euskal Herria, 1936. La Guerra en Guipuzkoa*. Vol. IV. Aralar liburuak, Andoain.

Fatimak eta bere lagun batek beste modu batera bizitzen zuten sirena hotsa. Denak babesera joaten zirenean, Karkaban zegoen etxe baten arku-weetan esertzen ziren beraiek, eta puntua egiten hasten ziren. Berak Karkabako soto bat zuen gogoan. Soto hura zen kale hartako auzokide gehienek babeslekua hegazkinak hurbiltzen zirenean.

Baserrietan, gerraren eragina, harrapaketatik (bi bandoek hornitzeko erabiltzen zuten harrapaketa) eta merkaturatze funtzioak betetzeko zailtasunean (garraiobideak etetea) nabaritu zen gehienbat, baita segurtasun faltan ere. Ezin ahaztu daiteke hainbat baserri gerraren jazarpenetatik ihesi zihoazenak ezkutatzeko leku "egokiak" bihurtu zirela. Petraren baserrian bikote bat ezkutatatu zen. Azkenean alde egitea ere lortu zuten. Baserriak leku egokiak ziren ihesaldiak prestatzeko, leku handiak eta urrunak baitziren:

*[...] Floridan. Eta klaro, geo, bango zeak jun zian, reketiak, gizonan bila, nausiyen bila jun tzian, baiña hoik bakarrik pasa, zea, alde in tzuten, ta noa jungo, ta bonea etorri zian, attagana, ta attak hartu ta horrea ematen zittun, karo, bonea etxea etorrik. Honea ta etorri zian, etxea, bila poliziak, baño zian aberatsak, kolokatuak. Eunez, attak saskiya, otarra, otarra handik izaten zian, ban sartu bazkariya eta hor lanea balijoke bezala hartu, ta hareta, haina, jana ematea. Ta geo, gauian, etortzen zian bonea, lota... Geo, nik ez dakit eo balenbalek zita pasa o ze in tzuten, etorri zian guardik, hemen gue attakin ibili zian, etxia ikusi ere intzuten, beyan e ibili zian, baño, karo, eunez gorde iten zian. Goizian eun senti batekin arton tarteia, ta, karo, arto tarteia ezin jun ba bilatzea, iluntzen zunian, gabian, etortzen zian, eta ebiya o izaten bazan, been xirak zea bazituzten. Bestela, hortxe egun guztiya arto tartian. **Petra.***

Nola ahaztu garai eta egoera aldrebes hartan etxean ikusi eta bizitzea tokatu zitzaiona. Nola ahaztu artasoroan egunez ezkutatu eta gauetan baserri hurbiltzen ziren haiek, eta, nola ez, aita eskaintzen zien arretaz.

- Gerraren eraginak:

Gudak nekazarien eguneroko bizitzan beharrezko ziren azpiegiturak ere kolokan jarri zituen; horren adibide dugu garraio zerbitzuen etena: *“Loiola-ko kuartela erori artean Hernanin ez zen egunkari ez garraiorik izan, gainera taberna eta denda ugari itxita egon ziren...”*⁸.

Garraioak berehala jarri zituzten berriro abian. Bernabe Armendariz Battuk, garai hartako Hernaniko alkateak, bando bat plazaratu zuen, tropak herrian sartu eta bi egunera (1936ko irailaren 15ean). Donostiarako autobus zerbitzua berriro martxan zela jakinaraztearekin batera, “betiko lege” ferria ostegunean izango zela adierazi zuen bando horretan.

Gerrarekin zerikusi zuzena duen beste gertakari batek guztiz baldintzatu zuen emakume nekazarien bizitza: gizonak desagertzeak. Gerrara joan beharra, gerra garaian sortutako gaixotasunak, erbesteratzeak, kontzentrazio esparruak, espetxeratzeak... Horien guztien ondorioz, gizon gutxi gelditu ziren herrian. Eta ikusiko dugun moduan, horrek asko baldintzatu zuen emakumeen eguneroko bizitza handik aurrera.

Gizonen falta hori askok uste lezaketena baino garrantzitsuagoa izan zen. Gizonen hutsunea ez zen sumatu demografian bakarrik (jaiotza kopurua murriztea, ezkontzak murriztea...). Ageri-ageriko eragina izan zuen eguneroko bizitzan eta lan arloan ere. Hau da, une hartatik aurrera emakumeek hartu zituzten beren gain ordu arte gizonarenak izan ziren hainbat betebeharrak eta zereginak; emakumeen esku gelditu ziren gizonaren ardurak.

Emakume askok eta askok bakarrik atera behar izan zuten baserria aurrera (sarritan morroi eta neskameen laguntza izaten bazuten ere). Egoera berri bati egokitzea tokatu zitzaien. Hilaria⁹, alargun gelditu zen, lau ume txiki zituela. Laguntza modura morroia eta neskamea zituen, baina erantzukizun osoa bere esku zuen:


Egitzazue kargu Hernanin baserriak mantendu direla emakumeei esker, eta Hernanin baserria zaindu duen pertsona emakumea da, porque gizonak gerrara atera behar du, eta ez bada ateratzen, alde beharra dauka, porque, klaro, sindikatua zegoelako,

⁸ APAOLAZA, U (2003). “1936ko gerra Hernanin” 128/136, *Hernani 2003 Urtekaria XI*.

⁹ Hilaria: Eustakiren ama zen.

ba, zegoelako, eta sindikatu gabe bazegoen, nazionalista zelako, eta alde beharra zeukaten. Beraz, herria zeinen esku gelditzen da, emakumeen tartean. Beraz, emakumeak egin du etxea mantendu, familia bazi ta bezi, eta gainera lana egin. Eustaki.

Udal Artxiboan aurkitutako hainbat dokumentuk errealitate horren berri ematen dute. Txosten ugari egin ziren emakume horien egoera zela-eta.



Hernaniko familian inguruko informea (1958): Hernaniko Udal Artxibategia: A-18-2/14.

"Según el padrón de habitantes hecho con referencia a 31 de Diciembre último, don Félix Aramburu Garmendia, que falleció en el frente, era cabeza y único¹⁰ sosten de su familia, compuesta hoy de su viuda y de sus cuatro criaturas. Hernani, 28 de junio de 1938. II año Triunfal. El Alcalde." [Hernaniko Udal Artxiboa, A-18-2/14].

¹⁰ Garai hartako dokumentazioak ere garai hartako genero sistemari jarraitzen diola kontuan hartu behar dugu. Dokumentuetan ez dira aintzat hartzen emakumeek etxerako lortutako diru sarrerak, aipatu dugunez, bizibidea ateratzen zutenak gizonak zirela jotzen baitzen.

Eredu hori ez zen salbuespena izan, errealitate arrunta baizik, errealitate arrunt eta gordina. Hernaniko biztanle kopurua nabarmen aldatu zen, gutxi gorabehera hernaniarren laurden batek alde egin behar izan baitzuen gerra lehertzearekin batera, lehentxeago aipaturiko arrazoiak medio. Emakumeak bere seme-alabekin eta jende helduarekin batera erbestera joan ziren, baina gehienbat gizonak faltako ziren ziur asko. Eta ez hasieran soilik, aurrerago ere bai; izan ere, erbestera joan zirenak, gehienak itzuli egin ziren hilabete batzuen buruan, Hernanin gerra amaitu zelarik batez ere, baina gizonen kasua, aldiz, oso bestelakoa izan zen.

Fatimak bere kontakizunetan ondotxo erakusten digu hainbat emakume eta hurrek, eurek barne, bizi izandakoa. Irailaren 15ean herria hustu zen. Donostiara joan beharra izan zuten, tranbiaz oro har, eta gero, han itsasontzi bat hartu, Frantziara joateko. Beraiei dagokienez, ia senitarteko guztiak joan ziren, aita salbu; aitak gerrara joan behar izan zuen. Emakumeak, haurrak, adinekoak eta zaurituak zihoazen itsasontzi hartan, Frantziara bidean. Baina Fatimak eta bere ingurukoek ez zuten bidaia arrunta izan ontzi hartan. Sekula ahaztuko ez zuten zerbait gertatu zitzaien bidaia hartan, 5-6 ordukoa izan behar zuen eta 3 egun iraun zuen bidaia hartan:



Kutxa Fototeka

Gerra bukea Kontxako Badian (1920 hamarkada). Kutxa Fototeka: 2484-1 /

*Tranpa handia egin ziguten. Barkoko kapitainak tranpa eina zakan nazionalen beste barku batekin, gu entregatzeko... zuten asmoa norte guztia bonbardeatzeko gu aurrean jarrita, como parachoques, ta herritikan bidaltzen zituzten kañoiak barkua txikitzeke, jendea hiltzera... azkenean, kapitain hori bartu zuten, eta hitz egin arazi zioten, eta egia atera. Hil ein zuten, “merecía haberle metido a la caldera de vapor que se quemara, pero como tenemos más conciencia que ellos lo hemos matao”, bil ta geo bota zuten kalderan. **Fatima.***

Garaiz konturatu zirela eskerrak. Azkenean, Bordelera iristea lortu zuten. Behin Frantzian zirela, joan-etorri batzuen ostean (Alpectaraino iritsi ziren) eta senide batzuek Hendaiaetik lagundu izanari esker, Hendaian bertan kokatu ziren. Senide haien laguntza ezinbestekoa izan zela dio Fatimak, bai Frantziako estatuan igaro zuten denbora hartan eta baita herrira itzultzeko orduan ere. Hilabete batzuen buruan Hernanira itzuli baitziren.

Gizonek zailtasun gehiago izan zituzten itzultzeko, hasieran gerrara joan beharragatik, eta, ondoren, herria nazionalen esku zela, haien jazarpenaren beldur ihesi joan zirelako. Egoera horrek emakumeen eginkizunak aldatu eta baldintzatu zituen, esan dugun bezala. Asunek kanpoan pasatu zuen Hernanin gerrak iraun zuen denbora, bere ahizparekin. Ahizpak, alaba gai-xorik zuela-eta, Logroñora joan behar izan zuen, medikuak gomendaturik, eta Asun berarekin joan zen. Itzulitakoan hutsetik hasi behar izan zuten. Kale Nagusian zuten etxea, eta gerra aurretik taberna bat ere izan zuten. Ahizpa Donostiara joan zen, eta Asunek hartu zuen etxearen eta tabernaren ardura. Anaia guztiak gerrara joanak ziren, eta zerbait egin beharra zuen aurrera atera ahal izateko.

*Ta geo etorri nintzan bonea, ta iñorrez bemen, nee ama ez dakit noa juna anaiakin da auskalo, ta etorri giñan, da basi in bihar tzala, ba, ta gue osabak ireki zun taberna, ta kozinera bartu gendun, ta gero neskamiare bagendun... baño sin dinero, sin cosas. **Asun.***

Baserriko osabaren laguntza ezinbestekoa izan zen, berak hamazazpi urte “besterik” ez baitzituen. Baina ikusiko dugun moduan, ez zuen osabaren laguntza soilik jaso:

Feriya zan, eta karnizeruak ekarri ziguten baragiya, a pagar cuando sea, eta ez takit ze tabernero zan ban, barrika koxkor bat ardo ekarri zigun, geo panaderikuak ogiyare eman tziguten, ta bola basi giñan, una feria, una feria estupenda izandu gendun, ta xorrak patu nittun. Asun.

Garbi dago Asunek ez duela sekula feria egun hura ahaztuko; nola ahaztu egun hartan jaso zuen laguntza hura, hain gabezia handiak zeuden garai batean. Taberna martxan jarri zuten pixkanaka, eta handik denbora gutxirako taberna ezaguna zen. Asunek ez zuen beste aukerarik izan: herrira itzuli zenean aurkitu zuen egoerak bultzatu zuen erabaki bat hartzera, eta zorte ona izan zuen, ezinbesteko laguntza eman baitzion herriak eta, nola ez, familiak.

Herriko giroa ere erabat aldarazi zuen gerrak hilabete gutxian. Ordura arte herri giro "politta" izan zen Hernanin, baina gerra hasi eta nazionalen eskuetan gelditu zelarik, herriko giro guztia desagertu egin omen zen. Herria triste geratu omen zen. Jendeak kalera irteteko beldurra zuen, jazarpenen beldur ziren; beldurra nagusitu zen herriaz. Pixkanaka, ordea, beste behin ere egoerari egokitu behar izan zitzaizkion eta berriro ere dena abian jarri; itxi ziren denda eta tabernak martxan jarri behar izan zituzten, kaleko bizitza egunetik egunera suspertu...

Inork ez du ahaztu gerrak herriko giroan izan zituen ondorioak, eta, horregatik, ugariak dira giroaren gainean egin dizkiguten aipamenak. Denek dute gogoan garai hartako Hernani. Honela aurkitu zuen Asunek itzuli zenean: "*trixtia. Inorrez, ni etorri nintzanian osabana jun nintzan, ta inorrez, gora igo nintzan, mi cuñada vivía, y tampoco. Nadie, nadie, inorrez.*" Eta hori, familiari soilik begiratuta. Inaki herriaz oro har mintzo da:

Ta geo geatu zan Hernani oso pobria, oso pobria. Bildur bandia, bata bestiai bildur bandia, ta geo gertatu zien Hernanin bildako asko ere bai, hilak asko ere bai. Ordun, gerra denboan eonduzan gorroto, gorroto pittin bat bata bestiakin, ta bola [...] 41ean, 42an, 43, 40an gosia ikaragarria, etzeon ezer jateko. Etzeon ezer jateko ze etzeon ez olioik, ez ogirik, ez haragirik, ez... kriston gosia pasa zan gerran ondorenian. **Inaki.**



*Hernaniko jende multzoa San Juan Bautista elizaren eskilaretan. 1950 hamarkada.
Imanol Larretxea.*

Gerrak iraun zuen bitartean, herrian soldaduak bizi ziren, nahiz eta, esan bezala, Hernanin gerra bukatuta egon. Hainbat jatorritako soldaduak ziren; italiarrak, alemanak, galiziarrak... aipatu dituzte, besteak beste. Herritarrek era askotako tratua eta harremana zuten soldadu haiekin. Oro har, beldurra izan arren, denborak nolabait ere haien presentziara ohitu zituen, eta batzuk haiengana hurbildu ez arren, izan ziren haiekin harreman ona izan zuten herritarrek ere. Mertxe, adibidez, galiziar soldadu batekin maitemindu zen. Mertxe, garai hartan, Andrekaleen bizi zen, bere ama, amona eta ahizparekin batera, hiru anaiak gerrara joanak baitziren. Ohi bezala, soldaduak hutsik gelditutako etxeetan bizi izaten ziren hemen zeuden denboran, eta galiziar soldadu hura Mertxeren etxe ondoan jarri zen bizitzen. Mertxek eta amak soldaduen arropak garbitu ohi zituzten gerra denboran, dirua atera ahal izateko. Eta horrela, pixkanaka-pixkanaka, galiziar harekin tratua izaten hasi zen, eta azkenean oso harreman estua sortu zen beren artean. Berak halaxe gogoratzen du: *oso mutil majua, oso goxua*. Azkenean solda-

duak alde egin behar izan zuen ordea; *geo jun tzan ta ni hemen gelditu nintzan klaro! Castellanok oso gaizki ikusiak ziren hemen... jolin, si no con el gallego me caso yo!* Dirudienez, Mertxek hasieratik garbi zuen harreman haren etorkizuna zein izango zen, hau da, etorkizunik ez zuela.

Mertxek kontatutakoaren arabera, berari gertatutakoa ez zen salbuespena; neska asko ibiltzen omen ziren soldaduekin paseatzen, eta bat baino gehiago geratu omen zen haurdun. Gero, noski, soldaduak joan egiten ziren, eta neskek bakarrik eduki behar izaten zuten haurra, eta garai hartan horrek esan nahi zuen guztiari aurre egin. Horri buruz, batez ere italiarren ospea aipatzen digu eta garai hartan ezaguna eta oso zabaldua zen esaldi batekin amaitu du bere mintzaldia:

Los italianos se marcharán y de recuerdo un bebe te dejarán.
Mertxe.

Baina dena ez zen hain polita izan. Denborak era horretako harremanak ekarri bazituen ere, hasieran, lehen hilabeteetan, jazarpena oso gogorra izan zen. Etxeetako harrapaketek, etxeak bereganatzeek, jazarpenek, bortxaketek, “txibatazoe”... herria hankaz gora utzi zuten. Bizilagunekiko mesfidantza izugarria zen, eta hori izan zen lehen aipaturiko herri giroaren galeraren arrazoia, besteak beste.

Eustakik kontatu digu bere auzoan bazela beso-bakar bat, nazionalei heritarren berri ematen ziena, nor zen gorria, zer etxetan sartu... Zer gizon klase zen ikusteko, gainera, bere kontakizunean esaten digu emaztea eta lau alaba zituela eta gizona utzi eta alde egin zutela etxetik, *es que era la vergüenza del pueblo*. Eustaki Santa Barbarako baserri batean bizi zen, eta beso-bakarra, bidean zegoen beste etxe batean, eta Eustakik eta bere lagunak gorriak eta bi pasatzen zituzten, batez ere ilunpetan etxera itzultzen zirenean eta haren aurretik pasatu behar izaten zutenean. Sarri, zelatan egoten omen zen, ezkutuan. Horrelako pertsonak herri guztietan zeuden garai hartan eta, oro har, ondotxo jakiten zuten denek nor ziren eta zer egiten zuten. Ondorioz, herri osoaren mespretxua zuten, Eustakiren hitzek garbi adierazten duten moduan.

Hernanin, jazarpen horren beste adierazle bat fusilatzeena da. Hernaniko eta inguruko herrietako hainbat lagun fusilatu zituzten faxistek, batez ere

Donostiako Ondarretako kartzelatik ekartzen zituzten presoak. Berrehunetik gora fusilatu zituzten, eta gero hilerrian hobi komun batean lurperatu. Hernanikoak bertakoak 20 lagun izan zirela uste da.



Atxilotuak eskuak jaso (1956) Kuxa Fototeka: 154-9 (525-1)

Emakumeek zehazki jasan zituzten ondorioetan, euren aurkako hainbat eraso dira aipagarri. Emakumeei ilea moztea eta, ondoren, herri osoaren aurrean erakustea zen eraso latzenetako bat. Baita errizino olio edan beharra, dosi handietan; beren ideologiaren aurkako ikurrak eraman beharra; eta beren jarrera politikoaren aurkako oihu eta aldarrikapenak egin beharra ere. Hernaniko emakumeak ez ziren salbuespena izan, eta horrelako erasoak jasan zituzten. Emakumeen duintasuna gutxiestera bideratutako zigorrak ziren. Emakumea umiliatzea zen helburua, herri osoaren aurrean bazen, hobe. Gizonak atxilotu edo fusilatzen zituzten bezala, emakumeak herri osoaren aurrean lotsarazten zituzten, eta bizi osorako orbaina uzten zieten. Zigorrak ere, sexuaren araberakoak ziren.



La joven MANUELA OTAMENDI OLLOQUEGUI, a quien se refiere en una de sus comunicaciones, fué muy roja, acudía a todas las manifestaciones de carácter comunista. Fué también activa miliciiana desde el comienzo del Movimiento, acudiendo con frecuencia a las trincheras de los rojos. Se la vió con cartuchera y arma. Completamente indescable bajo todos conceptos.

Dios guarde a V. muchos años.

Hernani, 16 de septiembre de 1937. II AÑO TRIUNFAL.

El Alcalde,

Sr. Brigada Comandante del Puesto de la Guardia civil

RECEIVED



Informes relativos a doña Aniana Pérez Izarra, vecina de la localidad.

Comunista muy destacada, ha hecho alarde de sus perversas ideas e impedido a su madre recibir los últimos sacramentos, disponiendo su enterramiento civil, lo que dió lugar a una manifestación comunista por ella misma presidida.

Fué asidua de las manifestaciones de primero de mayo y de otras de carácter revolucionario, en algunas de las cuales era portadora de la bandera comunista. Ha sido propagandista de sus ideas revolucionarias y prefirió amenazas a los elementos de Derecha y de Orden. Durante la dominación roja ha prestado todo su apoyo a la chusma de foragidos del Frente Popular.

En suma, esta mujer indeseable y peligrosa es enemiga acérrima del glorioso Movimiento Nacional.

Hernani, 16 de julio de 1937

El Alcalde,

Mertxe, beste asko bezala, ondo oroitzen da herrian hiru neskari egin zietenaz; *emakumeak barrapatu ta ilea moztuta kale buelta eramaten zuten, ilea a cero moztu, ta kale buelta*. Mertxeren oroimenean bezala, beste hainbat herritarren gogoan ere geratu zen kasu hura.

Gerra osteko garaia beste ezaugarri nagusi bat gosea izan zen. Inakik garbi esan digun bezala, gosea ikaragarria zen eta nekez aurkitzen zuten jatekoa. Gainera, baziren zenbait produktu oso urriak zirenak: olio, haragia, azukrea... eta hainbatetan aipatu diguten beste bat, ogi zuria. Dirudieenez, ogi zuria obsesio bilakatu zen, denek aipatzen baitute ogi beltza eta ogi zuria zer ziren eta bigarrena zein preziatua zen. Hori guztia ondoko orrietan aztertuko dugu sakonago.

Arrazionamenduaren garaia etorri zen, baina, ikusiko dugun moduan, ez zuten lortu gosea kentzea. Urte gogorrenak gerra amaitu eta ondorengoak izan baziren ere, arrazionamendua eta, beraz, gure azteraldia, 1952. urtera arte luzatu zen; urte hori hartzen da, hain zuzen ere, arrazionamenduaren amaieratzat.

Gerra ostean, ohiko bizitzara ahalik eta lasterren itzultzea izan zen herritarren helburu nagusia. Ikusi bezala, dena hankaz gora zegoen eta bizi erritmo normalizatua lortzea oso helburu zaila zen. Esan bezala, gerra osteak agerian utzi zuen gerran gertatutako guztia. Normaltasunera itzultzeko ahalginetan, hernaniarrak konturatu ziren gauzak zeharo aldatuta zeudela. Gerra ostea grisa, tristea izan zen; gerra garaiko giroak gerra ostearen lehengo urteetan ere iraun zuen. Egoera horretan, esan bezala, janari eskasia nabarmendu zen, eta gerra ostea gordinagoa egin zuen eskasia horrek. Hernanin, herri guztietan bezala, gizonak gerrara joan behar izan zuten, eta, ikusi dugun moduan, gizon gutxi geratu ziren herrian. Behin gerra amaiturik, emakumeek bakarrik zuzendutako etxeak asko ikusten ziren; oso gertaera orokorra zen hori, ez salbuespena.

BASERRIAK, FAMILIAK ETA GENERO SISTEMAK

Horrelako gune (nekazari) bati buruzko azterketa era kritikoan egiten hasten garenean, hankaz gora erori ohi dira gure idearioan aintzakotzat jotzen ditugun hainbat elementu. *Mujer vasca, imagen y realidad* liburua osatu zuten ikertzaileek ondorio bat atera zuten euskal nekazari guneetako euskal idatziak aztertuta: idealaren eta errealtatearen arteko tirabira antze-

man zuten¹¹. Nekazari gunea idealizatuta egon da. Oso aspalditik datorren kontua da, Erregimen Zaharretik datorrena, foruzale eta nazionalisak Euskal Herri ideala eraikitzen saiatzen hasi zirenetik.



HERNANI. — Vista Sacada del monte Santa Barbara

*Mende hasieran Santa Barbara menditik Hernaniko herriaren ikuspegia.
Hernaniko Udal Arkibategia.*

Ideal hura barneratu egin zen, baina errealtatearekin talka egiten du; errealtatean gertatzen denarekiko kontraesana handia da. Gerran eta gerra ostean ideia horrek indar handia hartu zuen. Ideal horren oinarrian hainbat ezaugarri daude, familiaren izaera eta ezaugarriak, jabegoa, lanaren sexuen araberako banaketa, etab.

¹¹ "La tendencia principal de los estudios a que nos hemos referido en este capítulo, refleja aquellos rasgos, caracteres y formas de comportamiento que se producen con más regularidad y que tienen una mayor aceptación social, eliminando en lo posible aquellas áreas de conflicto o contradicción propia de toda sociedad, y ofreciendo en lo general una idealización de la vida rural, que presenta a la mujer sin contradicciones, mientras los estudios económicos de este ámbito (véase Etxezarreta, 1997) revelan la insatisfacción de la mujer con el rol tradicional dentro del *baserri*, y aun con la misma división del trabajo que tantas veces a sido idealizada" DEL VALLE, T (zuz). (1985). *Mujer vasca. Imagen y realidad*. Anthropos. Bartzelona.

Hainbatetan, “baserriaz” eta “baserriko familiaz” hitz egiten dugunean, paisaia homogeen eta estatiko bat irudikatzen dugu. Gure ustez, eta aztertutakoari so eginez, “baserriez” eta “baserriko familiez” hitz egin beharko genuke. Lehenengo, baserri guztiak ez direlako berdinak. Hainbat elementutan ikusten da aldea: jabegoan (maizterra/jabea), lur kopuruan eta lurren ezaugarrian, animalien kopuruan, etab.

Baziren lur sail txikiak zituzten baserriak. Horietan, etxerako produktuak ekoizten zituzten gehienbat. Soberakinak bazituzten, edo diru premia larria bazen, orduan joaten ziren merkatura. Baina baziren lur sail handiagoak zituzten baserriak ere; ekoiztutako zati handiagoa bideratzen zuten horiek merkatura, eta diru etekin handiagoa zuten. Animaliekin antzera gertatzen zen. Askok etxeko kontsumorako hazten zituzten behiak, oiloak, txerriak, etab. Beste hainbatek, berriz, behi esnea zuten diru iturri nagusietakoa.

Jabegoari zegokionez, jabe izatea zen ideala, baina asko eta asko ziren maizter. Baserri baten “nortasuna” asko aldatzen zen, bertan bizi zirenak maizterrek edo jabeak izan. Maizterrek, eskatutako errenta ordaindu ahal izateko, ekoizten zuenaren zati handi bat merkatura eraman behar izaten

HERNANI. Barrio del Puerto



Hernaniko Portu auzoa, Hernaniko Udal Artxibategia

zuten. Baserritar horien irabaziak (dirutan) txikiagoak izan ohi ziren nagusi ziren baserritarrenak baino. Uste izatekoa da, beraz, maizter ziren baserritarrek estuasun handiagoak izango zituztela.

Jabe ziren baserritarren kopurua jaistea eta maizter zirenena igotzea ez da garai hari soilik dagokion gertaera. Prozesua aurretik hasita zegoen, eta garai hartan bide beretik jarraitu zuen, gero eta nabarmenago. XVIII. mendeko desamortizazioarekin, Euskal Herriko lurren banaketa bultzatu zuten. Baina jabe txikien ehunekoa ez zen %50 baino handiagoa, eta XIX eta XX. mendeetan are gutxiago izan ziren. Lurrak jabe handien esku gelditu ziren, eta kolono eta maizterren kopuruak gora egin zuen (Arbaiza Vilallonga, M. 1996)¹².

Bestalde, baserrietan era askotako “talde domestikoak” edo “etxeko lan taldeak” bereizten ziren. Harrigarria badirudi ere, idealizatutako familia zabalaz¹³ gainera, beste hainbat errealitate ere baziren. Batik bat, familia nuklearrak¹⁴ eta guraso bakarreko familiak¹⁵.

Emakume asko alargun gelditu ziren gerraren ondorioz. Baina familia nuklear eta guraso bakarrekoak ez dira gerra eta gerra osteko garaikoak soilik. Baserriko familiak beti izan dira heterogeneoak. Adibidez, Mercedes Arbaizak¹⁶ dioenez, Erregimen Zaharrean ere familia zabal edo enbor familia asko zeuden, baina ez ziren gehiengoak. Orduan ere, beste era bateko familia eredu batzuk zeuden, hala nola familia nuklearrak eta guraso bakarrekoak.

Hombre ta zuk pentsatu, ezin, bost urtian lau ume zituela nere amak, e, lau nexka, lau nexka giñan. Ta alargun geatu zanian, ba sei urte, sei urtian urtebete ta hiru bilabete bazittun txikiñak. Ta ordun, lau nexka geatu giñan attik gabe, ta ama hogeita sei urtekin ia alargun, entenditzezu? Eustaki.

¹² *Familia, trabajo y reproducción social. Una perspectiva microhistórica de la sociedad vizcaína a finales del Antiguo Régimen*. Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea.

¹³ Familia zabala: hiru belaunaldi baino gehiago biltzen dituen etxeko taldea.

¹⁴ Familia nuklearra: guraso eta seme-alabek osatutako familia ereduak.

¹⁵ Familia monoparentala edo guraso bakarrekoa. Historiako garai hartan, era honetako familien zutabeak alargunak ziren. Beste batzuetan, aldi bateko egoera izaten zen (gizona erbestetik edo gerratik itzuli artekoa).

Nekazari guneetako familia ereduez mintzo da, baita ere, DOUGLASS, W. “The Basque Stern Family Household. Myth or reality?” in *Journal of Family History*. 13. alea, 1. zkia. 75-89 or.

¹⁶ Op. Cit.

Lehen azaldu dugunez, gerra garaiko errealitatean ugari ziren emakume alargunak. Baina emakume horiek ere ez zeuden guztiak egoera berean: batzuek seme-alaba gehiago zituzten besteek baino, eta familiaren babesak edo baliabide ekonomikoak ere garrantzi handiko eragileak ziren errealitate horretan. Askotariko errealitateak ziren, nahasiak eta kontraesanez beteak.

Generoari atxikitako balioek, bizitza sozialeko arlo guztiak ziprztintzen ditu. Genero balio horiek are nabarmenagoak dira jendarte antolakuntzaren zutabe den familia eredian.

Alargun izatea ez zen moralki gaizki ikusia. Baina alargundutakoa gizona edo emakumea izan, bazen alderik. Gizon alargunak ez zuen presio sozial handirik. "Etxeko andreak" utzitako lekua (funtzioei dagokionez), alaba zaharrenak, gizonaren amak (batzuetan etxeko neskameak) betetzen zuen, inolako iskanbilarik gabe.

Gauzak oso bestela ziren alargundutakoa emakumea zenean, ordea. Presio soziala izugarritzkoa zen. Jendartean gizonaren presentzia nahitaezko jotzen zen. Gizonak utzitako hutsunea guztiz morala zen (emakumearen anaia ezkongabeak, morroiak edo neskameak bete ohi zuten gizonak "lanean" utzitako hutsunea) eta "familia" eredu jakin bati lotzen zitzaion. Boterearen antolaketa jakin bati.

Beste behin ere Eustakiren hitzak ekarriko ditugu, berak zeresan handia baitauka alargunei buruz. Izan ere, oso gertutik ezagutu zuen alargun baten egoera, etxean bertan. Ama alargun geratu zen, eta, azkenean, berriro ezkondu zen, Eustakik dioenez, gizon bat beharrezkoa baitzen etxean, eta ez soilik lanak egiteko, baita errespetua bereganatzeko ere.

1943an, 1943an ama ezkondu zitzaidan berriz, ez, ba bai, behar dezu gizon bat, bateze baserriko laneako, ta, hoi lene esan nizuten, zenbat bider esatezun amak emakume alargun bati parre itten zitzaiola, hoi gelditu zait oso sartua. Parre eittendio eoezinek, ezin lziñen ayuntamientura zerbaittetako jun, de normal gizona jutezan, ta gizonai bi kilo babarrun eskaltzen bazioten, amari bi ta erdi. Eustaki.

Nahiz eta II. Errepublikaren garaian hainbat legeak (dibortzioarenak, boto eskubidearenak, abortuarenak...) emakumearen "berdintasuna" aldarrika-

tu, garai bereko beste lege batzuek (Kode Zibilean zeudenek) emakumearen menpekotasunari eustea zekarten. Lege horien arabera, senarraren tutoretzaren menpe zegoen emaztea arlo ekonomiko eta juridikoan. Gerra garaian, ondorioz, emakumeen “gaitasun ezak” genero sistemaren zutabe izaten jarraitu zuen.

-Baserria: unitate ekonomikoa

Baserria unitate ekonomiko gisa ulertu beharra dago. Gune berean biltzen baitira bizilekua eta lantokia. Unitate horretan bi jarduera daude unitateari eusten diotenak: ekoizpena eta lan eskuaren ugalketa. Familia ustiatetgia ez dago ekoizpen arloaren eta ugalketa arloaren banaketa espazial-fisikorik. Elkarren alboan daude bi funtzioak: lan indarraren ugalketa eta ondasunen ekoizpena.

Askotan, lanari buruz hitz egitean, lanaren oso ikuspegi mugatua erabiltzen da. Gehienetan, nekazaritza ekoizpena (ondasunen ekoizpena) eta ekoizpen hori merkaturatzea soilik hartzen dira aintzat. Eta alde batera uzten dira etxeko lan taldearen jarraipenerako eta mantenurako (ugalketa) ezinbesteko diren eguneroko hainbat lan (umeen zaintza, arropa garbitzea, lan taldea elikagaiez hornitzea, gaixoen eta nagusien zaintza...).

Gure azterketan, etxeko lan taldea mantentzea zertan datzan ulertzeko egokiago iruditu zaigu “lanaren” ikuspegi zabala erabiltzea (ugalketa lanak kontuan hartzen dituen), errealitatea hobeto islatzen duelako. Unitate ekonomiko guztien antolaketan, oinarritzko eta nahitaezko elementua da lanaren banaketa. Baserrietan ere, beste hainbat gunetan bezala, sexuen arabera lan banaketa da nagusi; gizartearen genero sistemaren elementu garrantzizkoa da hori.

Sexuaren arabera lan banaketan, berriz ere idealaren eta errealitatearen arteko tirabira sumatzen da. Izan ere, banaketa idealak emakumeak etxeko arloarekin lotzen ditu, eta gizonak, berriz, arlo publikoarekin. Baina berriemaileekin hitz egin orduko ikusten da ideal hori ez datorrela errealitatearekin bat. Etxeko/publiko muga ez baita hain zurruna. Nekazari guneetan adibidez, lanaren banaketa beste irizpide batzuen arabera da. Eta emakumeek arlo “domestikoa” edo etxekoan nahiz arlo publikoan jarduten zuten.

Idealaren eta errealitatearen arteko kontraesan hori lehenagotik ere gertatu izan da, eta, autore askoren hitzetan, Erregimen Zaharrean ere ez zen



Hernaniko emakume nekazariak. (1950 hamarkada). Imanol Larretxea.

betetzen lanaren banaketa ideal hura. Ideal hori barneratzeak gizarte tradizionalaren mitifikazioarekin du zerikusia.

Emakumeak, baserrian, hiru lan tipologia betetzen zituen: “nekazari” lana (baratzeko lana, belarrak biltzea, esnea jeztea...), “etxeko” lana (janaria prestatzea, arropa garbitzea eta jostea, ume gaixo eta nagusiak...), eta baserriko produktuak merkaturatzea (batez ere barazki txikiak, behi esnea eta animalia txikiak).

Martaren amak mota guztietako lanak egiten zituen. Berarentzat ez zen kontraesana espazio publikoan ere aritzea, bere hornitzaile paperari loturiko eginkizunak baitziren.

*Amak ikulluan lana itten zun. Ikullua beti garbi uzten zun. Amare kanpora julen zan belar denboran, holako beruakin ta eguargiko ordubatian igual, zea, belarrak buelta ematea. Haber, belarrak bihar tzun berua... karo, egunero julen zan gure ama, goizeko zazpiterditan esnia saltzera... **Marta.***

Baserrietako gizonei dagokienez, emakumeekin bi jarduera elkarbanatzen zituzten; nekazari lana eta produktuak merkaturatzea. Nolanahi ere, elkarbanatzen zituzten lan horietan baziren zenbait desberdintasun, adibidez, produktuak merkaturatzeari dagokionez, gizonezkoak gehienetan animalia “handiak” merkaturatzeaz arduratzen ziren, eta emakumeak, berriz, baratzeiko produktuez eta animalia txikiez. Sexuaren arabera lan banaketa asimetrikoa zen. “Etxeko” lanak emakumeen (emaztearen, amaren, alabaren, ahizparen, amonaren edo neskamearen) eskuetan soilik gelditzen ziren eta ez zituzten era horretako lanak gizonekin elkarbanatzen.

Martak, ezkondu zenean, amaren lan banaketa berari eutsi zion. “Etxeko” lanak emakumeen ardura ziren guztiz. Lan asko egon arren, etxeko lanak ez zituzten gizonarekin elkarbanatzen, “nekazari” lanak ez bezala:

Nik etxeko martxa eamaten nun. Ba, neonek esatia ez dao ondo baño, nik hau [gizona] gaixo baldin bazeon sukaldekua ta ikullukua ta dena zeatzen nun, ni gaixo jartzen banintzen berriz... bonek ikullua ingo zun, baiño sukaldia han eongo zan...

Marta.

Unitate ekonomiko hauetan, emakumeek betetzen zituzten lan eskua ugaltzera bideratutako eginkizunak. Emakumeek mota guztietako lanak egiten zituzten. Baina ez zuten lan ordutegirik, ez zuten atsedeen edo denbora librerik. Beharrezkoa bazen, etxeko lan taldeko kideen zerbitzura egon behar zuten edozein ordutan:

Porque, klaro, baserri bateko emakumiak itten du josi, plantxatu, esnea partitu, inkarguak, sukaldia, baratza, tratua, ta, gizona falta baldin bada, bebiak jeitzi, eo ganadu jana ekarri, eo hurrengo euneako puskak jarri mendiako. Eske baserri bateko emakumia da arrastratu ezin dan pertsona. Nik hoi argi ta garbi esangoizuet, etzizaion duro bat faltako diruz baiño... Ta gizona asten eun bat sikira peria jungo zan, ta emakumia batez. Lana zun, ta lana zun, ta lana zun. Ta nere galizak josik aldare? Ez aldezu oaindikan denborarik izan nee galtzak garbitzeko, plantatzeko? Beti bagendun... Eustaki.

Ugalketarekin lotura zuzena zuten ondasunen (arropa, jostailuak...) barne ekoizpena ere emakumeen esku zegoen. Lan horiek ez dira kontularitzan aintzat hartu izan, baina diru aurrezpen handia zekarten.

Martak ezkontzeko barne arropak ere berak egin zituen, dirua aurreztearren. Arropa egiteaz gainera, arropa garbitu eta konpontzea ere emakumeen eginbeharra zen.

*Bai, bai oi gerra garayan, da gerra ondorenian, da zean... ezta pentsature Hernanin ezagutu nittun nik hiru bat eo, saltzaille, ezagutu nittun perin, beño pela ibiltzen zuen... Nik ezkontzekore, sujetadoriak eta zeak, neonek josi nittun denak, zea guztikinre, dena, sujetadoriak eta zea, dena, eta Hernanin panak eo, oain pantalon, etzen ordun halakorik ikusten eta in aazi in... Oain, oain bada, baiño leno ez, leno dena arropa josi gabia izaten zan, eta gerra denboan ondoren arten etzen billatzen, ez ezer. **Marta.***

EMAKUMEA ETA MERKATUA

-Produktuak merkaturatzea

Baserriko produktuak salmentara ateratzea edo merkaturatzea oinarri-oinarrizkoa zen baserrien ekonomiarako. Gehienetan, salmentaren bidez lortutako dirua baserrian falta ziren produktuak erosteko erabiltzen zuten (olioa, oihaia, azukrea, etab.). Besteetan, baserritarrak maizterrak baziren, alokairua ordaintzeko ere erabiltzen zuten.

Baserrietako produktua salmentara ateratzen zen, baina merkaturatzea edo "peria" ez zen produktu horiek "merkaturatzeko" era bakarra. Baserritar batzuek produktua dendei zuzenean saltzen zieten, eta baziren salgaiak etxe partikularretara eramaten zituztenak ere.

-Emakumeak hornitzaile

Baserriko bizitzaz hitz egiten denean, diru sarrera nagusia produktuak merkaturatzeak zekarrela azpimarratu behar da. Jarduera horretan emakumeak ziren protagonista; hain zuzen ere, emakumeak izan baitziren etxeko

taldearen sostengu ekonomiko garrantzitsu eta, askotan, bakarra. Azken finean, emakumeek etxerako diru sarrera garrantzitsuak lortzen zituzten, baserriko produktuak merkaturatuz. Beraz, baserriko emakumeak etxeko taldearen hornitzaileak ziren. Eta hornitzaileak ziren, merkatuan saltzen zutelako (diru irabazia) ez ezik, merkatuan erosten zutelako (produktuak eskuratzea) eta baserriko ekoizpenean parte hartzen zutelako ere. Baserriko ekoizpenean, eguneroko lehengaien ardura zuten (egunero kontsumitzeko produktuak ziren emakumeek ekoizten zituztenak).

Adibidez, Petraren ama zen bere etxeko taldea hornitzen zuena, hau da, etxeko diru sarrerak amak eskuratutakoak ziren. Aitak ez zion zentimorik gehitzen etxeko ekonomiari, nahiz eta berak ere diru sarreraren bat eskuratu. Adibide hori uste ohi den baino arruntagoa zen. Gizonek, lan egin arren, lan horrengatik eskuratzen zuten dirua ez zuten etxeko ekonomiara batzen. Beraz, emakumeek, nekazaritzako produktuen salmentaren bitartez, etxea diruz hornitzen zuten. Jarduera hori ongi gauzatzeko, ordea, hainbat erronkari aurre egin behar izaten zieten. Hala nola, behi esnearen salmentan ibiltzen ziren emakumeek esne gutxiko garaiei aurre egin behar zieten.

Hona hemen Petrak etxean txikitatik ezagutu zuen giroa: aitak, lana zuen arren, ez zuen etxera dirua ekartzen, eta ama zen familia osoa mantendu ahal izateko lan egin behar zuena. Lan horietako bat zen esnea saltzea, Petrak ere gerora ikasi behar izan zuena. Ondotxo oroitzen da, gainera, lokotx batzuetatik atera zitekeen etekinaz ere:

*Amari gutxi, no le daba nada [aitak]. La madre tenía que sacar cuentas de la cuadra, claro. Y luego había temporadas que las vacas estaban preñadas, y claro, hasta que ellas saldrían ..., no había leche, entonces pues la mujer se veía muy mal. Algo rejuntu tenía pero pa pasar todo el tiempo ese no. ¿Qué hacíamos? Cuando el padre se marchaba a Oiartzun al monte, ... artua aletu. Mi madre y mi hermana y las tres artua aletzen gendun, bakizu gero, lokotsa hori erre eitten genun sutan, artua, igual diez kilos o doce kilos ta denda eamaten gendun. **Petra.***

Dirua lortzeko beste baliabide bat poteak saltzea izan zen; tomate, piper... poteak hustu, eta ondo garbituta, saldu egiten zituen, sos batzuek ateratzeko. *Zuk lata iriki, tomatiana, piperrana, iriki latak, e, eta ur pix-*

katekin garbittu o pasa, tapakin itxi, eta gorde, ta etortzen zien, ta nik potu boi denak les vendía, no se cuanto me pagarían, enaiz goatzen. Era berean. euria egiten zuenean bazterretan barraskilo ugari agertzen zirela-eta, haiek bildu eta saltzeko prestatzen zituen. Dena zen zilegi, esan bezala aitak... Sí, el padre era un traperero... era el guarda de los montes y ganaba mucho, pero para él.

Eguneroko bizitzaren antolaketa

Egunero, ordutegi finkoko “lanaldia” balute bezala, emakumeek biziraupenerako nahitaezkoa zen eginkizun bat betetzen zuten: baserrian ekointzitako produktuak merkaturatzea. Jarduera horren egunerokotasunak bermatzen zuen etxeko taldearen hornidura. Argi azaldu du hori Martak. Eguraldi txarra, distantzia luzeak, bide txarrak ezin ziren izan eguneroko betebeharrorik ez betetzeko aitzakia. Eta, noski, produktuak ondo zaindu behar ziren.

Sextuakin da jarri, ta geo marmita sartu han, da, sextuan, hara batzuk zintzilikatzen ta bestian barrenen, ta bala. Eguraldi txarra bazen ta ona bazen, han jun bihar tzan, eman bihar tzian baik. Eta udara partian berua baldin bazan, esnia hoztu in bihar izaten zendun, ta hoztutzeko zea in bihar zan... Marta.



HERNANI. — Antigua Casa en la Calle Mayor ND Fot

Hernaniko Kale Nagusia, Hernaniko Udaltzaitegia.

Baserriek etxerako produzitzen zuten, beraz, merkaturatzen zituzten produktuak baserrietako soberakinak izaten ziren oro har.

Arraultzak eo hola eamaten giñuzen ban, hola, porrua o halarako gauza batzuk, zea etxeako baiño geyo baldin bazan eamaten giñun, ezkenun itten, etxeako itten gendun, ordun sobra baldin bazeon eaman, arraultzak eta baik bai... Marta.

-Produktuak merkaturatzeko erak

Produktuen arabera askotan, eta besteetan, saltzailearen erabakiaren ondorioz, produktuak hiru modutan merkatura zitezkeen: azokara eraman eta salduz, etxez etxeko salmentaren bitartez, eta *erreka(r)derari* utziaz. Erabaki hori etxeko lan talde bakoitzak salmentarako aukeratzen zuen estrategien arabera hartzen zen.

Azoka ugari zeuden Hernaniko inguruetan, baina talde bakoitzak bere kontaktuak eta guneak zituen. Batzuek Hernaniko merkatuan bertan saltzen zuten. Hernanin bi azoka gune zeuden, bakoitzak bere ezaugarriak zituela: Plaza Berrikoa ganaduarentzako zen, eta Atzietas kalean zuen feriak jarraipena, baserriko gainerako produktuen (barazkien, fruten, oilaskoen, txerrien...) salmenta gunean. Banaketa horretan garbi ikusten da sexuen arteko bereizketa. Plaza Berrin gizonezkoak aritzen ziren; Atzietasen, berriz, emakumezkoak. Badirudi tradizioz animaliak merkaturatzea gizonen betebeharra izan dela, eta merkatu hori gizonentzat gordeta zegoen, eta bestea, emakumeentzat.

Ikusi dugun legez, gizonak ere parte hartzen zuten produktuak merkaturatzen. Hala ere, jarduera horrek ez zuen garrantzi eta itzal sozial bera merkaturatzea zein sexuk egina zen eta zer produktu merkaturatzen ziren. Emakumeek egiten zuten salmenta egunerokotasunaren testuinguruan, etxekoen biziraupenerako egin beharreko jarduera modura, ulertzen zuten. Gizonen salmenta, berriz, noizbehinka, ohiz kanpoko jardueren testuinguruan, festa modura hartzen zen. Gizonen “merkatu eguna” denbora libre edo aisialdi modura ikusten zuten. Emakumeak, berriz, arlo publikora ateratzen ziren, baina, testuinguruari eta funtzioari dagokionez, hornitzailea paperari lotuta betiere.



Merkatu egun bat Foruen Emparantz an egun Plaza Berri dena, Hernaniko Udaltzaitegia.



Atzietas kaleko azoka, emakumeak ikusleak zen arruntena, Hernaniko Udaltzaitegia.

Eustakik ederki kontatu digu, honako pasarte honetan, bere aitona-amonen kasua, aurreratu berri dugun bereizketa garbi azaltzen duena. Agian, zuzenean bere hitzetara jotzea izango dugu egokiena, hori bai, amonak Eustakiri eginiko gomendioari erreparatuz:

...Pues nik badet, gerra aurretikan aittona nun oso parrandearua, baserrikua zan, baserriko seme zan aittona, baiño ze egiten zun? Ze egingo zun ba, ba peria jun, akordeoia zun, ta gero hiru egunetara etzen etortzen. Ta amonak blusa eta txapela ezkutatu itten zizkion peria ez juteagatik. Ta klaro la mujer, emakumiak ezin tzon utzi dena ta ospa ein, nola jungo zan ba bi, hiru, lau, bost, sei ume zortzi igual, hamaika igual, hamaika ume dauden baserritik emakumiak nola alde egin behar du? Ni blusa ni txapela, no puede salir, bankaz ta huruz lotua dago. Ta gizona berriz, nei amonak esaten zian, “Ikasi, danatatik ikasi Eustaki, baña behia jeizten ez ikasi, bestela peritik etzaizu gizonik etorriko”.

Eustaki.

Produktua merkaturatzea etxeko lan taldeko edozein emakumek egin ahal zuen, azken fincan etxeko lan talde bakoitzak bere estrategiak zituen. Batzuetan amona joan ohi zen, beste batzuetan emaztea/ama, besteetan alaba zaharrena, baziren ama eta alaba elkarrekin joaten zirenak ere. Erabaki horiek etxeko lan taldearen jardueren banaketaren arabera izaten ziren.

Beste emakume batzuek salmenta gunea urrutiago zuten, gehienetan Donostia aldeko merkatuetan (Bretxan, San Martinen, Grosen). Horiei dagokienez, kontuan izan behar dugu Hernanin feria ostegunetan egiten zela soilik, eta Donostian merkatua egunero irekitzen zutela. Azoketako postuetan saltzeaz gainera, emakumeek etxex etxe ere saltzen zuten, esan dugunez. Batzuek Hernanin bertan zituzten “hartzaileak”¹⁷; beste batzuk, berriz, Donostiaraino abiatzen ziren, adibidez esnea saltzera. Eustakiren diru sarrera nagusia hartzaileei saltzea zen. Tranbiaren ibilbidea eginez, bere bezero guztiak hornitzen zituen.

¹⁷ Hartzaileak: bezeroak. Bezero horiek egunero jasotzen zuten behi esnea, eta baserriko beste hainbat produktu ere erosten zituzten askotan.

Bai, guk baserritik eramaten gendun, eta gu tranbian jesten ginan Prim kalean, esnea banatzen gendun calle Larramendi, Easo, Injentea, eta Bretxan ateatzen ginan. Tranbia bitartean buruzista Peña Floridara erametan zigun, eta han gendun Donostiako emakume bat, hua atera eta Bretxara eramaten ziguna, orduan, gu partizioa eginda, 2 marmitekin hemen 2 litro, bestean 3, hor 4, guk dana errekorrido hori egin eta ailegatzen ginen Bretxara eta buruzista han zegoen... Eustaki.

Donostiara joateko erabakia hartzeko hainbat arrazoi izaten ziren. Donostian saltzeko erabakiak bere alde onak eta txarrak zituen. Azken batean, emakumeek, jarduera hori errentagarri izan zedin, ondo neurtutako estrategiak erabili behar zituzten.

Alderdi txarren artean, batik bat, bi hauek aipa daitezke: garraioaren gascua eta salmenta zerga (edo “*deretxoa*”) ordaindu behar izatea (merkatuta joaten zirenek ere ordaindu beharrekoa zen zerga hori). Bestetik, Donostia aldera jo ezkerro, kontrola ere handiagoa zen; gogora dezagun, beste behin ere, Donostia hiriburua zela, eta turismo gune garrantzitsua, gainera. Esneak pasatu beharreko kontrolak handiak ziren. Produktu hori diru iturri nagusi zutenek estuasunak izaten zituzten egunero-egunero kontrolak pasatzeko. Eustakik ere bereak eta bi pasatu behar izaten zituen Donostiara esnea saltzera joan behar zuen bakoitzean. Kontroletatik egunero igaro beharra zuen, eta esne saltzaile izaki, batez ere esnearen purutasunaren kontrolak egiten zizkioten. Ikusiko dugun bezala, jendeak ura gehitzen zion, kantitate handiagoa saltzeko asmoz, eta, besteak beste, hori ekiditeko ziren kontrolak.

Baina Donostian gauzak saltzeko, beste zea bat zen, hori gobernuaren kontua zen, beste ofizialtasun bat zun, eta nik esaten dizut hau, ni esnea partitzera obitua negolako amantalakin, marmitakin jun, eta esnia errepartitzera, eta gero horren berri, esnea neurtzen zuten inspektore harek eramaten zituzten gaur bomberos daren hortan, “¿usted lleva leche?” edo saldu bazenun edo hutsa zeramakizun... segi. Eramaten zinuzten gaur bonberos dagon horta eta analizatzen zizuten esnea, ura bazun ala ez, eta bakoitzak bere beldurra pasatzen gendun, porque, klaro, hortara

dijoana zuk ez dakizu esnia analizatzen, zuk esnia baserritik damakizu, baiño, klaro, bebiak harek jeitsi ditu, anaiak jeitsi du, marmitak jarri dizkizute astoan, hara juten zea, ta galdetzen dizu “¿Tiene agua?” y te quedas así. Eustaki.

Baina alde errentagarriak ere baziren, hauen artean, Donostian jende gehiago ibiltzen zela eta produktuak garestiago saltzeko aukera zegoela (hango biztanleen “kategoria” zela-eta).

...Donostira gindoazenez garestiago zen berdura Hernanin baino, Hernaniko denda batean, baino, harea eramatean tran-bia pagatu egin bihar zendun, eraman bihar zan hareano, beste gastu batzuk zian, hiriburua zenez, jendea kapritxozko jende ugari gehio zegoen... Eustaki.

Ordea, produktuak garestiago sal zitezkeen arren, txukuntasun eta garbitasuna ere gehiago zaindu beharra zeukaten. Fruta eta barazkiak oso txukun jarri behar zituzten, eta etxean, alde aurretik, trapua ondo pasatu, zikin guztiak kentzeko. Hernanin, aldiz, ez zen horrelako ardurarik hartzen, edo ez hainbeste, behintzat. *Hemen ez da hainbeste exijitzen berdura nola dagon edo zer dan, diruari begiratzen zaio, baino ban dirua kalidadea da. Eustaki.*

Etxeko lan talde bakoitzak produktu jakin batzuk saltzen zituen, bere merkaturatze estrategiari jarraituz. Batzuek barazkiak eta arrautzak; beste batzuek, herriz, behi esnea soilik. Gehienetan, esneaz gainera, baserrietan ekoizten ziren beste hainbat produktu saltzen zitzaizkien esne hartzaileei, haien eskakizunak asetzeko:

Guk esnea banatzen gendun, bai, nitun hartzaileak, hartzaileak bagenitun, pues jendeak zuzenki eskatzen zizuna, berdura. Bihar ekartzen didazunean esnea, ekarriko dizkiazu porruk, ekarriko dizkiazu kilo bat babarrun, edo ekarriko dizkiazu... Ordun baziren pertsonak bakarrik bizi ziranak edo mediku, edo dentista, ta ordun esneakin batera eramaten zitzaaien berdura, baino zuzenki bitzez bitz... Eustaki.

Emakume horiek merkatuan egiten zuten lan ordutegia baserriko lanek eta garraiobideen ordutegiek mugatua zen; beraz, eguna oso ondo antolatzera behartuta zeuden. Hala ere, gerra egoera zela-eta, egunaren antolaketan sarri egin behar izaten zituzten aldaketak.

Lehen azaldu den bezala, Hernanitik abiatzen ziren emakumeek salmentaren denbora mugatua zuten. Goiz horretan produktu guztiak saltzen ez bazituzten, nahitaez jarri behar izaten zuten postu iraunkorra zuen emakumeren batekin harremanetan. Postu finkoa zuten emakume horiei *erreka(r)dera*¹⁸ zeritzen. Produktua hartu eta saldu egiten zuten eta, hurrengo egunean, Hernaniko emakumeari ordaintzen zioten hark utzitako produktu horren-gatik adostutakoa (*erreka(r)derak* jasotakoa baino gutxiago beti, zerbitzuaren ordain modura zerbait gelditzen baitzitzaion).

Hernaniar batzuek salgai guztiak *erreka(r)deren* esku uzten zituzten. Hala-koek, normalean Donostiako "hartzaileak" zituzten diru iturri nagusi. Harreman sare horrek ahalbidetzen zuen salmentaren eguneroko martxari eustea. Eustakik hartzaileak zituen oinarri ekonomiko gisa, baina baserrian soberakinak zeudenean, *erreka(r)derak* ziren produktua saltzeko bide bakarra:

Berdura bagendun, ilarra, ilarra garaian; tomatea, tomate garaian; baina... saltzen genion rekadista bati. Adibidez Adarra-gako Xole, Xoleren ama, hori zen bere lana. Harek postua zakan eta hari saltzen genion fruta, berdura, harek ematen zigun duro eta berak, zer esango nizuke, kilo 4 pezta egiten bazun, zuri emango zizkizun 3, bat zuen berak irabazia. Baino berak eransiten bazion 4 hari 2 erreal, ya ez zen bakarrik zure pezta, baizik eta bere irabaziak. Baino harek eramaten zun hartarako baka-rrik goiz guztia, berdura hori saltzeko... Eustaki.

-Garraio estrategiak

Garraioetatik (tranbia eta Perurenaren autobusa) urrunen zeuden baserrietako emakumeak produktuak asto gainean jarrita jaitsi ohi ziren herrira. Astoa Plaza Berriko zuhaitzetan edo "Guardarriosekuan" lotzen zuten. Gero, Plaza Berrin Donostiara zihoan tranbia hartzen zuten.

¹⁸ Gerra garaian, merkatuan postu iraunkorra zutenci deitzen zitzairen horrela. Gerra ostean, orde, bes-telako ezaugarri eta eginkizun batzuk hartu zituzten.

HERNANI. Entrada del Tranvia en Hernani




Tranbia, egun Urbieta Kalea den ibilbideetik barrena, Hernaniko Udal Artxibategia.

*Ze geo Hernanira aillatu ta astoa kargatu ein behar tzan, ekar-tze ziñun gauzakin, lehenbizi hutsak, baño astoa kargatu ein behar tzan. Nun uzte zan astoa? Leku askotan, adibidez guk Guardarrios-eneko, o Errioguarda atze hortan, kanilla batzuk zian hor, Santa Barbarako pareta hortan, eta pareta hortan astoa lotzen gendun, astua kargatuta. Zerbait baldin bagenun uzteko, ze esan-go nizuke, ba, sesto bat hutsa, o marmita bat hutsa, Hernaniko zelako, Hernaniko esnea partitzen zelako, ba traste boiek uzten zian Guardarriosen barruan; gaur komedorea da. **Eustaki.***

Batzuetan, produktuak merkaturatzera azokara joaten zirenean, baserrian falta zituzten hainbat produktu, hala nola, oihalak, olioak, xaboia..., erosteko aprobetxatzen zuten bidaia. Gehienak eguerdi aldean itzultzen ziren merkatutik; zerbait erosi bazuten, erositakoa asto gainean jarri eta baserrietara abiatzen ziren.

Hernaniko tranbia 1903tik 1958ra bitartean egon zen martxan. Egiten zuen zaratagatik eta ateratzen zituen tximistengatik "Tximist gurdia" deitzen zioten. Tranbiak, besteak beste, Hernani eta Donostia lotzen zituen; Hernaniko eta baita Astigarraga, Martutene eta Loiolako baserritarrei ere produktuak Donostian saltzeko aukera eman zien horrek.

Produktuak Hernanin merkaturatzeko ez zegoen garraio arazorik. Baina herritik kanpo joan nahi bazuten, garraioren bat aukeratu beharra zuten. Hainbat alderdik eragiten zuten erabaki horretan: baserriaren kokalekua, Donostiako zer auzotan saldu nahi zuten, garraioen ordutegia. Eustakik zioenez, adibidez, beraiek bizi izan ziren lehen baserria autobusa hartzeko ego-kiagoa zen gerokoa baino: *Ez, ez, tranbia zen hemen beran, baiño guri oso urruti... Ta autobusa, bai, bortik jutezan Aietetik zun linea, gaur Garayardu, baiña ordun Perurenak zun. Eustaki.* Bestalde, garraioaren arintasuna ere oso kontuan hartzen zuten aukera egiteko orduan:



Tranbiaren ibilbidea. Blas Zuleta, L, (1992), "La pequeña historia de las comunicaciones de hernani", Kultura Batzordea, Hernaniko Udala, Hernani, 44/49or.

Ta autobusa bartu o tranbia, tranbian izaten zan, baiño tranbian zeon arrisku bat, goizean sartu ta igual gauean ateatzen ziñela, aberi asko izate zon, eztet esango pixkat esageratua, baiño bi ordu, batean argia jun dala, ez dakit zer aberiatu dala... Arantxa.

-Harreman sareak

Merkatura joatea harremanak egiteko bidea zen emakume hauentzat. Iganderoko mezaz gainera, hori izaten zen beste baserri batzuetako edo herriko jendearekin harremanetan egoteko bidea.



Emakumeak elizkizun batetik irteten, Hernaniko Udal Artxibategia.

Harreman sareak nahita-ezkoak ziren jarduera hori aurrera eramateko. Lehen ikusitakoaren arabera, oso lagungarriak ziren Hernaniko hainbat saltokirekin, hala nola “Guardarriosekin”, sortutako harreman sareak. Harreman sare horiek Hernanitik hasi (alboko baserritik) eta Donostiaraino zabaltzen ziren: bidelagunak, salmenta lagunak, senitartekoak... Emakumeen arteko harreman sareen baitan, ohikoa zen elkarrengandik hurbil bizi ziren baserritarrak Plaza Berriraino elkarrekin jaistea Donostiara joan behar zutenean. Petra oso gaztea zen Donostiara bakarrik bidaia-tzeko, eta bizilagun batzuekin joaten zen San Martingo merkatura:

*Atta zanak eitten zun, saskiya izaten zan, eta saarrak eskun bildu, eta ni joten nintzan, hor, baserritar batekin, Agerrekua [...] bangoa, bango andria etortzen zan goitik bera, astua, dena kargatu esniakin ta berdurakin, ta gizona atzetikan, saskiya zula been frutakin, ta ni baikin batera joten nintzan, haik hemen izaten zian seiak laurden gutxi, bosteterdik, seiak laurden gutxi, hemen izaten zian, ta ni orduko pronto eoten nitzan, ta baikin batera jute giñan Plaza Berria, ta tranbia geo. Ordun tranbia bazeon, ta tranbia, eta tranbian kargatzen giñan ta gero joten giñan Donostia, San Martin, plaza. **Petra.***

Harreman sareei dagokienez, harreman sare solidario deritzenen modukoak zirela esan liteke. Hainbatetan, bata bestearen umeak zaintzen zituen, merkatura buelta egiten zuten bitartean. Beste batzuetan, umeak bakarrik gelditzen ziren. Bi edo hiru nahikoak ziren elkar zaintzeko. Eustaki eta bere ahizpa askotan aurkitu ziren egoera horretan. Amak Donostiara joan behar, eta bi ahizpek elkar zaintzen zuten, baina besterik ere batzen zitzairen:

*Ume boiek ekarri zituzten, eta Donostiara ama esneakin joten zanean edo morroi batek kalera jeitsi behar zuenean edo neska-meia etorri zenean, ba gu ekarri goizean goiz, adibidez 8:30etarako, hortxe Fieraportalesen koxkan exerita uzten giñun amak edo morroiak. Kalen koxkan exerita uzten giñun amak edo morroiak. Kalen koxkan geundela, hor etortzen zaigu ama 2 nexkekin eta "hor, a, begira, hor daude Eustaki eta Rosa, boien ondolan txintxo. Txintxo egon zaitezte nik fabrikara joan behar det", nola uzten zitun amak ere gure ondoan 2 nexka. **Eustaki.***

Orain arte azaldutako guztiarekin, bistan gelditu da emakume haientzat nahitaezkoa zela merkaturatara joan eta beren produktuak merkaturatzca, etxeko lan taldearen iraupena eta ugalketa ziurtatzeko. Bestalde, kontuan izan behar dugu guzti hori gerraren testuinguruan jazo zela eta, beraz, arrisku handiak hartuta mugitu behar izaten zutela.

Gerra garaitik gerra osterako tartean, emakume hornitzailearen izaera aldatu egin zen. Gerra osteak aldaketak ekarri zizkion Hernaniko herriari, eta emakumeen eguneroko bizitza ere aldatu zuen. Orain arte azaldu dugun

emakumearen hornitzaile paperak beste ezaugarri batzuk hartu zituen. Ordu arte, produktuen salmenta legezko sare batean egiten zen. Baina, gerra ostean, legezko merkatua arrazionamendua zela-eta mugatua zenez, merkatu beltzak edo legez kanpokoak indar handia hartu zuen. Geroago azalduko dugun bezala, emakumearen hornitzaile papera aldatu egin zen, emakumea merkatu beltzean aditu bihurtu baitzen.

MERKATU BELTZAREN NORMALIZAZIOA

1939ko maiatzaren 14an, Industria eta Merkataritza Ministerioak eskasia egoerari aurre egiteko arrazionamendu agindua argitaratu zuen. Garai hartan, norberaren biziraupena zen oinarritzko helburua. Hernanin, beste hainbat lekutan bezala, azpiegiturak guztiz suntsituta zeuden, eta horregatik erabaki zuen gobernuak arrazionamendu legedia sortzea. Arrazionamendua jendearen egoera kaskarrari erantzuteko ezarritako agindua izan bazen ere, ikusiko dugun moduan, ez zen nahikoa izan jendearen beharrak asetzeko.

Izan ere, arrazionamenduan banatzen zituzten kantitateak nahiko eskasak ziren, eta hernaniarrek beste leku batzuetan bilatu behar izaten zituzten elikatzeko behar zituzten produktuak; horrela, merkatu beltza gero eta garrantzi gehiago hartzen joan zen. Arrazionamenduari lotuta garatzen joan zen merkatu beltza. Merkatu beltza betidanik izan da, ez zen gerra ostean sortu, baina une hartan, beste garai batzuetan ez bezala, sekulako indarra hartu zuen.

Merkatu beltzaz hitz egiten dugunean, bereizketa bat egin behar dugu; alde batetik merkatu beltz handia, eta, bestetik, merkatu beltz txikia. Bi horien arteko aldeak distantzia eta produktuen kantitatea dira. Merkatu beltz handia kontrabando izenaz ere ezagutzen da, produktuak mugaren beste aldetik ekartzea baitira. Normalean, kantitate handiak izaten ziren, eta produktuak Hegoaldean aduana zergarik ordaindu gabe saltzeko ekartzen ziren; debekatuta zeuden edo oso urriak ziren produktuak izaten ziren. Merkatu beltz handiaren beste ezaugarri bat azpiegiturak dira. Hau da, kontrabandoan aritu ahal izateko kamioia edo beste ibilgailu handiren bat behar zen. Azpiegiturarik gabe oso zaila zen, adibidez, Nafarroaraino joan eta ehun kilo azukre ekartzea.

Asun, lehenago ikusi dugun bezala, Kale Nagusian bizi zen, eta familiak taberna bat zuen, gerra ostean martxan jarri zuena. Anaiek, gerratik itzuli

ondoren, tabernan laguntzen zuten. Emakumeen egitekoa sukaldea eta zerbitzatzea zen; gizonak estraperloa egiten zuten. Oro har, estraperloa taberna hornitzera bideraturik zegoen, eta nagusiki ardoa ekartzen zuten, baina bidaia haiek etxerako zein tabernarako beste produktu batzuk ekartzeko ere erabiltzen zituzten:

Hombre, eske gosia zan, ikaragarrizko gosia. Hemen mutillak etorri zianian ba, hasi zian, ardo billa, baiño julen zian Rioja kamioiakin, hamar bokoi ekartzen gendun astero, o billero. Eta handik, baik ogiya ta ekartzen ziguten, la mandire tartian jarri, ta gue etxian izaten zan ogiya, ta oliyuare handik ekarri, eta bes-tela keba, estraperlua dana e! Asun.

Estraperlo txikia, berriz, geografia eremu hurbilagoetan egiten zen, normalean Hernani inguruetan, nahiz eta batzuetan Nafarroaraino joaten ziren produktuen bila. Hala ere, jaso ditugun testigantzen artean badaukagu aipatu berri dugunaren salbuespen bat. Emakume batek Espainia eta Frantziako estatuen arteko muga zeharkatzen zuen estraperloa egiteko. Isabelek era horretako estraperloa egin zuen gerra osteko azken urteetan, hau da, Iparraldean joaten zen eta handik hainbat produktu ekartzen zituen. Senarra Iparraldean lanean ari zenez, honi noizean behin egiten zizkion bisitak erabiltzen zituen mugaz beste aldetik gauzak ekartzeko, eta senarrak ere, hona etorri behar zuenean, ahal zuena ekartzen zuen. “Sos batzuk” ateratzeko modua zen. Ia denak, denak ez esatearren, jendearen enkarguzko gauzak izan ohi ziren, eta hemen ez zeuden edo oso garesti saltzen ziren produktuak ekartzen zituzten: kafe ontziak, mahai-tresnak, baxera, artilea, puruak...

Y así, luego empecé a ir a Francia a traer cosas... traíamos cosas para vender... de todo que nos pedían... Lo traíamos ya encargado, de encargo. Traíamos pues, boy me vas a traer, y a Escobar le traje una vajilla entera de varias veces. Y cubiertos. Entonces esas cosas no había aquí. Isabel.

Auzoko taberna batera gauza ugari ekartzeaz gainera, partikularrei ere saltzen zien. Bidaia haietan beldur asko pasatutakoa da Isabel, muga igaro behar zuen bakoitzean Guardia Zibilaren kontrola pasatu behar izaten baitzuen. Egiteko horrek, legez kanpokoa izaki, arriskua bere-berea zuen, eta,

noski, baita beldurra ere. Oro har, Guardia Zibilak ez omen zuen oztoporik jartzen; are gehiago, berak dioenez, ia denak ezagunak ziren eta ondotxo zekiten elkarren berri. Hala ere, arriskua beti hortxe zegoen: produktua galtzea, atxiloketa, miaketa... Behin halaxe galdetu omen zion guardia zibil horietako batek: *¿usted qué es que se dedica a esto?* Garbi ikusten da, beraz, jarduera oso zabaldua zela. Harrapatzen zutenari, normalean, produktua itzularazten zioten, baina gutxitan zigortu. Ordea, baziren deskuiduak ere, garesti ordaintzen ziren deskuiduak; horrela gogoratu du horietariko bat:

Otra vez me deje una caja con puros, metí una caja de puros y encima una docena de huevos. Y yo con mi caja con los huevos, se veían los huevos, así con una cuerquita. Y se me olvido en una repisa esperando al tren, y adiós a mis ganancias. El día siguiente me levaté y me marché a Irun, me la habían guardado en la estación. Pensarían: alguna pobre mujer lo ha dejado. Y luego el día siguiente ¡joye! por casualidad no habréis guardado “si pero hemos comido una docena de huevos”, digo, pues bueno, no importa. A mi lo que me interesaba era lo que había abajo. No importa, como si lo queréis comer todos. Ya te digo pasamos también esa época. Isabel.

Kasu hartan zorte handia izan zuen, eta arrautza gutxiagorekin itzuli bazen ere, garbi dioen bezala, garrantzitsuena beste zerhait zen, pertsona haiek sekula jakingo ez zutena, puruak. Baina, esan bezala, eredu orokorraren salbuespena zen hura; beraz, jarrai dezagun egoera arruntagoak aztertzen.

Estraperlo txikiari dagokionez, produktu kantitate txikiagoa garraiatzen zen. Normalean, estraperlo txikian pertsonaren beraren gorputza zen garraiobidea; beraz, kantitate nahiko txikiak mugitzen ziren. Halaxe kontatu digu Iñakik, bere amonak ahal zuen moduan ezkutatzen zituela babarrunak, sagarra, arrautzak, gazta... Nafarroara, aitaren herrira, joaten zirenean. Trenez eta oinez egiten zuten bidaia, eta zaila zen kantitate handiak ekartzea; hala ere, pertsona bakarrak guzti hura ekartzeak badu meritua:

Nire aita zan jaioa Nafarruan, Arantzan, hemen, Lesaka inguruko herri koxkor batian. Eta nire amonak izana zon Margarita, eta zittun harrek bigotiak, bigotiak zittun, baiño bigotiak. Ta behin batian, este, gona luziak ibiltzen tzittun, txorkatilarteko gonak, ta somatzen nun, gonan barren batetikan aitzen tzala itten tubo

*batzuk bezela, eanlsitzen trapu batzuk, eitteko tubo batzuk bezela goitik-beraiño, goitik-beraño. Ta jun giñan, jun giñan trenian Iru-naño, eta han hartzen genun beste tren txiki bat, tren del Bidasoa famoso boi, ta jeisten giñan Iantzín, ta Iantzitikan gue aittan herriortako baserria eongo zian 6 o 7 kilometro oiñez. Ta han gue amona horri eitten tzioten tubo boik babarrunez bete, babarrun beltzez bete. Ta geo sesto baten jartzen zioten, ba, sagar batzuk ta arraultza batzuk. Eta goatzen naiz, behin batean, bular haundik, titi haundik zillun gue amonak eta, jarritzioten bi gazta. Bi gazta, txikixek zien, bi gazta. Sujeladorek etzien izango, eztakit ze izango zien. Jarri zillun bi gazta, ta nik, "baiño amona ikusi ingoizute, esangoizute baamazkizula bi gazta", ta "Isilik eonai motel, ze uste-ek, karabinerok amona baten titita errepau behar diela?". Ta hola ekartzen genun ta aste bateako janarie genun. **Iñaki.***

Estraperlo txikiaren eta handiaren artean, beste bereizketa bat bazen: sexuarena. Kontrabandoan batik bat gizonak aritzen ziren, eta estraperlo txikian emakumeak ziren nagusi. Banaketa horrek ongi adierazten du bizi-rauteko jardueren sexuaren araberako banaketarekin. Bestalde, azpiegitu-raren beharraz gainera, kontrabandoa emakumezkoentzat egoki jotzen ez zen ordutegi batean egiten zen: gauez.

Gerra osteko egoera zela medio, estraperlo txikiak estraperlo handiari aurrea hartu zion; izan ere, estraperlo txikiaren bitartez lortzen ziren egune-roko bizitzan aurrera egiten laguntzen zuten produktuak (ogia, olio, irina, patatak, garbantzak...). Esan dugun legez, gose handia zegoen, eta arrazionamendua nahikoa ez zenez, merkatu beltzaren bidez eskaintza paralelo bat izan ohi zuten. Hala ere, merkatu beltzean produktuak oso garesti sal-tzen ziren, tasak prezioaren hiru halakoraino garestitzen zituzten askotan.

Merkatu beltza, bestalde, kontsumo guneetara ez ezik, ekoizpen guneetara ere¹⁹ zabaldu zen. Hernani gune mistoa zen. Nekazaritza gune handia zenez, ekoizteko gaitasuna zuen. Bestalde biztanle asko kaletarrak zirenez, kontsu-

¹⁹ Ekoizpen gunea lehengaiak produzitzeko gaitasuna duen eremua da. Kontsumo gunea, berriz, ekoiz-tzitateko lehengai horiez baliatzen dena. Hernaniri dagokionez, gune mistoa dela esan dezakegu, bieta-rako gaitasuna duelako.

mo gunea ere bazen. Horren arabera, garbi ikusten da kontsumitzaile gisa definitutako biztanleek izan zituztela bizirauteko arazo gehiago, hain zuzen ere, biztanleria ekoizleak eguneroko beharrei aurre egiteko adina ateratzen zuelako. Elkarriketa askotan adierazi digute baserriko jendeak ez zuela hain besteko beharrik pasatu, esan bezala beraien beharrak asetzeko produktu nahiko ekoizten zituztelako. Eustakik, baserrikoa bera, halaxe dio:

Baserrian hobeto jaten gendulako... arrautza freskua ez zitzaigun falta, babarrunak, egunero baina babarrunak, ez zitzaizkigun falta, txerriak... Ordun guri ez zitzaigun ezer falta, baserrian lan egin behar zan ta faltako gendun oliua, azukrea, baserrian ez gendun gauza hoik. Eustaki.

Baina Eustakik falta zituen gauza horiek herritarrek falta zituzten berberak ziren. Baserrian esnea eta baratzeako produktuak zituzten; behin etxerako behar zutena gordeta, gelditzen zena salmentara bideratuz gero, diru apur bat atera zezaketen, falta zituzten produktu horiek erosi ahal izateko.

Ekoizleen taldean, kalean bizi zirenak baina baratzea zutenak ere sartzen ziren. Hernanin, oso arrunta zen kalean bizitzea eta etxeko lan taldea hornitzeko baratze bat edo bi izatea. Askok onartzen dute horri esker ez zutela goserik pasatu. Hala ere, horrek ez du esan nahi merkatu beltz txikian edo estraperloan parte hartzen ez zutenik; esan bezala, merkatu beltza ekoizpen gune eta kontsumo guneetara heldu baitzen, inolako salbuespenik gabe. Horregatik, ez da harritzekoa, Hernani ekoizpen gunea izanik, hernaniar askok Donostiara jotzea bai euren produktuak saltzera eta baita estraperloa egitera ere. Donostiak, batik bat kontsumo gunea izanik, horniduren beharra zuen, eta Hernaniko emakume asko joaten ziren hara salmentara. Hiriburua izanik, eta gune turistiko garrantzitsua, Hernanin gertatzen ez zen diru mugimendu bat zegoen, oso baliotsua hernaniarrentzat.

EGOERA BERRIAN ERE, EMAKUMEAK HORNITZAILE

Esan bezala, jakien urritasunak eta txirotasunak gosea ekarri zuten; gainera, arrazionamendu kartilekin eskuratutakoa ez zen nahikoa izaten familia osoa elikatzeko, eta beraz, jendeak, emakumeek batez ere, merkatu beltzera jotzen zuten euren familiak elikatu ahal izateko.

Nahiz eta gerrak eta haren ondoriozko jendarte anabasak genero rolak aldarazi, oraindik ere, emakumeen betebeharrak nagusia familia zen. Esan bezala, emakumeek familiaz arduratzen jarraitzen zuten, eta, bide batez, familia barruko hornitzaile nagusiak ere baziren, ama etxeko talde horren arduradun zen heinean. Bestalde, hornitzaile gisa betetzen zuten eginkizuna ez zen etxeko eremura mugatua. Egoera zela-eta, emakumeek Hernaniko herri osorako hornitzaile ere bihurtu ziren, hornitzailearen zeregin klasi-koei beste neurri bat eman zioten; azken batean, euren betebeharrak jende multzo zabalago bat hornitzera zabaldu ziren, etxeko taldetik haragoko jende multzo bat hornitu behar zuten.

Etxeko taldearekin eta egunerokotasunean herria hornitzearekin lotuta zeuden eginkizun guztiak emakumeek betetzen zituzten. Alde batetik, eginkizun ofizialak zeuden: "auxilio soziala" deritzona eta arrazionamendua. Bestetik, merkatu beltza.

Merkatu beltzean parte hartuz, herria hornitzen osatzen zuten. Estraperloak, norberarengan ez ezik, ingurukoengan ere bazituen eragina eta ondorioak. Merkatu beltzean produktu batzuk eskaintzen ziren salmentarako, eta horretarako, lehenik eta behin, produktu horiek eskuratu beharra zegoen. Produktu horiek lortzea, ikusi dugunez, emakumeen eskuetan zegoen batik bat. Emakumeek eurentzako produktuak ekartzeaz gainera, ingurukoentzat eta denda jakin batzuentzat ere ekarri ohi zituzten. Emakumeek, beraz, egoerak eta beharrak hultzaturik, eta estraperloaren bidetik, herri guztiarentzako hornikuntza lanak egin zituzten.

Auxilio Socialeko²⁰ emakumeek ere halako papera jokatu zuten. Haurrei bazkariak ematen edota familia txiroei zenbait produktu banatzen, herri osorako jarduera egin zuten; emakume haien betebeharra baitzen ezer ez zuen pertsona eta familiekin zerbait izatea, herria hornitzea. Kasu honetan ere, egiteko hori emakumeen ardura izan zen; etxean zituzten betebeharrak (janaria lortu, prestatu, haurrak zaindu...) arlo zabalago batera hedatu ziren, herrira.

²⁰ "Auxilio Social" delakoa "Sección Femenina" erakundeak bideratutako zerbitzua zen, *"El servicio social obligatorio primaba la formación en las tareas del hogar a base de ajuares y labores, y, con el tiempo, se transformó en una imposición que impedía conseguir un trabajo, pasaporte o cualquier otro tipo de documento oficial sin su cumplimiento previo [...] El periodo de cumplimiento era de seis meses, tres de ellos dedicados a la formación teórica y los tres restantes dedicados a la prestación obligatoria de trabajo en comedores, hospitales y oficinas"* FOLGUERA CRESPO, Pilar, (1998) "El franquismo. El retorno a la esfera privada (1939-1975)" in *Historia de las mujeres en España. Síntesis*.

Hornitzeko bi bide: legezko bidea (arrazionamendua) eta legez kanpokoa (merkatu beltza)

Garai hartan, bi bide erabiltzen zituzten emakumeek etxeko taldea hornitzeko. Bata legearen mugen barruan, arrazionamendua delakoa. Bestea, berriz, legearen mugaz harago, merkatu beltza.

Rosarena oso adibide egokia da emakumeak etxeko lan taldetik at ere lan egiten zutela erakusteko. Bestalde, argi esaten du bere betebeharra (emakume eta langile zen aldetik) herriaren hornikuntzarekin lotuta zegoela; lehenago esandako guztia betetzen da, beraz, adibide honetan. Rosak hiru urte igaro zituen udaletxean, arrazionamendu kartilak eta udaletxera eramaten zuten salgai guztiak banatzen.

Arrazionamenduak prozesu jakin bati jarraitzen zion. Ez zen eguncro egiten, noizbehinka baizik, eta bando baten bidez jakinarazten zioten herriari noiz izango zen. Bandoetan arrazionamenduan zer eta zenbatean banatuko zuten adierazten zen:

Ni goatzen naiz, eitten zuten jo bandua... Jose Kiskilosok... ta barrek banduan esate tzon "ba llegau un camión con lentejas y se abrirá la tienda de Manuela", erderaz, "a las ocho de la mañana y por cada cartilla de racionamiento 100 gr de lentejas"... **Iñaki.**

Iñakik eta beste hainbat herriemailek diotenaren arabera, denek daukate arrazionamenduaren funtzionamendua oso gogoan, batez ere ilara luzeetan zain egon behar izaten zutenek.

Arrazionamenduaren maiztasuna ez zegoen aldeaz aurretik adostuta; hau da, batzuetan hilean behin izan zitekeen eta beste batean, berriz, bi hilabete behin edo hilabete berean birritan, Centro Regulador delakoaren eta produktu kantitatearen arabera. Rosak askotxo daki guzti horretaz, bere lanbidea baitzen eta dena kontrolpean izan behar baitzuen. Bandoak nola funtzionatzen zuen oso garbi ez badauka ere, beste guztia, aldiro egin behar baitzuen, oroimenean oso ondo gorde du.

Bai kartilak, hilean behin. Egia ez dakit nola jakiten zan bandoa, igual hori ez det gogoratzen. Kartila ailegatzen zanen jendeak bazekin bazeola eta... ez ziran kartilak egun baterako baka-

rrik, kartilak... ez dakit, ez dizut esango zenbat denborako zian, baino, klaro, ez zan egunero etortzen, bilean behin baldin bazetorren, ordun hilekoa bazuten. Rosa.

Arrazionamenduak prozesu jakin bat zuen:

1. Lehendabizi, hornidura ordezkariak elikagaiak jasotzen zituzten.
2. Herritarrek arrazionamendu kartilak eskuratzen zituzten.
3. Kartilekin dendetara joaten ziren, jakiak erostera.



Irudiaren ezkerrealdean Hernaniko Udaletxea, eskuinean alhondiga funtzioa betetzen zuen eraikina, Imanol Larretxea.

Herriko ekoizleek beren produkzioa deklaratu behar zuten; horren arabera, abastokoek ekoizpen horren ehuneko bat estatuari ematera derrigortzen zituzten. Hori dela-eta, hamaika tranpa egiten ziren, ekoizten zen guztia ez deklaratzeko, hain zuzen ere, bizirauteko behar zena baino ez zen uzten. Herritar guztiek bazekiten tranpak egiten zirela ekoizten zen guztia ez deklaratzeko, baita udalekoek ere. Jasotzen ziren elikagai guztiak ez

ziren Hernanin arrazionatzen, produktuak Gipuzkoako beste herri batzuetara ere banatzen ziren. Hau da, herri batean jasotzen zena ez zen herri horretan soilik banatzen. Herri guztietako produktuak biltzen ziren, gero berriz herriz herri banatzeko.

Arrazionamendua zegoen egunean, lehendabizi, jendeak udaletxera joan behar zuen arrazionamendu horretarako kartilak jasotzera. Familiako kide bakoitzak kartila bat zuen; Rosak dioenez, familiako edozeinek jaso zitzakeen etxekoan kartila guztiak, eta, normalean, hala egiten zuten: familiako kide bat joaten zen, emakume edo seme-alabaren bat oro har, eta familia osoaren kartilak jasotzen zituen. Kartila nahitaezkoa zuten bandoan azaltzen zen produktua eta kantitatea erosi ahal izateko.

Bi motatako kartilak zeuden: bat haragiarentzako, eta beste bat beste guztientzako. Kartilak hiru kategoriatan banatzen ziren. 1. “kategoria” baliabide ekonomiko oparoak zituztenei zegokien; 2. “kategoria” erdiko mailakotzat zen; eta 3. “kategoria”, berriz, baliabide ekonomiko urrikoentzat. Bestalde, ume txikiek eta gaixoei kartila bereziak zituzten, adibidez besteek baino esne gehiago eskuratzeko; hau da, abantaila batzuk zituzten, haiek bizirauteko oinarritzko jotzen ziren abantailak, hain zuzen.

Arrazionamenduko produktuak erosi ahal izateko kartila eskuratuta, jendea dendetara joaten zen produktuak erostera. Herriko dendei udalak banatzen zizkien jakiak, eta horiekin batera, kartilen zerrenda bat ere bai. Biztanleria denden kopuruaren arabera banatzen zuten, eta arrazionamendua amaitzen zenean, dendek zerrenda horiek udaletxera itzuli behar zituzten, saldutako guztiaren kontuak eramateko, Rosak azaldu digun bezala, dena oso kontrolatuta zegoen.

Emakumeak zirenez etxea hornitzearen arduradunak, ilaran zain ere nagusiki haiek egoten ziren. Askotan estrategia bereziak asmatu behar izaten zituzten, arrazionamenduan salgairik onena eskuratzeko. Arrazionamenduaren gorabehera haien berri izateko, beste behin ere Inakiren hitzetara joko dugu, eta estrategia horiek zein ziren ikusiko dugu. Inakiri dago-kionez, familia osoak parte hartzen zuen, amonak den-dena antolatuta:

Ta orduan ze eitten giñan, jartzen giñan arreba zabarrenak ta ni, Manuelanean jartzen dute lantejak, ta jartzen giñan zerrendan, jartzen giñan. Ta bestian beste bat, ta orduan, gue amonak

*itte zun kaleak pasa, ta oain tokatzen dio Iñakiri, nei bialtzen tzian etxea, ta hua nee ordez jarri. Ta orduan e, zenbat tokatzea, ba, adibidez libra bat lenteja, ba hua bartzen tzun ta etxea emate zun. Eta geo beste batek ba. Herritikan bueltak emanez aber hilotan bat noiz tokatzen zitzaion barrua sartzeko, ulertzen tzu? Ta barri tokautakon bestea bialdu etxea. Halaxe. **Iñaki.***

Kontuan hartu behar da baserrian bizi zen jendearen egoera. Izan ere, bizitokia urrunago zutenez, herriraino jaisteko denbora gehiago behar izaten zuten, eta eguna beste era batera antolatzea eskatzen zuen horrek.

Rosa, udaletxean lan egiteaz gainera, Kale Nagusiko harategi bateko nagusia zen, bere ama eta ahizparekin batera. Beraz, arrazionamenduaren hirugarren pausoa ere ezagutzen zuen. Berak dioenez, ilarak goizean goizetik sortzen ziren, eta normalean arazoak izaten ziren, tentsioa nabarmena izaten zen. Etxeko lan taldearen arrazionamenduaz emakumeak arduratzen zirenez, ilarak emakumez beteta egoten ziren. Ilaran aurre-aurrean zeudenek salgairik goxoena, kasu honetan haragi zatirik goxoena, aukera zezaketen; horregatik oso goizetik jartzen ziren ilaran, baina ez haragirik gabe gelditzeko beldurrarengatik, baizik eta banatzen zenetik zatirik goxoena erosteko aukera izateko. Egoera hori produktu guztiekin gertatzen zen, ez bakarrik haragiarekin; imajinatzekoa da, beraz, egun horietan zer gertatuko zen Hernaniko kaleetan.

*Sekulako kolak, hori bai, gainera goizetik, igual, lehenbizi zanak aukera zun eskatzeko zer behar zun, eman beharko zitzaion 100 gr tokatzen bazitzaion, pues 100 gr haragi. Lehenbizi zegonak ba xerrak errez izango zitun; azkenak ba beste klasekoak, por ejemplo gisatzeko eo... Hoi zergatikan lehenbizi zanak aukera zun zer eskatzeko, kantidadia ez, baino zer bai, por ejemplo ez ziran sartzan rasionamentun, ordun egiten gendun txekorraren odolakin ba... odolrik, ez txerriakin baizikan boixe... boiek libre zian, etortzen bazian kartilakin eta odolki bat, puxka bat bazegon, klaro, lehenbizikoak zun aukera handiagua. Azkenak beti zegonakin gelditu behar zun. **Rosa.***

Rosak dioen moduan, azkenean, abantaila ez zen haragi zatia aukeratzea soilik; beste zerbaiten eskaintza egonez gero, odolkia kasu honetan, lehenengoek hartu ahal izango zuten. Azkenei, ordea, soberakinak besterik ez zitzaizkien geldituko; zatirik okerreana erosi beharraz gainera, bestelako produkturik eskuratu ezina zen azkena izatearen ondorioa.

Iltaran istilua eta gatazka ere izaten zen batzuetan. Fatimak bere begiez ikusi izan zituen zenbait eztabaida:

*...bantxe bati bultza, bestei bultza, alkarrekin diskutitzera. Guri sekula gustatu ez zaiguna beste batzuei bai, "yo he venido la primera", "si pero le he dicho a fulana que me cogiera", "pero ella no ha dicho nada", pues balaxe, baina gustora. **Fátima.***

Tentsio horiek garai hartako bizimoduaren ondoriozko leherketa txikiak zirela esan daiteke, baina, aldi berean, arrazionamenduak zenbateko garrantzia zuen erakusten dute.

Hornikuntzarako legezko hideaz gainera, emakumeek merkatu beltzera (estraperlo izenaz ere ezaguna) ere jotzen zuten, euren etxeko taldea elikatu ahal izateko. Emakume asko eta askorentzat familia eta beren ardurapeko jendea elikatzea zen egunean zeharreko jarduera nagusia. Ordu ugari ematen zituzten zeregin horretan. Gainera, elikagaiak lortzeko erabiltzen ziren estrategiek irudimen eta bizitasun handia eskatzen zuten.

Emakumearen hornitzaile eginkizuna aztertzeko, emakumeen denbora nola kontzeptualizatzen den ulertu beharra dago; hau da, "denbora" genero ikuspuntutik ere azter daiteke, hornitzailearen eginkizuna emakumeei zergatik dagokien hobeto ulertzeko. Denbora genero ikuspuntutik aztertzen baldin badugu, konturatuko gara denborak ez duela esanahi bera emakumeentzat eta gizonentzat. Emakumeen denbora taldearentzako denbora bezala ulertu izan da, hots, besteez arduratzeko erabiltzen den denbora gisa. Aldiz, gizonaren denbora indibiduala da. Beraz, besteen (hala nola seme-alaben eta familiaren) ardurarako talde etika bat garatu zuten, eta denboraren kontzeptu kolektiboa sortu zuten²¹.

²¹ "Su clásica función como madres y proveedoras impidió que desarrollaran una noción del tiempo como personas independientes responsables de distribuirlo conforme a sus propios intereses específicos." NASH, Mary. (1999) *Rojas. Las mujeres republicanas en la Guerra Civil*, Taurus, Madrid.

Denboraren ikuspegi hori agerikoa da gerra ostean, emakumeek urritasunari aurre eginez familia aurrera ateratzeko eginkizunetan denboraren tratamendu hori sustatu baitzen. Beraz, merkatu beltzean aritzearen atzean taldearen iraupena dago, hori zen helburua. Oro har, emakumeek estraperloan parte hartzea bere eta bere ardurapean zeudenen iraupena bermatzeko zerbait egitea zen, ez zen ekintza indibidual bat.

Orain arte emakumeek arrazionamendua zela-eta egiten zituzten jarduek hitz egin dugu. Hala ere, esan dugunez, emakumeak ez ziren legearen mugen barruan gelditu; legez kanpoko eremurako urratsa ere egin zuen, eta inolako "traumarik" gabe. Estraperloan aritzeak arestian aipatutako hornitzailearen rol klasikoari beste neurri bat ematea ekarri zuen, bere etxeko taldea ez ezik Hernaniko herri osoa hornitzera iritsi zelako. Emakumeek, hornitzaile eginkizunak betetzeko erosle soil izateari utzi eta estraperloan saltzeari ekin zioten. Honela "emakumetasunaren" ezaugarri guztiak aldarazi zituzten, beren eguneroko jarduerak dimentsio zabalgara hartu baitzuen.

Emakumeek beste bide batzuetara jo behar izan zuten etxeko guztiak janariz hornitzeko, eta estraperloan "aditu" egin ziren. Hernanin, merkatu beltzari dagokionez, parte-hartzaile nagusiak emakumeak ziren, bai erosle gisa bai saltzaile gisa. Lehenago azaldu dugu bi motatako merkatu beltza zegoela eta emakumeek batez ere merkatu beltz txikian, edo estraperloan, jarduten zutela. Estraperloan kantitate txikiak salerosten zituzten, eta jaki horiekin hornitzen zuten Hernaniko herria.

HERNANIKO MERKATU BELTZA: ERREKA(R)DERAK

Hernanin estraperloan aritzen ziren emakumeek *ERREKA(R)DERA* zerritzen. *Erreka(r)deraren* figura ez da gerra ostean sortua, ordea; lehenagotik ere egiten zuten jarduera hori, eta gerra ostean amaitu arte iraun zuen, egoera berrietara egokitzeko izan zuen gaitasunari esker.

Erreka(r)derak emakumeak ziren beti eta, hitzak dioen bezala, beste batentzako enkarguak egiten zituzten, ordain baten truke. Gertaerek bultzatuta, *erreka(r)deren* enkarguak merkatu beltzarekin lotzen joan ziren, eta Hernanin estraperlista hitzaren emakumezkoentzako ordain bihurtu zuten *erreka(r)dera* hitza; hau da, *erreka(r)dera* hitza merkatu beltzean aritzen ziren emakumezkoak izendatzeko erabiltzen hasi zen. Gizonezkoak izendatzeko estraperlista hitza erabiltzen zuten.

Esan bezala *erreka(r)derek* beraien jatorrizko jarduera eta merkatu beltza uztartu zituzten. Baina garai horretarako bide luzea egina zuen jarduera horrek eta *errekardera* hitzak lau mota izenda litzake:

Lehena jatorrizko jarduera egiten zuena litzateke, hau da, “*errekauak*” edo enkarguak egiten zituena, bestelako eginkizunak erabiliz, adibidez, *Tolosan, askotan, peri eguna eta erreka bat eraman behar, ba errekadistak ibiltzen ziren, hori ordaindu behar zan, haik bizi ziren errekadu boietatik...* **Eustaki.** Halakoetan, *erreka(r)derak* eta bezeroak, biek ateratzen dute “irabazia”. *Erreka(r)derak* diru kopuru jakin bat eskuratzen zuen enkargua egitearen truke, eta bezeroak beste egiteko batzuetarako “denbora” aurrezten zuen.

Bigarrena, azokarekin lotuta dago. Merkatuetan postua zuten emakumeek barazkiak eta baserriko edozein produktu saltzen zituzten. Euren baratzekoak ez ezik, Hernaniko beste etxe batzuetako baratzeko gaiak ere saltzen zituzten merkatuan lanean aritzen ziren emakume horietako batzuek; eta horiek ziren, hain zuzen, *erreka(r)derak*, beraien postua hornitzeko Donostiara esnea saltzera joaten zen emakume baserritar bati edo ezaguna zuten baten bati posturako lehengaiak eskatzen zizkietenak. Normalean, behar zuten produktuaren kantitate jakin bat eskatzen zuten. Mesede hori dirutan ordaintzen zen, batzuetan produktua saldu aurretik, eta besteetan, produktua saldu eta gero.

Postua zuten eta baserritarren zea guztia saltzen zuten, ta apuro batean, eskature bai. “Hilaria [nire ama Hilaria zan] babarrunik ba ahal dezu?” Oraindik adibidez martxoan “restaurantetik bi kilo eskatu dizkidate, ekarriko al zenizkiake?”, Orduan, aquello es proceso, igual zuk zenuzkazun gordeta, porque saltzeko baño gehio baldin bazendun saltzen zan, inoiz ez zan baserri batean babarrunik gabe gelditzen... **Eustaki.**

Eustakiren ama lehenik eta Eustaki bera aurrerago, sarritan joaten ziren Donostiako merkatura baserriko produktuak saltzera, etxez etxe esnea saldu ostein. Beraz, ongi ezagutzen zituen merkatuko tratu eta tirabira guztiak.

Hernanin, inguruko herrietan bezala, garraioak oso urriak eta mugatuak ziren, eta, oro har, Donostiara saltzera joan ohi zirenak eguerdian itzultzen

ziren. Eguerdian itzuli beharra zeukaten baserriko eta etxeko eginbeharrak egitera. Merkatuak ere bazituen bere tranpak: produktuen prezioa eguneko orduaren arabera igotzen joaten zen; hau da, adibidez ilar kiloa goizeko 8etan 12etan baino merkeagoa zen.

Hirugarren *erreka(r)dera* mota ere azokarekin lotuta dago, baina aurrekoarekiko desberdintasun bat du; emakume horiek, postuan produktuak saltzeaz gainera, merkatu beltzean ere aritzen ziren. Orain arte azaldu-tako beste bi ereduak legearen barruan aritzen ziren. Baina mota honetako *erreka(r)derek* estraperloan aritzeko ere erabiltzen zuten azokako postua; adibidez izenik eman nahi izan ez zuen hernaniar batek kontatu zigun nola berak eta amak Bretxan postu bat zuten eta postu haren bidez Zabalan edo Aristin erositako ogi zuria Pasaiatik zetorren estraperlista nagusiago bati saltzen zioten. Beste kasu batzuetan, aldiz, eurek saltzen zuten estraperloko produktua zuzenean, postua estalki moduan erabilia. Eramaten zuten produktu kantitatea alde zurretik hitzartuta izaten zuten. Azken batean, azoka leku ezin hobearen estraperloan aritzeko.

Azkenik, laugarren *erreka(r)dera* mota “enkarguko estraperloan” aritzen zena zen. Ez zuten posturik merkatuan, alde batetik bestera ibiltzen ziren beren produktuekin. Horiek ere enkarguan erosten zuten; hots, beraiek salgaia erosi baino lehen dena salduta zuten. *Erreka(r)derek* elkarren jarduera eremua errespetatzen zuten; hau da, bakoitza gune jakin batzuetan ibiltzen zen eta erosle finkoak izaten zituzten. Azpiegitura propiorik ez zuten, garraio publikoa erabiltzen zuten: tranbia, trena eta autobusa. Kontatu digutenez, garraio horietan ikuskatzaileak ibiltzen ziren, gauzak kontrolatzen, eta askotan *erreka(r)derek* estraperloan zekarten produktua, hala nola irin zaku bat, leihotik behera bota behar izaten zuten, harrapa ez zitzaten. Hurrengo geltokian jaisten ziren eta zakua hartzera itzultzen ziren, produktua berreskuratzen. Halako pasarteak oso ezagunak eta ugariak ziren. Estraperloaz hitz egin duten berriemaile gehienek bi aipamen komun egiten dituzte: ogi zuriaren estraperloa, eguneroko “ogia” zena eta estraperloan harrapa ez zitzaten, zakua treneko leihotik behera bota beharra. Esan bezala, Eustakik sarri egin zuen Hernani-Donostia bidaia eta beraz, askotan ikusiak ditu horrelakoak. Adierazgarria da Eustakik zein garbi kontatu duen pasarte hau, baina baita amaierako hausnarketaren ondorioa ere.

*Pues tranbian ikusten giñunian sartu zala, leihotik behera botatzen zendun zakua; gero hurrengo paradan jeitsi, eta joaten ziren ogiaren bila, bitartean inork ez bazizun eramane. Komedi gorriak eta latzak, porque, claro, zuk pagatu Donostin ogia, eta gero beste batek zakua eramatea, pues galdu zendun dirua eta ogia. **Eustaki.***

Erreka(r)deren zeregina hainbat egoerataraz egokituz nola joan zen aztertu dugu aurreko lehenetan, erreka(r)deraren izaera denboran zehar nola aldatu den. Egoera aldatzen zen heinean erreka(r)derak ere beraien egitekoa aldatu beharrean aurkitzen baitziren, egoera berrietara egokitu beharrean.

Emakume horiek bizirauteko estrategia bihurtu zuten estraperloa. Dirurik ez zegoen eta jakiak oso urriak ziren, legezko baliabideen bidez eskuratzen zailak; egoera nahiko gordin zen, beraz. Eta estraperloaren jarduerari esker, emakumeek diru apur bat ateratzen zuten beraientzat eta etxeko lan taldeentzat. Bestalde, jakiak lortzen zituzten, bai beraientzat, baita Hernani hornitzeko ere.

Estraperloan denetarik ekartzen zuten, esan dugunez, betiere kantitate txikietan. *Erreka(r)derek* produktua aldeztu aurretik salduta izaten zuten, bazekiten zenbat eramane behar zuten. Produktu horiei esker, eguneroko bizitza errazagoa zen. Garai hartan, kontatu digutenaren arabera, irina oso preziatua zen. Jendeak taloak egiten zituen irinarekin, eta gosea arintzea lortzen zuten horrela. Martak oso garbi du oraindik ere talo haien garrantzia, *gea etzan izaten ogiyikan e... artua izaten genuen asko, baino ein bihar izaten zan entregatu...* Irina estraperloan eskuratzen zuten nagusiki, zeren *Francok errota guzik prezintatu egin zitun; hemen errota asko zan, bazien hiru o bertan, eta baik prezintatuk zauden, inork hartu ez dezan txikitzeke, eta Naparruan izaten zan libre.* Irina, Martak dioenez, gehienbat Arano eta Goizueta aldetik ekartzen zuten, muga gertu zelako. Kamioian edo asto gainean egiten zituzten irina ekartzeko bidaiak. Behin irina lortuta, *in bihar izaten zenon, ogiyik etzenun, eta talua in bihar izaten zenun, eta hua zunare aberatsa zan, talua zunare, etzunak ez ogi ez talo, aber, pentsa zazu! **Marta.***

Azpiegiturei dagokienez, *erreka(r)derek* autobusa eta tranbia erabiltzen zituzten nagusiki, baina oinez ere ibiltzen ziren. Bidaia horiek arrisku han-

dikoak izaten ziren; garraiobideetan ikuskatzaile ugari izaten ziren, eta kasu askotan, *erreka(r)derek* leihotik behera bota behar izaten zuten zeramaten produktua:

Ni goatzen naiz estraperluakin ibiltzen zian andriak, por ejemplo trenian zijuaztela ba, hola, igual trenian Guardia Zibillak, o sartu e, ta lebiotik bera ogiya bota eta beak konturatu haber nun bota zuen eta geo bea billa. Asun.

Lehen Eustakiren ahotan entzundakoaren errepikapena dirudi baieztapen honek. Oso zabalduta zegoen praktika hori, denek ezagutzen zuten nola funtzionatzen zuen, eta Asun ez da horretan salbuespena.

Beste batzuetan, ezkutuan eramaten zituzten estraperloko produktuak, eta ikuskatzaileei ihes egitea lortzen zuten. Ezkutuan eramateko, era askotako baliabideak erabiltzen zituzten, soilenetik hasi eta konplexuenetaraino. Baliabide soilenetako bat, eta ohikoena beharbada, gauzak gonapean eramatea izaten zen, besterik gabe; tranbian bidaiatzen zutenak baliatzen ziren horretaz.

Ordun ogia pasatzeko pues tranbian zetozen handikan honera eta gona tartean sartu behar dezu ogia, edo gonakin tapatu behar dezu kapean, Guardia Zibilla pasatzen da hola begiraltuz, eta orduan, "¿que lleva usted ahí?" "pues nada, el cesto, traia con la marmita", eta gainean damazu marmita, azpian damazkizu 2,3,4 ogi. Eustaki.

Isabelen adibidean ikusi ahal izan dugu ogia eta beste hainbat gai eramaten zituztela ezkutuan; hau da, saskiaren, maletaren edo poltsaren leku berezi batean sartzen zituzten, baina kasu horretan ezkutatu beharreko gauzek txikiak izan behar zuten. Eta azkenik, Inakiren amonaren kasua dugu (adibide hori ere lehenago ikusi dugu, eta gogoan dugu oraindik); ikusi dugunez bere amonak gorputzeko atal guztiak erabiltzen zituen Nafarroatik Hernanira ahal zuen guztia eramateko.

Emakume hauentzat oso goiz argitzen zuen egunak. Oro har, estraperlorako produktua erostera joaten ziren lehenbizi; dendariak esaten dutenaren arabera lehenbizikoak izaten ziren beti. Beraz, goizeko sciak inguruan has-

ten ziren lanean. Gero, euren bideari jarraitzen zioten, batzuetan Hernanira bertara, eta besteetan, Lasartera, Donostiara... Dena saltzen zutenean itzultzen ziren etxera, estraperlo eguna amaitutzat emanez. Estraperlo eguna amaitua zen, bai, baina ez lan eguna. Etxean zein baserrian beste hainbat zeregin bete behar zituzten: arropa garbitu, otorduak prestatu, baratza eta etxe-abereak zaindu... Egun osoko lana izaten zuten, eta horretarako, ingurukoen laguntza ezinbestekoa zen, batez ere familiarena.

Erreka(r)deren taldea heterogeneoa zen. Egoera guztietako emakumeek osatzen zuten: alargunak, ezkonduak, ezkongabeak, zaharrak, gazteagoak... Beraz, oso zaila da singularrean hitz egitea, azken batean bakoitzak bere berezitasunak baitzituen. *Erreka(r)deraren* azken helburua egoeraz baliatuta, bizi estrategia bat aurrera eramatea zen. *Erreka(r)dera* asko emakume alargun edo ezkongabeak ziren; ondorioz, esan daiteke, beraz, haiek zirela familia buru bakarrak, eta beraz, haiena zela etxeko diru sarrera bakarra²²; ondorioz, emakume hauek oinarritzko zutabe ziren etxeko lan taldea mantentzeko. Bestalde, ezkongabeak, normalean, beste familia kide batekin bizi ziren, ez zen ohikoa izaten bakarrik bizitzea. Familia kide hori beste ahizpa bat izaten zen, oro har. Beraz, kasua aurrekoaren antzekoa zen. *Erreka(r)dera* ugari izaten ziren ezkonduak; kasu batzuetan senarra gaixorik zuten, ezin lan eginik, eta beste batzuetan, berriz, gizona osasuntsu zegoen eta fabrian lan egiten zuen. Kasu honetan zein besteetan oinarritzkoa zen diru sarrera hau etxeko lan taldearen biziraupenerako. Azken batean, inork ez du bere burua arriskuan jartzen ezinbestekoa ez badu²³.

Jende guztiak zekien nor ziren *erreka(r)derak*, eta produkturen bat behar izanez gero, haiengana jotzen zen, zalantzarik gabe. Hernaniko *erreka(r)deren* artean Ramona (*ile gorri* ezizenaz ezagutzen zena), La Rubia, La Valentina, Anttoni eta Maritxu ama-alabak, Juanita, Dolox... dira ezagunak. Haien jarduerari esker izan zen Hernanin hornitzeko behar zen guztia, gerra osteko garaietan.

²² Normalean gazteak 14 urterekin hasten ziren lanean. Hortaz, emakume haiek 14 urtetik beherako seme-alabak bazituzten, emakumeek ekartzen zuten dirua zen diru sarrera bakarra.

²³ Badakigu jende askok diru asko egin zuela estraperloari esker; hala ere, guk ikusitakoaren arabera, *erreka(r)dera* hauek lotura handiagoa zuten biziraupenarekin, dirua egitearekin baino. Geroago aipatuko dugun dendatako estraperloak, berriz, lotura zuzenagoa zuen diruarekin.

DENDETAKO ESTRAPERLOA: EMAKUMEAK ARDURADUN

Hernani erdialdean, hau da, Kale Nagusia eta Andra-kale (Kardaberaz) artean, negozio ugari zeuden. Haie-tako askotan emakumeak ziren arduradun, janari dendetan bereziki. Beste batzuetan, burdindegietan esaterako, gizonak aritzen ziren; senar-emazteek zuzentzen zituzten dendak ere bazeuden, hala nola okinde-giak. Denden kasuan, bizi-tzaren arlo guztietan bezala-xe, argi ikusten da sexuen arteko banaketa. Denda mota batzuk, burdindegia-k esaterako, gizonezkoak bakarrik zuzenduak izaten ziren, burdindegian saltzen ziren gauza guztiak gizonari zuzendutakoak ziren, hau da, iltzeak erremintak... eta gauzak konpontzeko beste zenbait tramankulu. Jardue-ra horiek guztiak gizonezko-ei zegozkenez, denda mota horiek ere haiek zuzentzen zituzten.



*Hernaniko Kale Nagusia,
Hernaniko Udal Artxibategia.*

Emakumeek, berriz, beste denda mota batzuetan jarduten zuten: janari dendatan edo “komestible” izenekoetan. Datu hori nahiko adierazgarria da, izan ere, orain arte azaldu bezala, emakumearen ezaugarri nagusietako bat hornitzailearena da, eta denden adibide honekin argi ikusten da emakume-ek arlo guztietan zutela hornitzailearen zeregina.

Gerra ostean, Hernaniko dendetan ere estraperloan aritzen ziren. Eguneroko bizitzan beharrezkoak ziren produktuak saltzen dendetan bereziki, hau da, okindegi eta janari dendetan. Denden kasua eta *erreka(r)deren* kasua oso kasu desberdinak dira, eta ez zuten helburu bera. *Erreka(r)deren* helburua biziraupenerako lehengaiak edo diru sarrerak lortzea zen; dendetan, berriz, irabazi handiak lortzea zuten xede.

Beraz, estraperloa norberaren betebeharrak edo beharretara egokitzen zen. Horrela, tabernariak nagusiki ardoa ekartzen zuten estraperloan; okinek, aldiz, irina.

Garai hartan ogi zuria oso preziatua zen. Arrazionamendu liburuxkarekin bakarrik ogi beltz pixka bat eskuratu zitekeen. Guztiek esaten dute ogi mota hori nahiko txarra zela, badirudi inork ez zuela oso gustuko. Egoera horretan, ogi zuria saltzea debekatuta zegoen arren, guztiek nahi zuten ogi zuria. Eta debekatuta bazegoen ere, okindegi guztietan egiten zen ogi zuria estraperloan saltzeko:

*Hasten giñan goizeko ordubatian lanian, hasten giñan, ta orduan eolen tzian ate guztiak itxita. Ta lehendabiziko hasten giñan rasionamentuko ogia itten, ta geo larteko [...] Ez beltza, ta artokin nabastua. Ta goizeko hiruetatikan bosteterdita o seita itten genun estraperloko ogia [...] Ta ordun izeba jeixten tzan goizeko seilterdik aldian o hola denda irikitzea. Lebentxeo, ba, seilterdik aldian. Orduan guk orduako itten giñun estraperloko ogi guztik olarretan jarri ta gorde itten giñun, ganbara igotzen giñun. **Iñaki.***

Okindegien kasua nahiko kasu interesgarria da. Normalean, senar-emazteek lan egiten zuten okindegian. Gizonak ogia egiten zuen, eta emakumea, berriz, salmentaz arduratzen zen. Beraz, bakoitzaren betebeharra oso ondo banatuta zegoela ikus daiteke. Ogi zuria egiteko, irin zuria eskuratu behar zen lehenbizi. Ogi zuria debekatuta zegoen, eta ogi hori egiteko irina debekatuta zegoelako; beraz, irin mota hori estraperloan erosten zen. Okindegi bakoitzak bere bideak zituen irina lortzeko. Gerran eta gerra osteko zenbait garaitan, Peña okindegian Milagros arduratzen zen Iruñetik irina ekartzeaz. Milagros ez zen okindegiko jabea, koinatua zuen jabea, baina “negozioan” parte hartzen zuen, kasu honetan, estraperloa eginez. Beste mutil batekin joan ohi zen Nafarroara kamioi batean; irina ekartzea zen bidaia haren helburua. Ekar-

tzen zuten irinaren erdia, legeztartzen zuten, hau da, haimenen bidez; beste erdia, berriz, ezkutuan (estraperloan) ekartzen zuten.

*Benoa ni egoten nintzan nere abizpakin, panaderia zun, nere koinaduak ta nere abizpak, ta esan zian harekin juteko bizitzea. Hernanin bizitzen nintzen baina baiengana juteko laguntzera, ta jun nintzen, eta klaro, neskame bezala ez nintzen egoten, baizik eta laguntzen. Ordun Gerra denbora zan ta falta zan irina ogia egiteko. Ematen zioten irina baina horia, artua bezela. Behar zuten irina txuria, zeatikan ordun juaten giñan Pamplonara irina bila, baina estraperloan. Ordun juten nintzan ni mutil batekin, Hernanikoa zan eta sartzen nintzen Hernanin ta juten giñan Azpinasetikan aurrera. Ez naiz gogoratzen izena, ze herri zan, ta han zeatzen giñan bazkaltzen mutil hori ta ni. Gero, kamioia hartu eta juten giñan Pamplonatan aurrera, izena zun etxe bat "Taberna" izena zun. Harea juaten giñan irina bila eta ematen gendun bale bat berrogeitamar zaku [...] eta sartzen ziguten ehun zaku. Balia ematen ziguten ehun, nik entregatzen nuen berrogeitamarrekoa ta ekartzen genuen kamioian ehun. **Milagros.***

Ikusi dugunaren arabera, Milagrosen kasua ez da ohikoa. Hau da, arestian esan dugun bezala, estraperloan emakumeak ez ziren salgai kopuru handiez arduratzen; baina, kasu honetan, Peñakoek kamioi bat zuten, eta, Milagros familiakoa zenez, ardura handiagoa zuen. Beste batzuetan, irina beste baliabide batzuk erabiliz ekartzen zen, hau da, ez zen familiakiderik erabiltzen, estraperlo handian aritzen zen gizon bati egiten zitzaion eskaria, edo beste batzuetan, berriz, okindegiko norbait arduratzen zen irina lortzeaz.

Osabak bazekin, "goizeko laueta etorrikoittuk furgoneta batian hamalua kilo, hamalau zaku irin", ta etortzen tzien. Ta nik pentsatzen det, pentsatzen det, eskupekuak ematen ziela guardia zibilai o, pentsatzen det, zeatikan goizeko hiruetan etorri furgoneta bat hamalau zaku iriñekin ta, ta hain deskaratu ta, pentsatzen det. Deskargatzen giñun, ta itten giñun zatittu zakuak. Ehun kilokuak jarri beharrian berrogeitamarrekuak jarri ta ganbara iyo. Ni ordun nintzan astopotro bat ta indarra neukan ta nik ehun nahi izaten nittun, nahi izate nun osua jartzia. Ta nik osua igotze nun, indarra nun ta, kristona. Ta geo itte genun, itte non nik eunian

*zaku irin bat pasa, ebun kilokua galbaian, beltza zuritu. Ulertzen dezu? Zailla kendu, iriña zuria itten tzan, estraperlukoa zan. Ordun izebak ematen tzian bost pezta zaku bakoitzakatikan, eunian bost pezta. Ta hoi izaten tzan netzako. Ta orduan irin horrekin itten tzan estraperluko ogiya. **Iñaki.***

Iñakiren hitz horietan garbi ikusten da estraperloa gauza ezaguna zela, eta aldi berean, behar-beharrezkoa zutela. Agintariak jakinaren gainean zeuden, eta ez zuten ezer egiten; eurek ere guzti horretan interesak zituzte-la frogatzen du horrek.

Esan bezala, emakumeak dendaren arduradun ziren heinean, beste bide batzuetatik lortzen zuten irina. Hernanin, Zinkoenea inguruetan, Oblatos Konpainiaren monastegi bat zegoen garai hartan. Konpainia hark hainbat fraide zituen Argentinan; beraz, askotan, lur haietatik irin asko heltzen zitzaien. Iñaxik, Peña Okindegikoak, hitzarmen bat egin zuen Oblatos Konpainiarekin haienezako ogia bere okindegian egiteko. Badirudi Argentinatik heltzen zen irin hori nahiko latza zela, eta bigunagoa zen beste irin batekin nahastu behar zen, horrela irin kopuru bikoitza lortzen zen gainera:

*Hemen bizi zian fraile batzuk, izena zuena Oblatos, Oblatos de Maria Inmaculada, ta orduan hoik zuten hartu-eman haundia Argentinakin. Argetinako frailek itten tzuen bialdu, elizatik, legez, iriña bat zuri-zuri-zuria, indar haundia zuna. Indarra zan, iriña ezin tzenun manejatu, fibra ikaragarria zun. Ta ordun itten zuten beren artian, Padre Luis zan, el jefe, ta harrek "beno Inaxia, tengo doscientos kilos de harina que me han mandau los argentinos, bueno yo por tantos kilos me dara usted tantos kilos de pan, ¿vale? Tantas barras de pan, ¿vale?". Ta irin hoi itten genun nabastu beste iriñakin [...] Bai, pentsatzeet kentzen ziola, izebak kentzen ziola. Bai ogiatikan, ta gaiñea iriña zan kalidade hobiagokoa, ta hortane irabazten tzun beak. **Iñaki.***

Hitz hauekin ikusten dugu tranpak egitea ohikoa zela. Okindegietakoak estraperloan harrapatzen bazituzten, zigortu egiten zituzten. Zigorrak era askotakoak izan zitezkeen: denda ixtea, isun bat ordaintzea, labeak zigilatzea, atxilotzea... Guardiek, herriko jendeak bezalaxe, bazekiten dendetan estraperloan ibiltzen zirela, beraz, oso maiz izaten ziren miaketak. Beraz,

erreka(r)derekin ikusi dugun moduan, estrategia ugari asmatzen zituzten dendariek ere harrapa ez zitzaten; Zabala okindegian, esate baterako, zuloak egin zituzten ogi zuria eta irina ezkutatzeko.

Bi zulo eta bat bilatu zuten eta bestia ez zuten beinere bilatu [...] bat etxean eta bestea panaderian [...] ni goatzen naiz gu txikik eta polizik eta armariok eta denak miatzen ogiya aber bazeon. Koxkor bat bilatzea nabikoa zuten [...] Ogia sartzen gendun token in zuten gabardina edo utzi eta hua muittu. "¿Hui esto que es?" Eta linternakin ta begiratu zuten... Rosi.

Beste batzuetan, zigorra ekidin ahal izateko, laguntza eskatzen zen. Azken batean, besteen laguntza oinarritzkoa zen estraperloan aritu ahal izateko.

Gure etxean jaio zan ahizpa bat, hil ta gero urtebetera, beste bat jaio zen [...] poliziek harrapatu egin zuten gure aita ogiakin eta gure aita jun zan apaizarengana esatera nola bataioa gendun, hortako egin gendula ogia. Hue gure aitaren tranpa, baina apaizak esan zion berak ezin zuela gezurrik esan. Rosi.

Diru zigorrak oso handiak izan ohi ziren. Almudenak berak esan digunez, behin, dendan estraperloan aritzeagatik diru zigorra ordaindu behar izan zuen, eta horren ondorioz, erabaki zuela estraperloa uztea.

Irina lortzeko beste modu bat herriko zein inguruetako artoa ehotzea zen. Hau da, artoa eskura bazitekeen ere, ez zegoen errotarik, eta horiek ezinbestekoak ziren artoa txikitu ahal izateko (artoa irin bihurtzeko). Hernanin errota ugari zegoen, baina frankismoaren eta arrazionamendu politikaren ondorioz, debekatu egin zituzten eta zigilatuta zeuden; gobernuaren kontrolpean egin behar zen ekoizpen oro. Baina hemen ere, beste hainbat alorretan bezala, tranpatxo ugari asmatu ziren. Hernaniko sendi batek, adibidez, errota bat zuen bere etxe azpian, Kale Nagusian, eta ezkutuan ibiltzen ziren artoa txikitzen. Herritarrek haiengana jotzen zuten lortzen zuten artoa txikitzeko, eta errotaren jabea, trukean, irin horren zati batekin geratzen zen. Familia honentzat arriskutsua bazen ere, ez zuten ogi faltarik izango, eta herritarrek irina lortzeko beste baliabide bat zuten. Arto gutxi ehotu behar zenean, edo besterik eskuratu ezin zitekeenean, kafea xehatzeko eskuzko ehotzailea erabiltzen zuten batzuk; bistan da beharra dagoenean, irudimena martxan jartzen dela.

Beste kasu batzuetan, irina izan arren, ez zuten non egosi (taloak ez egi-tearren), eta okindegieta jotzen zuten; bertako labeetako azken berotasu-naz baliatzen ziren ogia egosteko. Hori egiten zutenak, oro har, okindegi-koen lagunak izaten ziren, gertukoak. Horrela lortzen zuen Isabelek ere bere ogi zuria. *Aquí se hacía la masa en casa y cuando estaban los panes hechos los llevaba a los Aristimuños, con el calor que quedaba en el horno pues.* **Isabel.**

Aipatu dugun bezala emakumeek dendetan egiten zuten lana sexuen arteko lan banaketaren ondorio zen. Egin ditugun elkarrizketetan ohartu gara emakumeek dendan egiten zuten lana etxeko lanaren luzapentzat har-tzen zela. Hona hemen horren adibide bat: ez *Inaxi zen dependienta, etxe-ko andrea.* **Iñaki.** Beraz, berriro ere kolokan jartzen da publiko/pribatu bereizketa. Bien arteko muga guztiz subjektiboa dela egiaztatzen du horrek. Halaber, ikusi dugunaren arabera, bikoteen (senar-emazteen) esku zeuden dendetan emakumearen ekarpena gizonarena bezain oinarritzkoa zen. Hain zuzen ere, familia bereko kide ziren heinean, talde lanean jardun behar zuten denda aurrera ateratzeko.

BIZIRAUTEKO JARDUEREN SEXUAREN ARABERAKO BANAKETA

Merkatu beltza, esan bezala, zigortuta zegoen, legez kanpoko jarduera zen alegia. Beraz, estraperloan aritzen ziren guztiak, kasu honetan batez ere emakumeak, etengabeko arriskuan aritzen ziren. Emakumeak aipatu ditu-gu, hain zuzen ere, Hernaniren kasuan emakumeak zirelako *erreka(r)dera* edo dendari gisa estraperloan aritzen zirenak. Emakumeek jasaten zuten arriskua zigor bihurtzen zen beti, beraz, aurrera eta atzera ibili behar izaten zuten “guardiei” ihes egiteko.

Badirudi arriskuan egotea ez zetorrela bat emakumeen eredu idealarekin, emakumeak babestu behar ziren pertsonatzat hartzen baitzen, azken bate-an. Hala ere, emakumeak arriskuaren jakitun zeuden: *arriskatu behar zan, la que podía o era capaz de arriesgarse, pues se arriesgaba y sacaba.* **Rosa.** Emakumeek, eta baita ingurukoek ere, onartu egiten zuten egoera hori, bizirauteko jardueren sexuaren arabera banaketaren barruan onartzen zelako hornikuntza.

Gerra osteko egoera salbuespen egoera da, eta etxeko taldearen eta herriaren biziraupena ziurtatu behar da nola edo hala. Egoera horretan, zeinek bere betebeharra du, eta zereginen banaketa sexuen arabera egin ohi da; era horretara, sexuen arteko desberdintasunak areagotu egiten dira. Beraz, emakumeak egoera normalean bizirauteko duen hornitzaile paperari beste ezaugarri batzuk eransten zaizkio aipatutako egoera berezi horretan, eta ondorioz, hornitzailearen egunerokotasunari arriskua gehitzen zaio.

Hernaniko emakumeek harreman sare solidarioa eraiki zuten estraperloak zekarren arriskua saihesteko. Sare hori, ordea, ez da goitik behera antolatutako saretzat hartu behar, ikusezina baita. Arriskuaren aurrean bat-bateko elkar laguntza harremanak eratzen zituzten. Adibidez, guardiak dena ikuskatzen ibiltzen zirenez, dendetakoek esaten zieten besteei inguruan guardiak zebiltzan edo ez. Horren adibide da Iñaxi Goñi eta Cristina Guardariosen kasua: ondoz ondo zituzten beren negozioak, eta biak merkatu beltzean ibiltzen zirenez, guardia inguruan zela ohartarazten zien batak besteari. Beste batzuetan, *erreka(r)derek* erosten zieten dendariari tranbian beraiekin batera guardiak etorri ziren kontatzen zioten:

Hemen igualtxu, batek o bestiak abisatu. Donostikan etortzen zian, Jesus saltzen zutenak, rekadistak etortzen zian, holako etorri da edo trenian edo autobusian. Haik ere esaten zizuten ta bueno. Gero ahal dan bezala ogia gorde. Ahaltzan tokin, beste baratzara bota eta hola, ez harrapatzeatikan, igual zan estropeatu, baino zuri ez harrapatu. Rosi.

Herriko emakumeen eta estraperloan aritzen ziren emakumeen artean ere solidaritate harremanak sortzen ziren:

Nik bat ezagutzen det hola estraperloan harrapatu eta nola gorde zan etxe batian eta haik portalian itxoiten, gero jetxi zan emakume hori pues gizon jantziakin o bere sonbreruakin, bere aurrian pasa eta ez zuen ezautu. Rosi.

Hala ere, askotan harrapatzen zituzten; batzuk, atxilotu, eta herriko ziegetara eraman zituzten. Beste batzuetan, estraperloan zebiltzala ukatzen zuten, ez zitzaizten harrapatu:

*Zuk ez dezu ezautzen zein etortzen dan, nik ez dizut ezautzen zuri eta zuk erosten nazu ogi bat. Ta klaro sospetxa hori, hau zein ote da, porque Hernanin ordun, jende guztia ezautu eitten zan. Eta gero segitun emakume horrekin polizi bat o beno, eta klaro "usted le ha vendido este pan" "yo a esta señora no! Ni la he visto". Ukatu in bibar dena. **Rosi.***

Dendetan ere, *erreka(r)deren* artean bezala, batez ere emakumeek aurre egin behar zioten guardiari, emakumeak baitziren dendan denbora gehien egiten zutenak eta jendearekin harreman gehien izaten zutenak.

Azken finean, sare solidario hauek ezinbestekoak ziren estraperloan ari-tuko baziren; ondorioz, sare horien bidez, emakumeen artean sendotu egi-ten zen hornitzaile rolari zegokion talde dimentsioaren ideia.

Laburbilduz, Hernaniko herriari dagokionez, batera azaldu ditugu gerra garaia eta gerra ostekoa. Garai batean zein bestean emakumeek garrantziz-ko zeregina bete zuten etxeko taldearen eta herri osoaren biziraupenean. Gerra garaian, nekazaritzaren arloa hartu dugu aintzakotzat, eta arlo horren barruan, emakume nekazariak produktuak merkaturatzen bete zuten fun-tzioa azaldu dugu. Gerra ostean, merkatu beltzean, estraperloan oinarri har-tuta, eta legezko hornikuntzan (arrazionamenduan) erabilitako estrategiak argitu ditugu.

Bi garai horiek oso latzak izan ziren (gerra eta gerra ostea), eta arazo han-diak zeuden elikagaiak eskuratzeko; gosea eta janari urritasuna izan ziren batean zein bestean protagonista. Gauzak horrela, emakumeak gaindu egin zuen etxeko lan taldearen hornikuntzan betetzen zuen rol klasikoa.

Garai hartako emakumeen dinamismoa eta indarra ezinbestekoak izan ziren herri osoa aurrera ateratzeko. Emakumeek etxeko esparruaren muga gainditu, eta jendartean nabarmendu egin zen haren presentzia. Emakume-ek hornitzailearen rol klasikoa gainditu zutnean, oharkabean, nahitaezko taldea bihurtu zen Hernaniko biztanleentzat.

Rol klasikoak gainditu ziren arren, ez ziren zalantzan jarri genero diskur-soak. Horrez gainera, Frankismoak bultzatu egin zuen emakumearen irudi tradizionalena.

“Entonces la mujer era para casa”

Carlos.

II

ISILPEKO MERKATUA: APOPILOTZA

Gure ikerlanaren bigarren atal honetan, Hernaniko emakumeek industrializazio garaian betetako zereginetako bat izango dugu ardatz: apopilotza. Azalpenetan aurrera egin hala ohartuko gara industrializazio prozesuak izugarrizko aldaketak ekarri zituela hernaniarren bizitzara. Aldaketa horietara egokitzeke asmoz, hainbat estrategia hartu zituzten Hernaniko gizon zein emakumeek.

Emakumeei dagokienez, denbora bitarte horretan era askotako lanak egin zituzten. Lan horien guztien berri labur emango dugun arren, apopilotza izango da bigarren atal honen oinarria.

Lehen begiratuan apopilotzak ez dirudi gerra garaian merkatura joatea edo gerra ostean estraperloan aritzea bezain heroikoa denik; hala eta guztiz ere, atal honetan agerian geldituko da, jarduera honek lehen batean deigarria ez badirudi ere, Hernaniko familia askok eta askok jarduera honi esker egin zutela aurrera. Apopilotza etxerako diru sarrera osagarria lortzeko estrategia izan zen, lehen buruan, baina zenbateraino izan ziren soilik “osagarriak” *patronen*²⁴ lanaren bitartez lortutako diru sarrerak? Zenbateko

²⁴ “Patrona” hitza erabiliko dugu etxean apopiloak hartzen zituzten emakumeak izendatzeko. Euskaraz “ostalari” edo “ostarlesa” erabili daitezkeen arren, Hernanin emakume horiek “patrona” esaten diote beren buruari, eta apopilo egon zirenek ere bai, hortaz, hitz honi eustea erabaki dugu.

garrantzia zuen emakume horien lanak beren etxeko egunerokotasunean? Zer funtzio zuten *patrona* moduan lan egin zuten emakumeek beren familian? Eta gizartean, zer funtzio bete zuten?

INDUSTRIALIZAZIOA HERNANIN

Gosea, beldurra eta haustura izan ziren gerra ostearen ezaugarriak. Hala ere, 40ko hamarkadatik aurrera, martxan jarri zen berriro ere Hernaniko industria.



Hernaniko Florida auzoa eta Jose Antonio etxe multzoa (1966), Kutxa Fototeka: 1667-64(1).

XX. mendeko Hernaniko industriaren garapena hainbat alditan bana daiteke, joera ziklikoa izan baitzuen. Labur-labur, eta historiari begiratuta, 1900. urte inguruan industriak goraldi handia izan zutela ikus daiteke. Gorkada horren ondoren, hamar urteko egonkortasuna etorri zen, eta 1910. urtetik 1920ra, berriro aurrerapauso handia. Ameriketako Estatu Batuetan 1929. urtean burtsak eragin zuen krisi ekonomikoa berehala zabaldu zen Europa osoan zehar, eta Hernaniko industrian ere izugarrizko eragina izan zuen. 1936an hasi zen gerrarekin bat egin zuen 1929ko krisi horrek, eta gerra ostearino industriak ez zuen aurrerapenik izan.

Hernanin egon diren industriez mintzatzeko, 40ko hamarkada hartu dugu mugarri, 40ko hamarkadaren aurretiko eta ondorengo industrien arteko bereizketa egin dugu.

1940. urtearen aurretik, honako hauek dira Hernaniko industria aipagarriak: **Remy** (almidoi fabrika), **Santiago Carrero** (puntu lanak), **Fábrica de tejidos del Pirineo**, **Biyak bat** (paper fabrika), **Mendia** (paper fabrika), **Montes y Cia** (larru onduak), **Fundiciones del Norte**, **Aristegui** (adrei-luak), **Cerámicas de Hernani** eta **Cerámicas San Miguel** (zeramikak).



Aristegui lantegiaren aurrealdea (1960 hamarkada), Kutxa Fototeka: 406142-39

Gerra ondorengo lehen urteetan papergintzako bi enpresa sortu ziren Hernanin, Urumea ibaiaren ertzetan: **Papelera de Zikuñaga**, 1941. urtean, eta **Papelera del Norte**, 1944an. Industria kimikoek ere garrantzi handia izan zuten bigarren industrializazio horretan: 1947ean **Policloro S.A** sortu zen, eta handik urte batzuetara, 1949. urtean, **Electroquímica de Hernani**.

50eko hamarkadan papergintzaren sektorea indartu zuten beste bi enpresa sortu ziren: 1950ean **Danak Bat S.A**, eta, 1952an, **Transpakar S.A**. 50eko hamarkada erabakigarria izan zen Hernaniren industriaren garapenean; bi paper fabrika horiez gainera, Hernanirentzat garrantzi handikoa izan zen **Orbegozo y Cia** metalgintzako enpresa sortu zen 1953an.

Beraz, 1940tik aurrera sortutako fabrika aipagarrienak honako hauek dira: **Zikuñaga** (paper fabrika), **Papelera del Norte**, **Policloro S.A.** (paper fabrika), **Electroquímicas de Hernani S.A**, **Danak Bat S.A.** (kimi-ka industria), **Orbegozo y Cia** (industria metalurgikoa) eta **Unión Española de Abrasivos**.

Hernaniko lurraren erabilerari begiratuz gero, argi eta garbi ikusiko dugu garapen industrialak izan zuen joera. Honako hau da, labur, industriaren alorreko jardueretara bideraturiko lur sailen garapena:

Jarduera industrialetara bideraturiko lur sailak (hektareatan)²⁵:

	<u>1900 urtea</u>	<u>1955 urtea</u>	<u>1980 urtea</u>
• Florida auzoa	2,53	8,74	14,18
• Antziola auzoa	0,82	2,66	2,61
• Herrigunea/ Villas	0,09	0,90	0,72
• Akarregi / Martindegi	—	2,16	16,60
• Zikuñaga	—	8,15	29,40
• Epele		2,35	18,62
• Jauregi / Santa Barbara		0,65	5,41

Industria lurren kokapenari dagokionez, kokapen hori oinarritzko bi elementuren araberakoa izan zela ikus daiteke: Urumea ibaia batetik, eta tren-bidea, bestetik. Bi elementu horiek ezinbestekoak izan dira industria lurren kokapenari eta egituraketari dagokionez.

Hernaniko II. industrializazioa 40ko hamarkadan hasi bazen ere, gerra osteak moteldu egin zuen garapena; horren ondorioz, 50-60ko hamarkada arte itxaron beharko da industrializazio prozesu horren garai nagusiak aztertu ahal izateko. 50eko hamarkadan Espainiako sistema ekonomikoa

²⁵ Datu hauek Gema Etxeberriak 1983an egindako *Tesisna: Hernani* lanetik (argitaratu gabea) jaso ditugu. (Lan hau Hernaniko Udal Artxibategian topatu dugu).

kapitalismo internazionalarekin uztartu zen, eta estatu mailako aldaketa horrek eragin handia izan zuen eskualde zein herri mailan. Denbora tarte horretan aldaketa ugari izan ziren Hernanin. Aldaketari²⁶ buruz hitz egitean ideia hori zentzurik zabalenean hartu behar dugu. Lehen begiratuan antze-man daitezkeen aldaketez gain (jarduera ekonomikoen aldaketak, aldaketa demografikoak, industria berrien sorrera, hirigintza...), industrializazioak sakoneko beste hainbat aldaketa dakartza berarekin: harremanen eta egituren aldaketa, familia egituraren eta funtzionamenduaren aldaketa, genero harremanen aldaketa, balio eta balore sistemen aldaketa.... Edonola ere, industrializazioa fenomeno konplexua da, eta fenomeno horren azterketak zailtasun ugari ditu.

Industrializazioarekin batera, eta hari zuzenean lotuta, Hernanik emigrazioaren fenomeno bizi izan zuen. Industria kopuruak gora egin zuen heinean, industria horietan lanean jarduteko eskulanaren premia ere izugarri handitu zen. Gertaera horrek eragin zuzena izan zuen datu demografikoetan.

<u>Hamarkada</u>	<u>Biztanleak</u>
1900	3.372
1910	4.326
1920	5.405
1930	6.282
1940	7.093
1950	8.577
1960	13.080
1970	23.388
1980	30.272

²⁶ *Gizarte aldaketaren* ikerketa oinarritzkoa da antropologian. Lehen belaunaldietako antropologoez gizarteak orekan eta aldaketarik gabe baleude bezala ikertu bazituzten ere, berehala sortu ziren ideia hori hankaz gora jarri zuten autoreak (G. Balandier, M. Gluckman, R.Redfield, I. Shapera). Horien ustez, aldaketa, desoreka, ezegonkortasuna, gizartearen baitan dauden fenomenoak dira, eta horien analisia funtsezkoa da gizartearen eta horien funtzionamenduaren analisirako. Beraz, aldaketa uneen analisia egokia da gizarte errealtatera hurbiltzeko.

Gure ikerlanaren bigarren atal honetan, Hernanin 40ko hamarkadan abian jarri zen II. industrializazioa izango badugu ere hizpide, hasiera-hasieratik izan dugu gogoan II. industrializazio horren aurrekari izan zena, hau da, 1900. urtean hasi eta gutxi gorabehera 1939ra luzatu zen garaia.

Emigrazio fenomenoari buruz aritzeko ere egokia iruditu zaigu 40ko hamarkadaren aurreko garaiari begiratzea. Era horretara, emigrazioaren ikuspegi zabalagoa izango baitugu, eta aldi berean, fenomeno horretan izan diren aldaketak ere errazago ikusiko baititugu. Gure ikerketari dagozkion emigrazio etapak hiru alditan banatu ditugu, Bartolome Tatavull Estradari²⁷ jarraituz:

- 1)-Azken etorkinak (1956-1962).
- 2)-Tarteko etorkinak (1940-1955).
- 3)-Antzinako etorkinak (1940 aurrekoak).

Jatorria kontuan hartuta, honako taula hau osatu da²⁸:

JATORRIA	AZKEN ETORKINAK	TARTEKO ETORKINAK	AINTZINAKO ETORKINAK	GUZTIRA
GIPUZKOA	13,5	45,2	58,8	39,5
EUSKAL HERRIKO BESTE PROBINTZIAK	13,6	17,5	17,2	15,8
GAZTELA ZAHARRA	15,0	11,2	13,7	13,3
EXTREMADURA	17,8	5,7	0,3	9,2
ANDALUZIA	14,7	8,8	1,0	9,5
LEON	6,7	2,2	1,0	3,9
GAINERAKOAK	8,7	9,4	8,0	8,8
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0

²⁷ TATAVULL ESTRADA, Bartolomé. (1963). "Vida rural y urbana en la villa y término de Hernani" in *Estudios Geográficos*. C.S.I.C. Juan Sebastián Elcano Institutua. Madril.

²⁸ Ibidem.

Taulan ikus daitekeenaren arabera, 1955. urte ingurua arte (antzinako etorkinak, tarteko etorkinak) Gipuzkoako eta Euskal Herriko beste probintzietako etorkinek garrantzi handia zuten²⁹. Baina pixkana (1955. urtetik aurrera bereziki), espainiar estatuko etorkinak garrantzia hartzen joan ziren. Asunek oso ondo gogoratzen du emigrazio uholde hori. Bere hitzetan ikus daitekeen bezala, lana ugaltzearekin batera etorri ziren etorkinak.

Empezó con la Papelera de Zikuñaga, y se empezó a trabajar y no, no, la gente aquí, segittun basi zian lanian, jende gutxi zeon, geo toda esa plebe ya vino de Extremadura, todo se lleno de extremeños. Asun.

Emigrazioaren hiru aldi horiek era grafikoan ikusteko aukera eskaintzen digute hondoko hiru mapa hauek.



TATAVULL, B, (1963) "Vida rural y urbana en la villa y términos de Hernani" in *Estudios Geográficos*, Juan Sebastián Elcano Institutua, Madril.

Etorkin kopuruak gora egitearekin batera, etxebizitza arazoak sortu ziren, bereziki 50eko hamarkadan. Hernaniko herriak ez zuen azpiegitura nahikoa etorkin haiek guztiak hartzeko. Erdigunean ezin zen etxebizitza gehiago egin, eta pixkanaka, kanpoaldean auzo berriak eraikitzen hasi ziren, eta baita aurre-

²⁹ Euskal Herri barneko migrazio horien protagonista gizon nahiz emakumeak izan dira. Emakumezkoen migrazioa neskametzarekin lotuta dago; fenomeno hori interesgarria iruditzen bazaigu ere, beste baterako utziko dugu horren azterketa.

tik zeudenak zaharberritzen ere: Florida, Portu, Karabel... Auzo horiek, garai horretan, langile auzoak izan ziren, nagusiki. Emigrazio fenomenoaren protagonista izan zirenek oso gogoan dituzte hasierako etxebizitza arazoei aurre egiteko "bat-bateko erantzunak": etxea erdibanatzea ohiko bihurtu zen, eta baita ezinbestekoa ere. Hector Extremaduratik lanera etorri zen. Hernanira iritsi zenean, zuzen-zuzenean jasan zituen etxebizitza eskasiaren ondorioak.

Yo puedo decir que aquí he conocido, aquí en Lizeaga, un piso de cuatro habitaciones y tener que alquilar tres. Si eran tres, alquilaban dos. Y tener que pasar por delante de la misma habitación donde está, como le llamaba, el dueño. Los inquilinos tenían que pasar por donde estaba el propietario. Mucha falta de vivienda...Hector.

Marisak lau seme-alabekin egin zuen Badajoztik Euskal Herrirako bidea, herak bakarrik. Senarra aurretik etorria zen lanera. Urte batzuk Aizarnazabalén igaro ostean, Hernanira iritsi ziren. Lehen hilabeteetan etxea partekatu egin behar izan zuten:

Aquí vivíamos, ¿cuantas familias?, por lo menos seis familias. En esta casa seis familias. En una habitación teníamos dos camas y ahí se metían todos; los niños en una cama y nosotros en otra, el pequeño se metía con nosotros, osea, muy justo todo. Marisa.

Etxebizitza urritasuna ikusi ahal izateko eta etxe horiek gizartean zuten garrantziaz jabetzeko nahikoa da Isabelengana jotzea. Isabeli eta bere familiari etxebizitza bat tokatu zitzaien Portuko auzoan. Tokatu esan dugu, garai hartan ere, gaur egungo babes ofizialeko etxeen antzekoak eraiki eta zozkatzen zirelako. Isabelen iritziz, hori izan da gertatu zaion gauza onenetako bat. Etxe horretara joan ziren arte, soto batean bizi zen bere senarrarekin eta seme-alabekin. Urte haiek, urte gogorrak izan zirela aitortzen du. Soto hartako bizi maila oso eskasa zen, baina besterik ezean...

Estábamos en la bodega de una villa...las ventanas daban a la calle...justo al ras de la calle, pero lo demás abajo. Teníamos la cocina que era el lavadero, una habitación grande y un servicio...Pensando que estas casas nos iban a dar pronto. Cinco años tardaron en hacer esto que era nada, lo más corriente que podía

haber [Portuko etxea]. Cinco años esperando. Y al final, ya se terminaron las casas y... nos sortearon las casas. Mi marido sacó y toda la vida suspirando por un balcón y va y me toca un primer piso... Nada más darnos las llaves encendimos la cocina de carbón que había y empezamos a limpiar, mi marido y yo durmimos aquí la primera noche. Fijate tu las ganas que teníamos de salir ya de ahí. Yo, el día que me dieron esto bueno...! Isabel.

Etxebizitza arazoei aurre egiteko beste baliabideetako bat apopilotza izan zen. Apopilotzak, oro har hartuta, irakurketa ugari izan ditzake, hala ere, emakumeen lanarekin (*patronen* lanarekin) duen harremana azertu dugu guk; horrez gainera, jarduera horren bitartez *patrona* gisa lan egin zuten emakumeek Hernaniko historiari egindako ekarpenera hurbilduko gara. Dena dela, apopilotzaren azterketari buru-belarri ekin aurretik, eta jarduera honen nondik norakoak ondo ulertu ahal izateko, ezinbestekoa da emakume haiek bizi izan zuten testuingurua azaltzea, hau da, industrializazio prozesuak zein frankismoak genero harremanetan izan zuen eragina ikustea.



Jose Antonio deituriko etxe bizitzan giltzen ematea. Argazkian ikus daitezke José María del Moral y Pérez de Zayas (Gipuzkoako Gobernadore Zibila) eta Jaime Font Andreu (Donostiako apezpikua), (1958), Fototeka Kutxa: 914-571

INDUSTRIALIZAZIO PROZESUAK ETA GENERO SISTEMAK

Apopilotza Hernaniko II. industrializazio prozesuaren testuinguruan kokatzen da. Fenomeno honen analisi egokia egiteko, oinarrizkoa da industrializazio prozesuek genero harremanetan duten eragina aztertzea. Apopilotzaren azterketa egiteko oso kontuan hartu behar dira genero harremanak; harreman horiek, halaber, aldaketa garrantzitsuak jasaten dituzte industrializazio eta modernizazio prozesuen ondorioz.

Industrializazio prozesuen eta genero harremanen arteko lotura aztertzeko Pilar Perez Fuentes autorearen lanetatik ateratako ideiez baliatu gara. Azterketari jarraituz ikus daiteke XIX. mendeko industrializazioak eta modernizazioak aldaketa sakonak eragin zituela ordu arteko produkzio eta erreprodukzio sisteman. Prozesu horrek bi ondorio nagusi izan zituen: batetik, “lana” kontzeptuaren aldaketa, eta bestetik, lan merkatuaren banaketa. Bi ondorio horiek ez dira bereizirik aztertu behar, elkarri lotuta baitaude. Horrez gainera, kontuan hartu behar da prozesu horiek etorkizuneko emakumeen bizitzak baldintzatu zituztela. Lehen ondorioari dagokionez, “lan” kategoriaren barruan ondasun eta zerbitzuen produkziara bideratutako jarduerak bakarrik sartuko dira; era horretara, emakumeek etxean egiten zituzten jarduera ekonomikoek ez dute “lan” izendapena hartuko. Ondorioz:

“la extensión del nuevo concepto de trabajo como mercancía se constituirá en un elemento estructurador del sistema de genero en las sociedades industriales, ya que convierte el trabajo de las mujeres, necesario para la reproducción social, en “no trabajo” frente al realizado por los hombres, es decir, en una actividad al margen de todas las consideraciones económicas⁹⁰”. (Pilar Perez-Fuentes, 1995).

Pilar Perez-Fuentesen lanak Bizkaiko lehenengo industrializazioari badagozkie ere, berak egiten duen analisisa egokia da Hernaniko II. industrializazioak gizon-emakumeen bizitzan izan zuen eragina azaltzeko; beste denbo-

⁹⁰ PEREZ-FUENTES, Pilar. (1995). “El trabajo de las mujeres en la España de los siglos XIX y XX. Consideraciones metodológicas” in *Arenal. Revista de Historia de las mujeres*. 2. alea. 2. zkia. Uztaila-abendua.

ra tarte bat aztertzen badu ere (hainbat hamarkada lehenagoko epea), egilearen aztergaia Hernaniko prozesuaren parekoa da. Izan ere, industria iraultzak gertatzen direnean, prozesu horien ondorioz emandako genero ideiak ere indarberritu egiten dira. Hernanin ikusi ahal izan dugun bezala, II. industrializazioaren ondorioz sexuaren araberako lanaren banaketa are nabarmenagoa izan zen. Sexuaren araberako lanaren banaketarekin batera, areagotu egin zen gizon eta emakumeek bete beharreko espazioen banaketa; lan merkatuaren segmentazioa gertatu zen; indartu egin zen espazio publikoaren eta domestikoaren arteko bereizketa; espazio domestikoa (femeninoa) eta merkatal mundua (maskulinoa) bereizirik ikusten ziren. Industriaren bilakaerak etxearen eta lantokiaren arteko bereizketa bultzatu zuen; elkarrengandik urrundu egin zituen bizitokia eta lantokia, eta horrek izugarrizko eragina izan zuen familien egitura eta funtzionamenduan. Eremu domestikoa emakumeei izendatu zitzaien, eta “etxeko andreaken” rola indartu egin zen. Lantokiak, bestalde, eremu maskulino gisa definitu ziren, eta gizonezkoei egokitu zitzaien “bizibidea ateratzen” zuenaren rola. Era horretara, testuinguru normatibo eta sinboliko berriak indartu ziren, eta genero identitateen (femenino-maskulino) arteko harreman asimetrikoagoak bultzatu ziren. Gizonezkoen eta emakumezkoen munduak elkarrengandik ondo bereizitako bi mundu asimetriko bilakatu ziren.

Industrializazioaren eta genero harremanen arteko erlazioa gogoan izatea (labur-labur bada ere) ezinbestekoa da hurrengo ataletan aztertuko dugun apopilotzaren fenomenoaren azterketa zuzena egiteko. Izan ere, lanaren banaketa sexuala, espazio domestiko-publikoen banaketa... kontuan izan gabe, herren geratzen baita apopilotzaren analisia.

FRANKISMOA ETA GENERO SISTEMAK

1950-60ko hamarkadan izan zen apopilotza aztertuko dugu, alegia, Espainia, Euskal Herria eta Hernani Francoren diktadurapean zeuden garaiko apopilotza. Diktadurak gizon eta emakumeen bizitza alor guztietan izan zuen eragina, baita genero harremanetan, aukeretan eta balioetan ere.

Historian atzera begiratuz argi ikusten da Espainiako II. Errepublikan eta Gerra Zibilaren garaian emakumeek beraientzat “ohikotzat/naturaltzat” hartzen ez ziren jarduerak egin zituztela, eremu berriak konkistatu zituztela,

nortasun femenino berriak eraikitzeke lehen urratsak egin zituztela³¹. Francoren erregimenak hankaz gora utzi zuen emakumeek ordu arte lortutako guztia. Frankismoaren ezaugarri nagusia (emakumeei dagokienez) jarrera kontserbatzailea eta antifeminista izan zen, eta erregimenaren helburu nagusietariko bat, berriz, gizartearen “oinarri tradizionalak” berreskuratzea.

Neurri ugari hartu zituzten emakumeak ekoizpenaren eremutik (arlotik publikotik) kanporatu eta etxearen eremura mugatzeko (*emakumeen etxekotzea* esate zaio prozesu horri). Neurri juridikoei dagokienez, 40ko hamarkadatik aurrera lege ugari onartu ziren emakumeak soldatapeko lanetik (merkatu ofizialetatik) kanporatzeko asmoz. Besteak beste, bazen lege bat ezkondu ostean emakumeak lan merkatua uztera behartzen zituenena. Erregimen berria “Fuero de los Españoles” delakoan oinarritzen zen, eta horren arabera lanbide legediak emakume eta haurren gauez lan egitea debekatzeko zuten, eta emakume ezkondua tailer eta fabriketako lanetatik “askatzen” zituen. Emakumeei lanbide asko debekatu zitzaizkien: polizia, epaile, justizia administrazioa, etab.

Hezkuntzarekin zerikusia zuten neurriak ere onartu ziren. Garai hartako hezkuntza politikak sexuen arteko bereizketa zuten oinarri. Bereizketa horrek bi zutabe zituen: lehena neska eta mutilen sozializazioari zegokion, hau da, sexuaren arabera, haurrek sozializazio prozesu desberdinak zituz-

³¹ **Espainiako II. Errepublikak** garaian emakumeen inguruko erreforma ugari egin ziren, besteak beste: botoa emateko eskubidea, ezkontza zibila, dibortzioa, eskubide berdintasuna gizon eta emakumeentzat lanaren alorrean, ama langileak babesten zituen legedia, 1936. urtean abortatzeko eskubidea... Beraz, emakumeen parte-hartzea indartu egin zen gizartearen hainbat alorretan.

Garai hartako emakumeek egindako lana ezagutzeko oinarritzkoa da lan hauek irakurtzea: NASH, Mary. (1999). *Rojas. Las mujeres republicanas en la Guerra Civil*. Taurus. Madril. Eta NUÑEZ-PEREZ, Maria Gloria (1989). *Trabajadoras en la Segunda República: Un estudio sobre las actividades económicas extradomesticas (1931-1936)*. Ministerio de Trabajo y Seguridad Social. Madril.

Gerra Zibilean emakumeek inoiz baino ardurazko postu gehiago izan zituzten Lourdes Beneriak (1977) aipatzen duenaren arabera, eta guk emakume nekazarien jardueren analisisan frogatu dugun moduan. “*El trabajo de las mujeres se centro en los puestos de trabajo abandonados por los hombres al incorporarse a la guerra. Trabajaron en toda clase de profesiones y tareas, desde las actividades agrícolas hasta el sector de servicios y el trabajo industrial. Se emplearon en industrias donde el trabajo masculino había sido tradicionalmente predominante y en oficios que, hasta entonces, sólo los hombres habían realizado. Asumieron puestos de responsabilidad en una cantidad sin precedentes*”. BENERÍA, Lourdes (1977). *Mujer, economía y patriarcado durante la España franquista*. Anagrama. Bartzelona.

ten ikastetxeetan; bigarrena neska nahiz mutilei irakasten zitzaizkien ikasgaiei lotuta zegoen, izan ere, sexu bakoitzak berari zegozkion ikasgaiak zituen, emakumeak *“las preparaba para la vida del hogar, la artesanía e industrias domésticas”*³². Erregimenaren helburua ez zen, inola ere, emakumeei heziketarako bideak zabaltzea. Lau urtez Goi eta Erdi Mailako Ikasketen arduradun izan zen Jose Permartinek argi azaldu zuen emakumezkoen hezkuntzaren helburua: *“se debe, en efecto, tratar de encauzar la gran corriente de estudiantes apartándolas de la pedantería feminista de bachilleras y univesitarias”*³³.

Erregimen berriaren ideario morala familiaren gainean eraiki zen, eta Eliza Katolikoak hartu zuen hori gainbegiratzeko ardura. Familia horien osaera, gizartearena bezala, guztiz hierarkikoa zen, eta aginpidea gizonaren



Atzietaseko eskola publikoak, Hernaniko Udal Artxiboa.

³² FOLGUERA CRESPO, Pilar. (1998). "El franquismo. El retorno a la esfera privada (1939-1975)" in *Historia de las mujeres en España*. Síntesis. Madrid.

³³ BENERÍA, Lourdes (1977). *Mujer, economía y patriarcado durante la España franquista* liburutik jasoa. Anagrama. Bartzelona.

esku zegoen. Emakumeek aginte hori onartu eta seme-alabei helarazteko ardura zuten. Gizon-emakumeek ezaugarri desberdinak eta osagarriak zituztela uste zen, eta bien arteko elkartasunak familiaren harmonia ziurtatzen zuela. Gizonen gaitasuntzat honako hauek hartzen ziren: adimena, gogoeta egiteko eta ulertzeko gaitasuna, ausardia, indarra, etab. Emakumezkoiei dagokionez, berriz, izaera afektiboa zutela pentsatzen zen: bihotza, apaltasuna, sena, errukia eta sentiberatasuna. Familia antolatzeko eredu horrek lanaren banaketa sexuala indartu zuen, eta baita muturrera eramane ere, eta emakumearen estereotipo tradizionalena indartzen zuen. Gizonak ziren “familia buruak”, eta haien ardura zen familia mantentzea. Gizontasunaren edo maskulinitatearen mistika sortu zen. Gizon langilearen irudiari garrantzi handia eman zitzaion, batez ere gizonak familia mantentzeko adina diru irabazten bazuen, era horretara emaztea etxean geratzen baitzen. Garai hartako gizon-emakumeek berehala barneratu zuten botereak ezartzen zien ideologia. “Bizibidea ateratzen” zuenaren rola behar bezala betetzeko izugarrizko ahaleginak egin zituen Carlosek³¹, bere emaztea eta seme-alabak mantentzea oinarritzko eginkizuna zen beretzat.

No, yo lo que decía muchas veces, nunca me ha gustado de que fuera la mujer a trabajar, nunca. Metía yo horas todas las que podía antes de que fuera la mujer a trabajar. Nada mas comía estaba un poquitin así, a trabajar! Cuatro o cinco [extra] horas las que fuera. Carlos.

Modu honetan, erregimenak betebeharrak eta eskubide jakin batzuk ezarri zitzaizkion sexu bakoitzari. Ikusiko dugun eran emakumeek betebeharrak eta mugak gogorrek baziren ere, gizonekoei eskatzen zitzaizkion ere ez zen txantxetako kontua. Beraiek ziren etxeko diru-sarreraren arduradun bakarrak, familiaren beharrak asetzeko ordu ugari lan egin behar izaten zituzten. Marisak, familiarekin Extremaduratik etorritako emakumeak, azaldu ziguenez bere senarrak ordu asko ematen zituen lanean, eta ez zuen astirik “mantentzen” zuen familiaz gozatzeko.

³¹ Carlos Avilatik etorria da. Bere osaba ere Avilatik etorria zen, eta Hernanin topatu zion lana hilobari. Carlos bakarrik etorri zen hasieran, emaztea (Victoria) eta seme-alabak Avilan utzita. Hilabete batzuk igaro ostean etorri zen familia.

Cuando venía, cuando se iba, los niños acostaus, y cuando venía, los niños dormidos, también acostaus, así que no le veían casi. Luego los domingos pues, lo pasábamos bien porque estábamos todos juntos. Marisa.

Ezkontza emetasunaren ideala eskuratzeko bide bilakatu zen, eta amatasuna arrakastaren eta onespen sozialaren adierazle. Amatasunari ematen zitzaion garrantzia erakusten duten lekuko ugari bildu ditugu. Seme-alabak edukitzeko emakumeek jasaten zuten presioari buruz hitz egin zigun Arantxak³⁵.

Baiño ordun ezkondu ta ez bazenun familik, muy mal, etzenun balio, andria gainea, gizona ez, andri horrek ez du balio [...]. Hombre, hombre, culpa guztia zuria zan. Bai, baiño oso culpablek gainia, ta ordun eztakit, oso epoka ezberdiña. Arantxa.

Emakumearen zeregin nagusia ama izatea zenez, haurrik ez zuten emakumeak balio gabeko emakumeak ziren gizartearentzat, bere funtzio “naturala” betetzeko gaitasunik gabeak. Haurrak izateko zailtasunak zituztenek, ahalegin guztiak egiten zituzten zailtasun horiek gainditzeko. Marisak ahopeka kontatu zigun seme-alabak izateko zailtasunak izan zituela, eta ebakuntza bat egin behar izan ziotela arazo horiek gainditzeko: *pues me operaron pa tener familia. Me costo ocho mil, ocho mil pesetas, en aquellos tiempos. Marisa.* Marisak ahalegin fisikoa, psikikoa eta ekonomikoa egin behar izan zuen emakume gisa zuen “akatsa” konpontzeko.

Gizon eta emakumeen arteko funtzio banaketa horren atzean erregimenaren interesak zeuden. Interes ekonomikoei dagokienez, 50eko hamarkadatik aurrera Espainia kapitalismo internazionalaren gurdira igo zen, eta, industriaren alorrean lehiatu nahi bazuen, ezinbestekoa zuen etengabe lanean egoteko prest zeuden gizonak edukitzea. Bestetik, emakumeen funtzioa ugalketara bideratuz gero, etorkizuneko eskulana (langileria) ziurtatzen zen.³⁶

³⁵ Arantxa hernaniarra da. Baserrian jaio eta igaro zuen gaztaroa. Gerora senarrarekin batera etxea erosi zuen herrian.

³⁶ Gerra garaian lan indarraren zati handi bat desagertu zen, bai gerran eta baita erbestean ere.

Feminitate eta amatasun ideia horiek zabaltzeko, eta gizon eta emakumeen munduak urruntzeko, hainbat baliabide erabili zituen frankismoak. Falangisten Sección Femenina³⁷ delakoaren eragina garrantzi handikoa izan zen. Sección Femeninaren Laugarren Kongresu Nazionalan, Pilar Primo de Riverak, sekzioko zuzendari zenak, esandakoak oso ondo laburtzen dute elkarte horrek zer ideia zituen amatasunari eta haurren zaintzari buruz zituen ideiak.

“Evitemos la muerte de los niños. Pensar que puede perder la Patria la vida de un hombre por cualquier motivo de fácil remedio como es un biberón mal dado o una comida dada a destiempo. Educando a las madres evitaremos la muerte de lo hijos. Solo habremos servido a la Patria enteramente cuando por nuestra enseñanza se pueblen los campos de niños sanos como manzanas y los hogares de madres conscientes”.



Sección Femenina Hernaniko Espainia Plazan. (1936) Kutxako Fototeka: 15-34 (424-7).

³⁷ El partido de la falange creó su “Sección Femenina” para organizar a las mujeres según el modelo dictado por su dirigente. Como parte del único partido que gozaba de legalidad en la España de Franco, la “Sección Femenina” llegaría a convertirse en la única organización política legal de las mujeres después de la guerra. BENERÍA, Lourdes (1977). *Mujer, economía y patriarcado durante la España franquista*. Anagrama. Bartzelona.



*Sección Femeninako emakumeak "Auxilio de Invierno" lokalaren aurrean (1936),
Kutxako Fototeka: 776-570*

Sección Femenina-ren barruan *divulgadora* izenaz ezagutzen ziren emakumeak zeuden; haien eginkizuna zen haurrak egoki zaintzeko azalpenak ematea. Osasunaren arloa, espirituala, morala, politikoa eta soziala ziren haien lan cremuak. Garrantzi handiko taldea izan zen, emakumeen heziketari dagokionez³⁸.

Eliza Katolikoak ere ezkontzaren eta amatasunaren defentsa sendoa egin zuen. Elizak, botere politikoarekin elkartasunean, emakumeen gorputzaren kontrola berreskuratu zuen; horretarako familiaren ohorea emakumeen "integritatearen" baitan epaitzen zuen. Bai Elizarentzat bai estatuarentzat emazte eta ama izatea zen (ordena horretan, hau da lehenengo ezkondu eta gero ama izan) emakumeen etorkizuna, edo bestela, moja sartzea. Kastitatea eta otzantasuna ziren emakumeci helarazten zitzaizkien bertuteak, Elizan (katekesian, ariketa espiritualetan), kalean zein etxean. Sexu harrema-

³⁸ RUIZ SOMAVILLA, Maria Jose; JIMÉNEZ LUCENA, Isabel (2001). "Un espacio para mujeres. El servicio de divulgación y asistencia sanitario-social en el primer franquismo" in *Historia Social* Nº 39.

nen helburua ugalketa biologikoak behar zuen, ez besterik, eta ezkontzaren sakramentuaren barruan bakarrik onar zitezkeen. Asunen hitzetan ikus daitekeenez, ezkontzaz kanpo seme-alabak izateak arazo ugari ekar zitzakeen, *ni ezkondu nitzan maiatzean ta otsailean izandu nun, beatzi bilabete justu. Ta pixkat lehenau izaten bazenun.... Jesus!!! Hui!!! Jujuju!!! Ha pasau por bay!!! Asun.* Garai hartan, ezkondu aurretik haurdun geratzen zenak zigor moralaz gain, zigor sozialari aurre egin behar zion.

Geatu nitzan viaje de novios-en enbaraza geatu nitzan. Hamar bilabeteko, ezkondu ta hamar bilabete eskasea etorri zan. Lenau etorri bazan, de soltera, esango zuten jendeak, de soltera izate zan... Madre soltera, oain nabi donak izateu, baiño ordun zan enbarazada geatzea, bueno, bueno... Amalia.

Familia eredu tradizionalaren arabera, emakumeen “berezko” eremua etxea zen. Gune horretan bete behar zituen emakumeak beretzat “naturalak”³⁹ ziren funtzioak: amatasuna eta familiaren zaintza.

Hitz gutxitan azaldu dugun genero ideologia horrek 50-60ko hamarkadak hartzen baditu ere, 50eko hamarkadaren eta 60koaren artean aldeak egon ziren. 60ko hamarkadan Espainiak bizi izan zuen berpizte ekonomikoaren ondorioz, hau da ekonomiaren liberalizazioaren ondorioz, amaitu egin zen emakume aurreztailearen ideala, eta emakume kontsumitzalearen irudia sortu zen. Garapenak emakume langilearen eta prestatuaren beharra indartu zuen. Liberalizazio ekonomikoaren eraginez, ezinbestekoa bihurtu zen giza baliabideak ugaritzea, eta helburu horrekin onartu zen 1961eko uztailaren 22ko legea. Lege horrek berdindu egin zuen gizonen eta emakumeen

³⁹ Gaur egun gizarte zientzien barruan errealitate sozialaren analisia egitean “natura/kultura” bezalako nozioak erabiltzen ez diren arren, urte askotan oinarizkoak izan dira aipatutako ideia horiek. Emakumeak naturarekin berdindu izan dira, gizonezkoak, aldiz, kulturarekin. Antropologia feministak garrantzizko lana egin du dikotomia horiek, kategoria binario horiek, hankaz gora jartzen (natura/kultura; domestikoa/publikoa; sentimendua / arrazoia...). Izan ere, genero erlazioak irudikatzeo erabiltzen diren oposizio horiek sinplifikatu eta distorsionatu egiten dute gizon eta emakumeen bizitza. Horrez gainera, Virginia Maquiera adierazten duen moduan: *estos modelos de representación de género [...] tienen una importante incidencia en la justificación de la desigualdad, ya que cada uno de los polos de los pares dualistas se articulan ideológicamente de un modo jerárquico y a través de ellos la cultura tiene preponderancia sobre la naturaleza, lo público con respecto a lo doméstico, y la producción sobre la reproducción.* MAQUIERA, Virginia. (2001). “Género, diferencia y desigualdad” in BELTRÁN, E. y MAQUIERA, V. (eds). *Feminismos. Debates teóricos contemporáneos.* Alianza Editorial. Madril.

jarduera politikoak zein profesionalak egiteko zituzten eskubideak. Hala ere, emakume ezkonduak senarraren baimena behar zuten edozein lanpostu eskatzeko. Horrez gainera, etxea eta haurrak emakumeen arduratzat hartzen ziren oraindik. Pilar Primo de Riverak Sección Femeninaren XXV. Kongresuan honela adierazi zuen:

“Sería absurdo pensar en estos momentos en una mujer solo preocupada por los quehaceres de la casa, sin el menor interes por cultivarse, por participar en los menesteres de la sociedad, sean políticos, intelectuales o laborales; pero sería absurdo también posponer otros intereses y deberes primordiales (matrimonio, maternidad) a solo la preocupacion de producir. La mujer, sobre todo la mujer casada, tiene obligaciones ineludibles mientras los hijos son pequeños, que no puede escamotear”.

60ko hamarkadan zenbait aldaketa izan baziren ere, funtsean berdin gelditu zen frankismoaren idearioa. Asunen hitzek oso ondo laburtzen dute garai hartako emakumeei eskatzen zitzaiena: *a pero luego me casé y se acabó todo e. [...] Ya la casa, los hijos, el marido y las cazuelas. Asun.*



Kutxa Fototeka

“Papelera del Norte”-ko langileak (1944) Kutxako Fototeka: 482-508(2).

EMAKUMEA ETA INDUSTRIALIZAZIOA HERNANIN

Aurreko ataletan azaldutako generoaren inguruko balioek, espektatibek, ideologiak, asko lagunduko digute industrializazio garaian emakumeek Hernanin egin zituzten jarduerak azaltzeko. Izan ere, gizakiok gai izan bagara ere gizarte eragile gisa historian zehar eta kulturaren arabera egokitu zaizkigun testuinguruetara moldatutako estrategiak aurrera eramateko, ezin uka liteke testuinguru horrek izugarri baldintzatu dezakeela gure bizitza.

Hizpide dugun denbora tarte honetan Hernaniko emakumeek ekarpen ugari egin dituzte. Arestian azaldu dugunaren arabera, frankismoarekin sortu zen “familia idealaren” baitan senarrak betetzen zuen “bizibidea ateratzeko” rola, eta emazteak “etxearen zaindariaren eta kudeatzailearen” zeregina betetzen zuen. Baina familia eredu hori, genero sistema hori, kontraesan sakon baten gainean eraiki zen, eta ondorioz, tarte handia zegoen idealaren eta errealitatean gertatzen zenaren artean. Senarrek emazteak etxean eduki nahi bazituzten ere, nahi horrek soldata txikien errealitatea izan zuen aurrez aurre. Senarraren soldata txikiekin ia ezinezkoa zen etxeko lan taldeak bizirik irautea. Kontraesan horrek merkatu bikoitza sortzea ekarri zuen ondorioz.

“Soilik” etxeko lanaz arduratzen zen emakumearen irudia ezin irits zitekeen “ideal” bihurtu zen. Etxeko taldearen ongizatea bermatzeko, bigarren mailako merkatua, estatistiketan agertzen ez den “isilpeko merkatua”, sortu zen, ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena bideratutako jardueraz osatua eta emakumeek bultzatua.

“Isilpeko merkatuan” lan egiten zuten emakume asko topatu ditugu Hernanin. Emakume horiek ikusezinak dira artxibo eta errolda ofizialetan. Erroldak begiratuta emakumeen eta lan merkatuen arteko harremana noiz behinkakoa dela ematen du. Agirietan ezkondu aurretik fabriketan, neska-me moduan, etab. lan egiten duten emakume ugari agertzen dira, baina, ezkondu ostean, emakume guztien jarduerak “sus labores” izendapenaren barnean sailkatzen dira. “Sus labores” kategoria horren atzean ezkutatzen dira emakumeek isilka, esker onik gabe, egindako lan guztiak. Agiri historiakoetan agertzen ez diren arren, ahozko historiari esker haien guztien bizi-penak berreskuratu ahal izan ditugu.

“Isilpeko merkatuan” lan egitea etxekoentzat diru sarrerak lortzeko estrategia zen emakumeentzat. Bizi estrategien artean hainbat jarduera daude.

Zenbaitek, Arantxak esaterako, **jostun lanak** egiten zituzten etxean. Arantxa hernaniarra da, baserrian jaioa. Gaztaroan, baserriko ekonomian laguntzeko, esne-saltzaile aritu zen urte askoan. Ezkondu ostean herrian erosi zuten etxea senar-emazteek. Senarrak lantoki batean lan egiten zuen, baina irabazten zuen diruarekin ez zen iristen gastu guztiei aurre egiteko. Etxeko ekonomiari laguntzeko eta beste diru sarrera bat lortzeko helburuarekin, albornoak josten hasi zen Arantxa:

*Ba nik garai hartan albornoak itte nittun. Lehen hemen etzan estilaure itten albornoza, oain etxeako baiño, lehen frantsesentzat itte zian. Frantsesak etortzen tzian tranbian ta dena eamate zuen dendatik. Ta zu kontualtzen zea ba oso esklabua, oso diferente dala [...]. Baiño nee gizonak irabazten zun soldatatik, bilerro, ordun aslero kobratze zan, gelditzen tzan bakarrik aste bateko, hestea dana Caja de Aborrosantzako. Ta aste hortakokin ein behar zenun argia ta... Ordun nik lan asko itte nun, dendako lan asko itte nun, baiño bizimodue oso gorra. **Arantxa.***

Arantxak “esklabo” hitza erabiltzen du urte askoan egin zuen lana definitzeko. Berak adierazi zigun ordutegi finkorik gabeko lana zela berea, edozein unetan deitzen zioten dendatik beste hamar albornoz josteko esanez. Gauez, asteburuetan, egin behar izaten zuen lan. Denbora gutxi izaten zuen beretzat eta bere familiarentzat.

Mercedesek ere ezagutu zituen “isilpeko merkatuan” egiten ziren lanak. Aurrerago aipatuko dugun bezala, ohikoa zen emakumeek “isilpeko merkaturtik” lan merkatu ofizialera, eta alderantziz, jauzi egitea⁴⁰. Mercedesek⁴¹ bi merkatuak ezagutu zituen. Hamalau urte bete zituenetik Zikuñagan ibili zen lanean, baina fabrikako lanaz gainera, gogoan du nola egiten zituzten familiako emakumeek **zelofan poltsak etxean**:

⁴⁰ Emakumeen bizi zikloaren arabera (hautzarroa, gaztaroa, ezkontzea, alarguntzea...) aldatzen da haiek lan merkatu ofizialarekin izango duten harremana. Merkatu ofizial eta ofizial kanpokoetan oso ohikoak ziren sartu-irtenak. Emakumeek lan merkatu ofizialetan dituzten sartu-irtenak azaltzeko “intermitentziaren” kontzeptua erabiltzen du Carmen DÍEZ antropologoak *Relaciones de género en Donostialdea y en la Ribera de Navarra* lanean.

⁴¹ Mercedes, JOC (Juventudes Obrera Católica) sindikatuko kide eta zuzendari izan zen. Hernanin emakumeek egin zuten lehen greban parte-hartzaile nagusietako bat izan zen.

En casa, luego había ese tipo de trabajo también, ese tipo de trabajo traían las personas que trabajaban en esa misma empresa, en Zikuñaga. Y traía a casa, y en casa yo me acuerdo, mis hermanas mayores y yo. Entonces era muy común la telenovela y entonces con la radio y tal enchufada y tal en una mesa así, amplia, una hacía una cosa, la otra... era un trabajo así en común. Pues en la familia trabajábamos así [...], los trabajos que yo os estoy diciendo eran absolutamente femeninos. Y era un trabajo extra que lo pagaban también extraoficialmente. Que eran pelas, era un trabajo extra para sacar dinero. Mercedes.

Mercedesez azaltzen duenez, Zikuñaga enpresarako etxean egiten ziren lanak emakumezkoek egiten zituzten, isilpean, eta ordaindu ere isilpean ordaintzen zitzairen.

Arantxa eta Mercedesen bizipenak Hernaniko emakumeek “isilpean” egin zituzten lanen bi adibide dira. Bi adibide horiek ez dira salbuespenak, oso zabalduta zegoen errealitatearen isla baizik. “Isilpeko merkatuaren” errealitatearen barruan kokatu behar dugu aurrerago azalduko dugun *patronen* lana. Adibide horiekin agerian uzten dugu emakume haiek egiten zuten lana, eta lan horren truke eskuratzen zuten dirua, oinarrizkoa beren etxeko lan taldeak bizirauterako. Beraz, kolokan gelditzen da “bizibidea ateratzen” zuena soilik senarra zenaren ideia. Ondorioz, egoera sozialen analisia egiteko, balioen, ideologiaren ikuspegitik errealitatean gertatu zenera jauzi egin behar da nahitaez, hori egiten ez bada itxuragabetu egingo baita historia.

Gizonekin batera fabriketan lan egiten zuten emakumeak ere bazeuden⁴². Emakume horiek, emakume ezkongabe eta alargunak ziren, izan ere 1962. urtea arte indarrean egon baitzen ezkondu ostean emakumeak lana uztera behartzen zituen legea.

⁴² Fabriketan lan egiten zuten Hernaniko emakumeen inguruan zer bait gehiago jakiteko, eta emakume haiek langile mugimenduen sorreran izan zuten garrantzia ikusteko, irakurri: GOROSPE, Begoña, *Crónica de las mujeres de Hernani 1940-1980. Estudio sobre la aportación de las mujeres de Hernani a la reconstrucción del movimiento obrero organizado de 1940-1980*. Argitaratu gabea.



Carrero lanategia, Hernaniko Udal Artxibategia

*Emakumiantzako lana zegoen Karrero fabriketan, ta gero beste Morencos. Neskak han, behin hamalau urtezkeoz. Ta ondo hemen, porque había trabajo pa todos. Eta beno, andriak eta emakumiak klaro behin ezkonduz geotz etzuten lanik itten, itten zuten lan etxian. **Asun.***

Nahiz eta emakume horiek fabriketan lan egin, fabrika barruan oso zorrotza zen sexuaren araberako lan banaketa. Emakumeei lan "errazenak" ematen zitzaizkien, inolako ardura eta prestigiorik gabeak. Gainera, ohikoa zen, emakume izategatik gizonezkoek baino soldata txikiagoak jasotzea.

Lan honetarako egin ditugun elkarrizketetan, era askotako iritziak jaso ditugu emakumeek fabriketan egiten zuten lanari buruz; batzuen iritziz, fabriketan lan egiteak ez zuen inolako kutsu ezkorrik. Aurreko lekukotzan Asunek esan digun moduan, hamalau urte ingurutik ezkondu bitartean ohiko zen fabriketan lan egitea, eta ohikotasun horrek normaltasun kutsua ematen zion lanari. Beste batzuen iritziz, ordea, fabriketan lan egitea oso gaizki ikusten zen, Arantxak dioenez, emagalduta gisa lan egitea bezain gaizki.

Ordun fabriketan nahi zonak lan itten zun, baiño nola esangoizut, garai hartan fabrika jute zana, mentalidadea hala zan, izate zan, ba nola esangoizut, gaur nola putaetxe batean lan eingo balu, en un club de esos... Gaizki ikusia zeon, gaizki ikusia zeon, bola izate zan. Emakumientzat hala izate zan. Emakumeak etxeko lanak, etxeko gauzak eta beno, josi ta, oso diferentea zan, oso diferentea zan. Arantxa.

Lehen ikusi bezala, Arantxa etxean aritzen zen jostun lanak egiten. Etxea-
ren eremua “seguruagoa” zen emakumeentzat. Fabrika gune mistoa zen, eta
gizon eta emakumeak harremanetan jartzeko aukera ematen zuen. Garai
hartako morala, eta emakumeen otzantasuna, kastitatea, eta era horretako
ideiak kontuan hartzen baditugu, fabrika “arrisku” handiko gunea zen. Bes-
talde, kontuan izan behar dugu fabrika esparru publikoa dela, eta gainera,
fabrikan lan egiten duen emakumeak produkzio sisteman parte hartzen
duela. Horrek apurtu egiten zuen etxearen eremuari lotutako eta ugalketara
bideratutako emakumearen irudia. Irudi “idealak” apurtzen direnean, ohi-
koa da gaitzespena sortzea.

EMAKUMEA ETA APOPILOTZA

“Isilpeko merkatuan” emakumeek egiten zituzten lanen artean dago *patro-*
nen lana. Apopilotza gertaeraren sorreran hainbat faktorek elkar eragin
zuten: emigrazioa, etxebizitzarik eza, genero balioak (bereiziki frankismoak
bultzatuak), domestiko-publiko bereizketa, emakumeen etxekotze proze-
sua... Gertakari horiek guztiak apopilotzaren fenomenoan islatu ziren¹⁵.

Apopiloak zituzten emakumeek edo *patronek*, etxerik gabeko langile
etorkinak hartzen zituzten beren etxeetan. Langile horiek, ohearen, janaria-

¹⁵ Hernaniko Udai Artxibategiko erroldei begiratuta, apopiloen fenomenoaren inguruko berri asko lor daiteke. Familien osakeraren inguruko datuekin batera topatzen ditugu “*buēsped*”, edo apopiloen ingurukoak: haien jatorria, heziketa maila... aipatzen dira. Erroldetan datu horiek nola adierazten diren ulertzeko, Inigo de Loyola kalean bizi zen familia bati buruzkoak hartuko ditugu adibide: *bederatzi senideko familia da, aita donostiarra da (peoia) ama bernaniarra (“sus labores”), amaren ama (“sus labores”), alaba (pintxea), semeak eskolarrak. Beraiekin batera biru “buēsped” daude, guztiak daude “obrero” gisara sailkatuak. Jatorriari dagokionez, bata urnietarra da, bestea arabarra eta azkena Orensekoa.*

ren eta arropa garbitzearen truke, aurrez zehaztutako diru kopuru bat ematen zieten *patronei*. Aipatutako zerbitzu horiek (ohea, janaria eta arropa garbitzea) ziren ohikoenak, hala ere, *patronaren* eta langilearen arabera, era askotako hitzarmenak egiten ziren.

Apopilotza, beraz, estrategia ekonomiko bat dela ikus daiteke, baina baita etxe urritasunari aurre egiteko baliabide bat ere. Estrategia ekonomiko horiek etxeko lan taldearen barruan hitzartzen ziren, beraz, apopilotzaz ari garenean etxeko lan taldearen estrategia ekonomikoaz ari gara. Azken batean, etxeko taldearen beharrek baldintzatzen dituzte familia kideen jarduerak.



Emakumeak 50. hamarkadan, Hernaniko Udal Artxibategia

*"Familia barnean erabakitzen da familiakide bakoitzaren funtzioa, betebeharrak eta eskubidea, barneko iherarkiek eta inguru sozio-ekonomikoak eraginda. Horrexegatik, emakumezkoen enpleguaren azterketa, familien estrategien azterketaren barruan kokatu behar dugu, marko honetan hartzen baitira erabaki asko"*⁴⁴.

Emakumeen lana, merkatuko aldatetara egokitu nahi duen etxeko lan taldearen barruan aztertu behar dugu; lan horiek norberaren beharrak eta etxeko taldearen beharrak asetzera bideratuko dira. Hala ere, familiako kideek genero identitate jakin bat dute, eta identitate horrek baldintzatuko du etxeko taldeko kideek egingo dituzten jarduerak⁴⁵.

⁴⁴ MENDIOLA GONZALO, Fernando. (1999). "Generoa, enplegua eta familia estrategiak Iruñean" in *Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía*. 28. zbkia. Donostia.

⁴⁵ PEREZ-FUENTES, Pilar. (1995). "El trabajo de las mujeres en la España de los siglos XIX y XX. Consideraciones metodológicas" in *Arenal. Revista de Historia de las mujeres*. 2. alea. 2. zbkia. Uztaila-abendua.

Hernanin emigrazio prozesua bi alditan gertatu zen, eta apopilotzaren praktika ere bi alditan banatu dugu. Lehenengo aldian apopilo gisara egon ziren gizonak gipuzkoarrak, bizkaitarrak edo nafarrak ziren batik bat, eta kaleko etxeetan nahiz baserrietan hartu zuten bizilekua. Arantxak baserriko nahiz kaleko apopiloak ezagutu zituen. Baserriko apopiloek fabriketako lana eta baserrikoa egiten zituzten. Baserrian egiten zuten lanaren bitartez ordaintzen zituzten jasotako zerbitzuak.

*Zien bi tipotako apopilok, batzuk zien etxe bat alkilau ta, hoik zian apopilo been artian, hoik jatena ta been kontu itte zuen. Hoik fabrika batia juten zian o etxe batian sartzen bazian, o lota. Baiño baserritan zian apopilok, zian bertan lan ein, baik etzuen ezer ordaintzen. Honen truk igual itten bazuen seietatik ordubita lana, horrea etorri, bazkaldu ta atsaldea baserriko lanian. **Arantxa.***

Bigarren emigrazio aldian, herriz, apopiloak espainiar estatutik etorritakoak ziren nagusiki. *Patrona* moduan lan egin zuten zenbait emakumek nahiago zuten apopiloak euskaldunak izatea. Asunek Kale Nagusian zuen etxea; etxea goitik behera beraiena zuten. Behealdean taberna bat zuten, eta goiko pisua, aldi batez, apopiloentzat antolatu zuten. Asunentzat garrantziko baldintza zen apopiloak euskaldunak izatea.

*Guk bihar gendun lana, bihar gendun jendia. Pero nosotros siempre con la gente de aquí. Baserritarrek, eta guk izaten gendun guk beti etxian. Bueno jendiak jateko ta. Era una casa muy asi de obreros y baserritaras. Lan asko ein deu guk, Jesus!!! **Asun.***

Asun ez zen kanpoko langileekin fidatzen. Egun batetik bestera etorkin asko jasotzen dituen herriarentzat zaila izaten da kanpotik datorrenera egoitzea. Ezagutzen ez denaren aurrean beldurra izatea eta mesfidantza agertzea babeserako jokabideak dira.

Amaliak⁴⁶, aldiz, nahiago zituen estatu mailako apopiloak. Apopilo euskaldunak “oso zorrotzak” zirela esan zigun, beraz, lan handiagoa egin behar

⁴⁶ Amalia jaiotzez Oizartzuarra da. Oso gazte atera zen baserritik Donostian neskame aritzera. Neskame lanean bederatzi urte igaro zituen. Ezkondu ostean senarrarekin batera alokairuan bizitzen jarri zen Hernanin. Urte askoan izan zituen apopiloak etxean.

zen haiekin. Estatu mailakoak, bestalde, oso bizimodu gogorretik ihesi zetozen, eta errazago konformatzen ziren:

*Nik nahi izate nittun... ba etortzen tzian ate ondoa con pantalón de pana y mochila, cuanto mas lejos mejor. Ta txurrianos esate zitzaien, ta cuanto más txurrianos mejor, hobeto. Ba euskaldunak izate zian exigenteak. Bai, oso exigenteak gaiñea. Banun euskalduna bat goizen zortzietan jun bazun lanea ta ein behar nion sopa de ajos, zortzietako. Bueno zortzietako, hua janda jutezan. Euskaldunak oso exigenteak. Kanpokoak más contentos, kontentu eote zian, kontentu. **Amalia.***

Apopilotza etxeko lan taldearen estrategia ekonomiko gisa definitu dugu. Etxeko lan taldearen barnean erabakitzen diren estrategia ekonomiko horiek etxeko taldearen baliabide materialei lotuta daude. Aipatu bezala, aztertzen ari garen denbora tartean Hernaniko etxeetan ez zen nahikoa izaten, oro har, senarraren soldatarekin, eta horrexegatik hartzen zituzten apopiloak.

*Apopilok euki giñun ba guk ezkondu giñenetik apopilo bat euki giñun etxian, ban bi ohi zeren, hemen beste bi, geo salita bat zen ta beste bi ohi. Ta eukitzen giñun seibat apopilu. Zeatikan ein behar genun, oain dala 48 urte, 600 pezta errenta ein behar zan, ta 600 pezta ein ta oaindio falta zien 3 pezta para pagar la escalera. Eta ordun gizonan jornalakin ezin tzan. **Amalia.***

Amaliaren hitzetan ikus daitekeenez, lehen unean apopiloak hartzea senarraren soldata osatzeko diru sarrerak lortzeko estrategia moduan adostu zuten. Emakumearen lanaren bitartez lortzen zen dirua “laguntza” modura ikusten zuten. Baina “laguntzaren” ideia hori guztiz faltsua da. Emakume batek baino gehiagok senarrak baino gehiago irabazten zuten apopiloekin egiten zuten lanari esker. Amaliak esandakoaren arabera, bere senarraren soldata astean 60 pezetakoa zen, hau da, hilean 240 pezeta. Etxearen alokairua 600 pezeta ordaintzen zuten hilabetea, beraz, berak gutxienez 360 pezeta lortzen zituen bere lanaren bitartez. Elkarrizketa egin genionean, asko kostatu zitzaion senarrak baino gehiago irabazten zuela onartzea; berak diru gehiago irabazten zuela onartzeak, senarraren “balioa”, lanerako gaitasuna, zalantzan jartzea suposatzen zuela zirudien.

Apopiloak zituzten familia gehienak errentan bizi ziren, alokairuak oso altuak ziren, eta horiek ordaintzeko behar izaten zen senarraren soldataren zati handiena. Bizi ahal izateko beste diru sarrera bat behar zen, nahitaez. Arantxak azaldu zigunez, bere aita garraiolaria zen; ordu ugari egiten zituen etxetik kanpo han eta hemen lanean, baina, hala ere, ez zitzairen iristen pisuaren errenta ordaindu eta eguneroko gastuei aurre egiteko.

Hombre, diru hoi ondo etortzen tzan. Gure aittak itte zun lan hoik danakin, irabazte zun osea, 350 hasi zian bilean, la errenta pagatzen tzan 250, asko zan. Arantxa.

Apopilo kopurua finkatzeko orduan, kontutan hartu beharreko aldagaie-tako bat “familia buruaren” soldata izaten zen, soldata zenbat eta baxuagoa izan orduan eta apopilo gehiago hartu behar izaten zituzten. Etxeko lan taldeen helburua, zituzten bitartekoak ahal bezainbat optimizatzea zen, taldekide guztien eta taldearen ongizatea bilatzea, *bueno, había allí una, encima del frente, en el principio, la andaluza, esa que tenía lo menos seis o siete pupilos*. **Carlos**. Apopilotzari esker iraun zuten Hernaniko langile familia askok. Familia askok eta askok erabili zuten apopilotza aurrera ateratzeko estrategia gisa. Apopilotza, familiarik ez zuten langileen soldataren zati bat familia zutenengana pasatzeko bidea zen, nolabaiteko transferentzia moduko bat. Lehen esan bezala, apopilotza garrantzizko diru iturria bazen ere, ez zen inoiz izan aberasteko bidea edo famili negozioa, bizirik irauteko familia estrategia baizik.

Gizonan jornalakin etzan aillatzen errenta pagau ta zeatzeko, bizitzeko. Umiak e jantzi ta ein behar tziela ta hau ein behar tzala ta, deneako. Ahorratzeko ez, justu. Amalia.

Amaliak berak argitzen digu lortzen zuen dirua “bizitzeko” zela. Lehen mailako beharrak asetzen zituzten diru harekin: haurren arropak, elikagaiak...

Apopilotza diru iturria zenez, etxeko lan talde askok “aukeratu” zuten jarduera hau. Ohiko jarduera izan zen Hernanin. Kopuruari eta jatorriari dago-kionez, aldeak bazeuden ere, etxe gehienetan ezagutu izan zuten noiz edo noiz apopiloren bat: *jende askok, jende askok, Hernanin kasik denak e! Normala zan, leben bemen Hernanin lan asko zan. Apopiloa, jendea*

lanea etortzen zana. **Amalia.** Udal Artxibategiko erroldetan ere ugari dira familia kideekin batera agertzen diren “*huésped*” delakoak.

Valentinak⁴⁷ dioen bezala, hilabete amaierara (edo astearen amaierara) ezin iritsi zebiltzanak, apopiloak noiz edukiko zain egoten ziren. *Patronek* bazekiten nor egon zitekeen apopilo bila, eta batek gehiegi zeuzkanean beste batengana bidaltzen zituen;

Todo el mundo estaba deseandito de tener, asique venía cualquiera por ahí, oyes dice, ¿te hace falta? ¿tienes sitio? Te voy a mandar unos que han venido. Valentina.

Patronen arteko sare horiez gain, apopiloak lortzeko beste bide batzuk zeuden. Ohikoena senarrarekin lan egiten zuten mutil gazteak jasotzea izaten zen. Martaren senarrak Aristegui Adreilu fabrikari lan egin zuen, eta fabrika horretan lan egin zuten mutil gazteak izan zituen Martak apopilo, *fabrikan zebiltzenak asko. Gure gizonak fabrikan lan itten tzon, ta handi-kan, emango ziazuke obiea ta holaxe, holaxe etortzen zian. Marta.* Marisaren senarrak ere lanean ezagutu zuen gerora here etxean apopilo izan zena. Kasu honetan, bikotea egon zen Marisaren etxean.

Tuvimos un matrimonio que, vinieron de Cáceres, no los conocíamos. Mi marido los conoció por el trabajo, al marido. Y decían que por unos meses o, por un, y estuvieron dos o tres meses nada más. Pero sabes lo que nos pagaban, trescientas pesetas al mes, y era mucho pa nosotros, trescientas pesetas. Marisa.

Beste batzuetan, mutil gazte emigranteek apopilo zeuden etxeetara ekaritzen zituzten beren familia kideak, *ya habían cogido una señora donde estaba mi tío de patrona, y hay nos metio con él. Carlos.* Carlosek osabaren bitartez lortu zuen lana Hernanin, eta familia Avilatik ekartzeko aukera izan zuen arte osabak topatutako *patronaren* etxean egon zen zenbait hilabetez.

⁴⁷ Valentina here senar Carlosekin batera Avilatik etorri zen. Hernanin igaro zituzten lehen urteetan apopiloak izan zituzten.

Apopilotzaren beste aldaera bat apopilotzat familia kideak edukitzea izan zen. Aldaera hori etorkin familietan gertatu zen batik bat, eta senidetasun harremanak eta harreman ekonomikoak nahasten ziren. Carlosek eta Valentinak behin egonkortasuna hartzen zutenean, alegia etxea lortzen zutenean, familiako kideak izaten zituzten apopilo:

Hasta un primo de Madrid ha estado aquí de pupilo. Que también le vemos en el pueblo. Luego estuvo una prima que vive en Lasarte con nosotros durmiendo, que era como de la familia.
Valentina.

Rocio García Abad-ek dion moduan, familia kideak apopilo hartzeak ondorio baikorrak zituen apopilo zegoenarentzat, eta baita familia hartzailearentzat ere, “*a los parientes les aportaba un hogar, una cercanía familiar, la protección de la familia, mayor posibilidades de interacción (especialmente en el caso de inmigrantes recién llegados a la ciudad); al núcleo familiar también les reponía beneficio; pues suponía tener mas salarios en la familia, o una ayuda extra para las tareas domésticas...*”⁹⁸. Rocio García Abadek dioena frogatzen dituzten adibideak ere jaso ditugu;

Ese chico estaba soltero entonces, [...] y luego vino la prima y se hecho novio aquí y ya se quedó. Nos valía muchas veces porque llegaban y cobraban, era solteros y siempre tenían, que te hacía falta... te lo prestaban. **Carlos.**

Apopiloak lortu ondoren, etxea antolatu behar zen bertan biziko ziren guztiak sartu zitezen. Tamaina askotako etxeak eta pisuak zeuden arren, “mirariak” egin behar ziren guztia ahalik eta hobekien antolatzeko. Betebehar hori, nola ez, emakumeei zegokien. Valentinak etxeko taldeko bost kideak (bikotea eta hiru seme-alabak) eta bi apopiloak sartzeko moldatu behar izan zuen etxea.

⁹⁸ GARCIA ABAD, Rocio. (1999). “Mercado de Trabajo y Estrategias familiares en las mujeres durante la primera industrialización vizcaína: el hospedaje” in *Vasconia. Cuadernos de Historia y Geografía*. 28. zbkia. Donostia.

¡Que éramos cinco y nos arreglabamos fíjate! Y la casa tan pequeñita. Abí dormían los dos, las dos chicas, y aquí los tres chicos. Uno dormía sólo siempre y los otros dos tenían una cama de matrimonio. Nosotros allí, y Maribi, que era la más pequeña, allí en la cuna, que tenía una cuna grandísima, hasta que tenía cinco años. **Valentina.**

Arantxaren amak ere, 65 metro karratuko etxea egokitu behar izan zuen familia kideak eta apopiloak sartu ahal izateko.

Baiño balata guztize, gue aman da etxia izango zan ba 65 metro karratu hola, sala txiki bat, bi habitazio txiki ta sukaldea. Eta ban bizitzen zian, ban bizitzen giñan gu. Baiña lotako sala alokatzen genun, sala. Oseake geo geatzen zien gurason habitazioa ta guk lo itte genuna. **Arantxa.**

Espazioa eta baliabideak mugatuak baziren ere, familia kideak eta apopiloak ahalik eta egoera erosoenean egotea bilatzen zuten *patronek*. Carlos apopilo egon zen zenbait hilabetez. Ahal zen moduan moldatzen zirela onartzen duen arren, gutxienez bakoitzak ohe bana zuela kontatzen du, *pues como podías. Tres en un cuarto. Pero todos en cama, eso si lo podemos decir.* **Carlos.**

Apopiloak lortu eta haiei lekua jartzea ez zen, hala ere, apopiloekin zeri-kusia zuten lanetan gogorrera. Apopiloek etxeko atea gurutzatzen zutenean hasten zen *patronentzat* benetako lana, ia 24 orduko lan eguna. Emakume haiek, haurrak zaintzeaz eta etxeko lanaz gainera, bikoiztu, hirukoiztu edo lauukoiztu egiten ziren etxeko lanak apopiloekin. Etxeko lanak berak, apopiloena kontuan izan gabe, oinarritzko funtzioa du etxeko lan taldearen ekonomian. Emakumeek txukuntzen dituzte etxeak, emakumeei esker mantentzen da bizi kalitate duina, beraiek dira jakiak erosi eta otorduak prestatzeko eta arropak garbitzeko ardura dutenak, beraien esku dago haur gaixo eta nagusien zaintza... Egiteko horiek guztiak denbora asko inbertitzea eskatzen zuten, baina emakumeek beren familietarako ekoizten dituzten produktu eta zerbitzuek ez dira inoiz kontabilizatzen.

Berez gogorra zen lanari apopiloek sortzen zutena gehitu behar zaio. Lehen aipatu bezala, eskaintzen ziren zerbitzuak apopiloen eta *patronaren*

araberakoak izaten ziren, soilik lotarako tokia eskaintzen zuten batzuek, eta beste batzuek, herriz, ohea, otorduak eta garbiketak. Apopiloaren eta *patronaren* artean hitzarmen moduko bat egiten zen. Apopiloak ahalik eta zerbitzu gehien eskuratu nahi zituen. *Patronak*, berriz, ez zion bere buruari gero eta lan gehiago eman nahi. Martak eta Amaliak esan digutenaren arabera, lotarako zerbitzua zen oinarritzkoena, hortik aurrekoak ziren gainerako zerbitzuak;

Lotakoa. Batzutan afariare izaten zenun, ezin tzuenen ta, baiño normalen loittea, loittea. Arropak garbitture bai. Arropak garbittu ta jarri ta. Geo jan da hoi itten zuen tabernan. Marta.

Ta lehendabiziko etortzen tzian lo eittea, ta geo nabi izate zuen jaten emateare bai. Lehendabiziko obia bakarrik, baiño geo nabi, nabi izate zuen jana ta dana. Amalia

Patrona bera izaten zen, oro har, apopiloekin zerbitzuak eta ordainketa adosten zituen. Gizonek emakumeen esku uzten zuten apopiloekin zerikusia zuten gauzen ardura guztia. Ikus dezakegunez, *patronen* lana ez zen arropak garbitu edo janaria prestatzera mugatzen, negoziazio eta gestio lanak ere egiten zituzten. Apopilo moduan egon zirenek, oro har, iritzi ona dute *patronen* eta haien lanari dagokionez, eta gustura daude izan zuten arretarekin, *entonces de pupilo bien, pero ya sabes te lavaba la ropa, tenías la comida, tenías cosas de manutención para ir tirando. Tampoco se podía dar mucho más para lo que pagabas. Hector*. Gainera, Carlosek dioten bezala, ez da ahaztu behar Hernanira etorkin modura etorritakoek oso bizi egoera gordinak utzi zituztela atzean, eta beraz, nahiz eta *patronek* eskaini zezaketena mugatua izan, ezagutzen zutena baino hobe izaten zen oro har.

Y la mujer se portaba con nosotros... era muy buena patrona. Todo, todo nos lo hacía ella [...]. Ya te digo, sobre eso en particular nos daba más bien de comer que... acostumbrados allí que estábamos... Carlos.

Zerbitzuen ordainketa ere *patronen* esku zegoen. Normalean astero izaten zen ordainketa (garai hartan lantegietan ere astero jasotzen zuten soldata). Ordainketa horiekin sortzen ziren gorabeherei aurre egiten zieten

patronek. Amaliak denbora luzez izan zituen apopiloak, eta ordainketekin zerikusia duten hamaika gertakari gogoratzen ditu. Apopiloek, normalean, ez zuten diru askorik izaten, eta malgutasunez jokatu behar izaten zen:

*Batzuk ibiltzen tzien dirugabe, ezin tzutela pagatu, hurrengoan pagatuko zutela, pagatu gabe aldeine bai. Denetik tokatzea. Denetikan. Beandugo pagatu, oain etzula ta hurrengo asten pagatuko zula, bueno ba. Ta hurrengo astian bi pagatu beharrian bat ta erdi pagatu ta. Gu pobriak giñan, ta oindik etortzen tzien pobregok. Entendittu eitten gendun. **Amalia**.*

Ordainketak ez zirenez egunean egiten, *patronek* zailtasunak izaten zituzten familiaren aurrekontuak prestatzeko. Baten bat joan omen zen ordaindu gabe, baina ez zen ohikoena izaten. Almudenari tokatu zitzaion horrelako kasu bat, eta honela kontatu zigun:

*Baiba, pagatu gabe eskapatu. Bat baino gehio. Bat Frantzia jun lanea, malela utzi ta bueltan pagatuko zun ba, baino etzen etorri ta malelia ireki. Galtz pare zikin baino ez zuen! **Almudena***

Etxeko lanak egin, haurrak zaindu, apopiloek zegozkien zerbitzuak egin... hori guztia egin ahal izateko, goizean goiz hasten zen emakume haien lan eguna. "Isilpeko merkatuan" egiten diren lan askorekin gertatzen den moduan, ez dago ez lan egunaren hasiera ordurik ez amaiera ordurik. Amaliak adierazi zigunez, etxeko lanak, apopiloekin egin beharrekoak, haurren zaintzarekin zerikusia zutenak, batzuk besteekin korapilatzen zitzaizkion.

*Ba goizen bosterditan jeiki, danai bokaillua jarri. Danai gosaria zeatu, gosaria, bokaillon emate zuen. Boakilloa zeatu. Kafía pixkanan danai eman, eta geo ba bokaillokin lanea. Ta eguardin etortzen tzieneako etxia eiña ta bazkaria jarria. Klaro. Ta geo berriz bokaillotxo, atsalden emate zuen bokaillotxo bana, atsalden berriz hue prepatu. Ta geo atsalden etortzen tzieneako dena iña, arropa garbittua, etxia eiña, denborea baldin banon, pixkat paseatzea umekin ateare bai, ta geo beize afaria jarria. **Amalia**.*

Gainera ez dugu ahaztu behar arropa garbitzeko (familia kideena eta apopiloena), adibidez, ez zegoela garbigailurik, guztia eskuz egiten zela.

*Pues lavábamos en la pila que muy grande, y lavábamos con un, de estos que andaban así, se echaba jabón y venga, venga, venga. [Al lavadero] también íbamos, pero íbamos a cosas grandes; a una manta o. Y luego pues compramos una lavadora de esas que se cargan por arriba, que luego había que vaciar en el cubo, en el balde. Así sacaba, la parabas, y tirabas por la fregadera. Yo hasta hace poco no me he acostumbrado a la lavadora. Lavaba yo antes que la lavadora. Es verdad, yo lavaba los trapos antes que la lavadora, pero ya no. **Marisa.***

Marisak aditzera ematen digun garbigailu hori gogoan dute garai hartako emakume guztiek, eta hasieran lan asko aurrezten ez bazuten ere, ez baitzien oihalei urik kentzen, garrantzia hartzen joan zen emakume hauentzat, batez ere, beste aurrerapen batzuk agertzen joan ziren heinean. Etxerako tresna berriekin emakumeek denbora librea lortu zuten, ordu arte eduki ez zutena.

Aurreko pasarteetan irakurritakoa zen emakume haien eguneroko bizitza, eta egunero egiten diren gauzekin gertatzen ohi den bezala, ahaztu egiten da zuten garrantzia. Eguneroko lana izateaz gain, jai egunik gabeko lana zen; atsedunik gabea. Berriemaile batek esan digunaren arabera, haurra izan eta hurrengo egunean lanean aritu zen:

*Jaio zan, zazpikia jaio zan, eguarritan el día veintitres. Jaio zan goizian ta veinticuatro arratsian afaria nik jarri non, prepatu non. Utzi ein ziaten, que no hay derecho, baño nire balintia ta hantxe ein non. **Amalia.***

Etxeaz eta apopiloez arduratzeaz gain, emakume haiek beren seme-alaben heziketaren erantzule ziren. Lanaren hasieratik bertatik aipatu bezala, aztergai dugun denbora bitartean emakumeen funtzio nagusia ama izatea zen. Gainera, egunero gogorarazten zitzairen (etxean, elizan, kalean...) ama ez ezik, "ama onak" izan behar zutela. "Ama on" izateko baldintza nagusietako bat zen seme-alaben alde "gorputza eta arima" ematea. Ikerlan osoan zehar ikusi ahal izan dugun moduan, seme-alaben heziketari eta zainketari

lotutako jarduerak ez ziren lantzat hartzen, emakumeez, berez, maitasunez, eta kexu izan gabe egin behar zituzten jarduerak ziren. Marisaren pasarte honetan ikusiko dugunez, “ama lanak” ere sufrimendua dakar, egunerokotasunak ez du zerikusirik amatasun idealizatuarekin.

*Estaban los niños ya mayorcitos pero yo sufrí lo mío e, porque eran niños muy raros, porque no querían quedarse con los vecinos ni nada. Yo vivía en una calle de rico, solamente había una señora alau, otra al frente, y lo querían con locura pero no querían estar-se con ella. Asique, así iba al médico con cuatro o cinco, como las gallinas con los poyitos [...]. Cuando eran pequeños sí, y con la niña, y luego iba a llevar a la niña por la mañana, traía los recaus para acá y luego a las doce a por ella, y ya veníamos, y luego otra vez. ¿Cuántas veces? Una, dos, tres, cuatro, seis veces. Tenía que andar parriba y pabajo. A la niña la llevaba y la traía. **Marisa.***

Apopiloen lana, etxeko lana eta haurren zainketa, hirurak batera egiteko zailtasunak izaten zituzten *patronek* eguneroko bizitzan. Lan hirukoitz horri aurre egiteko emakumeez beste emakume batzuen laguntza izaten zuten. Emakumeez elkar laguntza sareak zituzten. Elkar laguntza sare horiek hainbat motatakoak izan zitezkeen; Valentinaren kasuan, esate baterako, elkar laguntza sare hori familiako beste emakumeez osatzen zuten, hau da, familia kideak ziren elkarri laguntzen ziotenak, *y dejaba los críos en casa de mi tía, que vivía en otro pabellón de más allá. La dejaba allá los chavales. Si sí, siempre he tenido, se los llevaba mientras yo iba a los recados y me los cuidaba siempre. **Valentina.*** Beste batzuetan, Amaliak eta Juliak bezala, elkar laguntza bizilagunengan bilatzen zen.

*Nei aldamenekoak asko laundi zian. Nik esaten nion bonea jun behar det ta zea etorriko zea apopiloi, jarria daukat bazkaria baiño serbitzea? Ta bai, bai. Bezindadeakin oso ondo. Apopillona eukitzen non jana iña, ta beai beak hartzeko esan, eo bestela bezindadekoi esan, zea haurrekin meikuana jun behar det ta etorriko zea bazkaria ematea... **Amalia.***

Haurrak zaintzen laguntzeaz gainera, eguneroko bizitzako gauza txikieta-rako ere martxan jartzen ziren harreman sare horiek:

Leben beti jotzen zian bebeko andriak nei eskobakin, “zer nahi dezu amona Juanita? Zer nahi dezu amona Juanita?” “Ekatzan gatz pixkat”, olio pixka o, lenao asko eskatze zan, eskatze zan... bika etortzen zian. Amalia.

Idatzi berri ditugun hitz horietan nabarmena da emakumeen arteko gertutasuna, konplizitatea. Eguneroko lan gogorre aurre egiteko ezinbestekoak ziren hurbileko harreman horiek, *elkarri launtzen giñan, elkarri launtzen giñan, oain oso kanbiatua dau. Amalia.*

Apopiloek etxean denbora ere asko aldatzen zen kasu batzuetatik bestetara. Baziren hilabete batzuk egoten zirenak, eta baita urteak pasatzen zituztenak ere. Etorkinei dagokienez, ohikoena izaten zen (ezkonduta bazen) lehenbizi senarra etortzea, eta hainbat hilabeteren ondoren (diru apur bat aurreztu ondoren) emaztea eta seme-alabak etortzen ziren. Hectorrek azaltzen digunez (Extremaduratik etorria), berak lau hilabete egin zituen *patronaren* etxean, eta ondoren familia etorri zen, *estuve allí, llegué a primeros de noviembre y hasta abril del sesenta y seis que vine con la familia. Hector.* Apopiloek familiarekin igarotzen zuten denborak eragin handia



Hernaniko “Papelera del Norte” lantegiaren inaugurazioa. (1944), Kutxako Fototeka: 482-501 (5)

zuen haien arteko harremanak. Gizakion arteko harremanen nolakotasunean garrantzizko aldagaia da elkarrekin igarotako denbora. Alegia, oro har, zenbat eta denbora gehiago igaro elkarrekin, hainbat eta harreman estuagoak sortzen ziren. Martaren kasuan, apopiloaren adinak garrantzi handia izan zuen harrekiko harremana zehazteko orduan. Apopiloa hamazazpi urteko mutil gaztea zen, eta Martak berak onartu zigunez, berak seme baten moduan hartu zuen.

Nei aurrena Salamancatik etorri zanak 18, 17 urte zittun, 17 urtekin etorri zan. Nik hie seme bat bezela euki non, beti. Baiño honek afaldure eitten zon etxen. Seme bat bezela. [...]. Bestea berriz jun tzan ta geo etortzekotan da, seiñak utzi zittun, karta bat e eintzun da, geo extranjeria jun behar zula ta. Ta geo ezteu hartu, hai-kin denbora askon, denbora askon izan zien. [...] **Marta.**

Etxean apopilo bat egoten zenean, apopiloak familia kide guztiekin izaten zuen harremana, hau da, ez zen *patronarekin* bakarrik erlazionatzen. Gainera, apopiloak zenbat eta denbora gehiago egin etxean, hainbat eta adierazgarriagoa zen haren garrantzia etxeko lan taldearen dinamikan.



Aristegi lantegi Hernaniko Florida auzoan. (1962), Kutsako Fototeka: 1101-62(1)

*Bost urte ta sei urte indakok ditu. Hok die etxeakoak, tratatzen dituzu etxeakoak bezela. Nee alabak esateo boi, nee alaba zaharrena, nei apopilok “ze ondo izaten nitzan, zenbat bider hartu nau”, askotan esaten do. “Ni askotan nee aittak baiño gebiau hartu nau apopilok”. Denak izate zian etxeakoak bezela, etxian bezela, guk bala tratatzen giñun. Guk ez giñun itten apopilontzako jan bat eta gutzako beste jana. Danantzako iguala. **Amalia.***

Urteak joan urteak etorri *patronek* egunero-egunero egiten zuten lan. Baina, hala ere, emakumeek egiten zituzten gainontzeko lanekin gertatzen zen moduan, *patrona* lan hori ere ikusezina zen, ez zitzaion zegokion balioa onartu, ez beren etxean ez etxetik kanpo.

*Hue [senarra] etortze zan fabrikatik afaldu ta ohiea. Hurrengo goizen, bostetan jeiki ta nola seietan lanea jun behar zun, bua lanea. Ta nik nola etxin lan ein behar nun, neria zan más [...], nee gizonak bala ikusio beti. “Ba nik fabrika jun behar det eta nik lan gogorra daukat”; neria ez da gogorra etxian! **Amalia.***

Eguneroko lanaren gogortasunak, lana ez aitortzeak, frustrazioak, nagusi ziren *patronen* bizitzan. Zenbait unetan, barne gatazkak ere izaten zituzten:

*Gizonakin enon hitzein nik, hitzein ze? Ze hitzeingo nion? Ze esango nion? Eztet nahi zuekin bizi? Han tzeren txikiak eta etzeon uzteik, etzeon, etzeon ezer eitteik. Bizimodue izan deu oso... Ni nitzan solteratik ezkondata asko kambiatu bizimodue baiño seittu aurea. Baiño aurea ein beharra zeon. Ez tau esateik nik eztet hola bizi nahi ta utzi ta aldeitteik. Oain itten due boi e! Baiño, enteitzen... **Amalia.***

Une oso gogorrak igaro arren, emakume haiek aurrera jarraitu zuten; egunero sortzen zitzaizkien zailtasunak gainditu zituzten.

Atal honetan frogatu dugun moduan, 50-60ko hamarkadetan *patronek* egin zuten lana ezinbestekoa izan zen beren etxeko taldeen ongizatean. Haien lanari esker lortzen ziren diru sarrerak “laguntza” soila baino askoz

ere gehiago ziren, oinarrizkoak ziren. Gainera, ikusteko aukera izan dugun moduan, *patronek* lortzen zituzten irabaziak, sarritan, senarrek lortzen zituztenen parekoak (edo handiagoak) ziren. Alderdi ekonomikoaz gainera, emakume haiek ezinbesteko pieza ziren etxeko taldearen dinamikan, besteak beste, beraien esku baitzegoen seme-alaben heziketa eta zainketa.

Hernaniko II. Industrializazioan garrantzi handikoa izan ziren jarduera hau aurrera eramateko (36ko gerran eta gerra ostean bezala) emakumeen arteko elkar laguntza harremanak sortu ziren. Sare horiek apopiloak lortzeko, haurrak zaintzeko eta apopiloekin egin beharreko lana egiteko, eta abarretarako erabiltzen ziren.

Bestalde, *patronen* lanak beren etxeetako ateak gainditu zituen, beti ere “susmagarria” den domestiko-publiko arteko muga gainditu zuen, eta Hernaniko gizartearentzat ezinbestekoa izan zen zerbitzua eskaini zuten. Guztiz irakurketa ekonomizista eginez gero, ongi nabaria da *patronek* eginiko lanari esker izango ez balitz, Hernanira iritsi ziren langileak ez zirela egon ziren bezain ondo “zainduta” egongo (baldintza higienikoak, elikadura); beraz, langileen egoera kaxkarragoa izan balitz, haiek egindako lana ez litzateke hain eraginkorra izango. Eta horrek, azken finean, herriaren industria garapena motelduko luke.

Irakurketa ekonomizista alde batera utzirik, *patronek* inon idatzi ez den funtzio soziala bete zuten: etorkinen komunitatearen eta komunitate hartzailearen arteko zubi lana egin zuten. *Patronen* etxeetan izan ziren kultura desberdinen arteko lehenengo hartu emanak. Bai etorkinek, eta baita *patronek* ere, asko ikasi zuten batzuek besteengandik. Badira etorkinekin gaztelania ikasi zutela kontatu diguten *patronak*; baita tomatea entsaladan jaten etorkinekin ikasi zutenak ere. Eta etorkinak, bestalde, *patronen* etxeen, *patronekin* eta haien familia kideekin batera, euskal ohituretara hurbildu ziren, pixkanaka. Berriemaile batek, irribarrea ezpainetan zuela, kontatu zigun, adibidez, bere senarra apopiloekin joan ohi zela idi apustuetara.

Patrona moduan lanean jardundako emakume haien bizipenak eta oroi-tzapenak “isilpeko merkatuan” egin zuten lana ezagutarazteko helburuarekin ekarri ditugu orri hauetara.

LABURBILDUZ

Azterketa honetan 1936tik 1970era bitarteko aldia hartu dugu aintza-kotzat. Oinarri gisa talde domestikoa (etxeko lan taldea) hartuta, denbora tarte horretan emakumeek egin zituzten hainbat jarduera aztertu ditugu: nekazaritzako gaiak merkaturatzea, estraperloa eta apopilotza.

Hiru jarduera hauek estrategiatzat hartu ditugu, emakumeek garai hartako egoerari aurre egiteko erabili baitzituzten.

Emakumea estrategia horiek antolatzeko eta aurrera eramateko gai da; eragile moldakor eta aktiboa da; gizartea aldatzen dela ohartzen da, eta aldaketa horietara moldatzeko, ekintza eraginkorrak egiten ditu. Horrez gain, jarduera edo estrategia horiek aurrera eramateko beharrezkoak diren sare solidarioak antolatu ditu, eta era horretara, indartu egiten da emakumeen talde izaera.

Emakumeak oinarrizko eragileak dira, oroimenaren puzzlearen garrantzizko atala osatzen du. Hainbat egoeratan oinarrizkoa izan da emakumeen jarduna gure iraganaren jarraipenari eta biziraupenari dagokionez.

Hainbat salerosketa moduren bitartez (nekazaritzako produktuak merkaturatzea, merkatu beltza edo arrazionamenduaren kudeaketa), bere etxeko lan taldearen eta Hernani herriaren hornitzaile nagusia izan zen gerra garaian eta baita gerra ostean ere.

Industrializazio garaian, etxeko lan taldearen sostengurako nahitaezkoak izan zen *patronen* dirua. Horretaz gain, ama hornitzaile rol klasikoaz gainera, Hernani osorako baliotsua izan zen funtzio soziala bete zuten: etorkin komunitatearen eta komunitate hartzailearen arteko zubia eraiki zuten.

Ondorioa garbia da, Hernaniko herrian emakumeek egindako ekarpenei esker, zati bat gehitu diogu oroimenaren puzzleari. Hala eta guztiz ere, asko falta da Hernaniko historiaren oroimen osatua eraikitzeko.

“Eta holaxe bizitu izan gea”

Marta

BIBLIOGRAFIA

AGUIRRE, A (2001) *Labaderoak eta labanderak*, Hernaniko udala, Hernani.

AGIRRE, I, (2002), *Arrasateko emakumeak XX. mendean*, Arrasateko udala.

ARANDA, O. ASTARLOA, A. eta CARRASCOA, J. (2000). *Ostarletsen zeregina Ermuan. Etxeko lanaren garantiza ekoizpen prozesuen barruan*, Ermuko Udala. Emakumezkoen Aukera Berdintasunerako Saila. Ermua.

ARANGUREN, B, (2002), *La mujer en la sombra: la vida junto a los grandes hombres*, Aguilar, Madril.

ARBAIZA, M, (1996), *Familia, trabajo y reproducción social. Una perspectiva microhistórica de la sociedad vizcaina a finales del Antiguo Régimen*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.

APAOLAZA, U, (2003), "1936ko gerra Hernanin", *Hernani 2003ko Urteak* XI. zeh, 128/136, Hernaniko Udala.

BARCENILLA, M.A, (2001), *La mujer en Euskal Herria: hacia un feminismo propio*, Basandere, Donostia.

BARRUSO, P, (1996), *Verano y Revolución. La Guerra Civil en Gipuzkoa*, Haranburu, Bilbo.

BECK, E, ET ALL, (2001), *Mujeres y transformaciones sociales*, El Roure, Esplugues de Llobregat, Bartzelona.

BENERÍA, L, (1997), *Mujer, economía y patriarcado durante la España franquista*, Anagrama, Bartzelona.

BORDERÍAS, C, (1993), *Entre líneas: trabajo e identidad femenina en la España contemporánea: la compañía telefónica, 1924-80*, Icara, Bartzelona.

BORDERÍAS, C, ET AL, (1994), *Las mujeres y el trabajo: rupturas conceptuales*. Icara, Bartzelona.

BOTT, E (1995) "Familias urbanas: roles conyugales y redes sociales" in *Lecturas de antropología social y cultural*, Cuadernos de la UNED, Madril.

BUXO, M.J, (1986), *Las mujeres en la historia de España*, Planeta, Bartzelona.

CAMPO, M, (1963), *La mujer en España; cien años de su historia: 1860-1960*, Aguilar, Madril.

CAMPOS, M.C eta RODRIGUEZ, L, (2000), *Emakume donostiarrek XIX eta XX mendeetan bete zuten eginkizuna*, Emakumeen Ordezkaritza, Donostia.

CAPEL, R.M, (1982), *El trabajo y la educación de la mujer en España (1900-1930)*, Dirección General de Juventud y promoción socio-cultural, Madril.

COMÁS, D, (1995), *Trabajo, genero y cultura: la construcción de desigualdades entre hombres y mujeres*, Icara, Bartzelona.

DÍAZ, F, (1994), *La vida cotidiana en la España de la Guerra Civil*, Edaf, Madril.

DÍEZ, C. (1993). *Relaciones de genero en Donostialdea y en la Ribera de Navarra. Actividad laboral y cambio*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Donostia.

DÍEZ, C. (1999). "Sistema de genero, desigualdad e identidad nacional" 147-172or, in ALBITE, P. (Koor). *Sociedad Vasca y Construcción nacional*. Gakoa.

DOUGLASS, W. "The Basque Stern Family Household. Mith or Reality?" in *Journal of Family History*. 13. alea. 1. zenbakia (75-89).

DUBY, G, ET ALL, (1993), *Historia de las mujeres en Occidente*, Taurus, Madril.

EGAÑA, I, (1998), *Guerra Civil en Euskal Herria, 1936. La Guerra en Gipuzkoa*, IV. alea, Aralar liburuak, Andoain.

ETXEBERRIA, G, (1983), *Tesina: Hernani* (Argitaratu gabea), Hernaniko Artxiboan aurkitua.

FALCÓN, L, (1996), *Mujer y sociedad: análisis de un fenómeno reaccionario*, Vindicación feminista, Madril.

FOLGUERA CRESPO, Pilar, (1998) "El franquismo. El retorno a la esfera privada (1939-1975)" in *Historia de las mujeres en España*. Síntesis.

FUSI, J.M, PALAFOX, J, (1997), *España: 1808-1996. El desafío de la modernidad*, Espasa Calpe, Madril.

GARCÍA, R, (1999), "Mercado de trabajo y estrategias familiares en las mujeres durante la primera industrialización vizcaina: el hospedaje" in *Vasconia. Cuadernos de Historia y Geografía*, 28. zenbakia, Donostia.

GALLEGO, M^a.T, (1983), *Mujer, falange y franquismo*, Taurus, Madril.

GARRIDO, E, (1997), *Historia de las mujeres en España*, Síntesis, Madril.

GONZÁLEZ, P, (1992), *El trabajo de las mujeres a través de la historia*, Instituto de la mujer, Madril.

GOROSPE, B, (1994), *Crónica de las mujeres de Hernani 1940-1980. Estudio sobre la aportación de las mujeres de Hernani a la reconstrucción del movimiento obrero organizado de 1940-1980*, (argitaratu gabea).

IMAZ, K, (1990), *Estudio sociológico sobre la situación de la mujer en Rentería*, Udala, Osasun eta Gizarte ongintza, Errenteria.

INTXAURRAGA, K , ET ALL, (1994), *Las mujeres rurales de la Comunidad Autónoma de Euskadi*, Emakunde, Gasteiz.

JULIANO, D, (1997), *Emakumeak Euskal Herriko Historian*, Ipes, Bilbo.

LASA, X.M, (1994), *Gerra Zibila andoaindarren begietatik*, Larramendi Kultur Bazkuna, Andoain.

LLONA, M, (2002), *Entre señoritas y garçone: historia oral de las mujeres bilbainas de clase media (1919-1939)*, Malagako unibertsitatea, Malaga.

MACDOWELL, L, (2000), *Genero, identidad y lugar: un estudio de las geografías feministas*, Cátedra, Madril.

MANGINI, S, (1997), *Recuerdos de la resistencia: la voz de las mujeres de la guerra civil española*, Península, Bartzelona.

MAQUIERA, V, (2001), "Genero, diferencia y desigualdad" in BELTRAN, E eta MAQUIERA, V (eds), *Feminismos. Debates teóricos contemporáneos*, Alianza Editorial, Madril.

MARTI, J, (1995), *La España del estraperlo (1936-52)*, Planeta, Bartzelona.

MAULEON, J.R, (1998), *Estrategias familiares, cambios productivos del caserío vasco*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

MENDIOLA, F, (1999), "Genero, emplegua eta familia estrategiak Iruñean" in *Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía*, 28. zenbakia, Donostia.

MENÉNDEZ, P, ET ALL (2001), *Historia de España. Sociedad, vida y cultura*, II. bol., XII. alea, Espasa Calpe, Madril.

MOLINEROcC (1998) "Mujer, Franquismo, fascismo. La clausura forzada en un mundo pequeño" in *Historia social* N°30, Valentzia.

MURILLO, S, (1996), *El mito de la vida privada: de la entrega al tiempo propio*, Siglo XXI de España, Madril.

NASH, M, (1983), *Mujer, familia y trabajo en España (1875-1936)*, Anthopos, Bartzelona.

NASH, M, (1999), *Rojas: las mujeres republicanas en la Guerra Civil*, Taurus, Madril.

NUÑEZ, M^a.G, (1993), *Madrid 1931: mujeres entre permanencia y cambio*, Horas y horas, Madril.

PÉREZ-FUENTES, P, (1993), *Vivir y morir en las minas*, EHUKo Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.

PÉREZ-FUENTES, P, (1995), "El trabajo de las mujeres en la España de los siglos XIX y XX. Consideraciones metodológicas" in *Arenal. Revista de la historia de las mujeres*. 2. alea, 2. zenbakia, Uztaila-Abendua.

RINCÓN, A, (1995), *Transformaciones en el papel social de las mujeres: analisis cualitativo en Euskadi*, Emakunde, Gasteiz.

SABATE, A, ET ALL, (1995), *Mujeres, espacio y sociedad: hacia una geografía de género*, Síntesis, Madril.

SAINT-SAINS, A, ET ALL, (1996), *Historia silenciada de las mujeres: la mujer española desde la epoca medieval hasta la contemporánea*, Editorial Complutense, Madril.

SILVA, L da (2000) "De eso no se habla. Cuestiones metodológicas sobre los límites y el silencio en entrevistas a familiares de desaparecidos políticos" in *Historia, antropologia y fuentes orales* N°24, Bartzelona.

STOLCKE, V. (1992). "¿Es el sexo para el genero como la raza a la etnicidad" in *Mientras Tanto*, 48, 87-111.

TATAVULL, B, (1963), "Vida rural y urbana en la villa y termino de Hernani" in *Estudios Geográficos*, Juan Sebastián Elcano Institutua, Madrid.

TUÑON DE LARA, M, (1985), *La Guerra Civil Española 50 años después*, Labor, Bartzelona.

VALLE, T, del, ET ALL (1985), *Mujer vasca: imagen y realidad*, Anthropos, Bartzelona.

WHATMORE, S.J, (1998), "¿Ciclo vital o patriarcado? Cambios en las divisiones del trabajo en las explotacion agraria familiar por razón de sexo" in *Revista de estudios Agro-Sociales*, 147. zenbakia.

BERRIEMAILEAK⁴⁹

- ▶ **ALMUDENA:** Almudena Zestoan jaio zen. Donostian neskame ibili ondoren, 1940an Hernanira joan zen bizitzera senarrarekin. Hernaniko Kale Nagusian mertzeria moduko bat jarri zuen, eta pixkana-pixkana produktu gehiago sartu zituen dendan.
- ▶ **AMALIA:** Amalia Oiartzunen jaioa da, gazte atera zen baserritik Donostiara neskame lanak egitera. Bederatzi urte egin zituen lan horretan. Ezkondu ostean Hernanin jarri zen alokairuan senarrarekin batera. Senarraren soldata ez zen alokairua ordaintzeko iristen eta falta zen dirua lortzeko apopiloak hartzea erabaki zuten. Sei apopilo izan zituen. Apopilo ez gain, lau seme-alaba zaintzeaz arduratu behar zuen.
- ▶ **ARANTXA:** Hernanin jaio eta bizi da. Baserrian jaio zen. Gaztetan behi esnea saltzen zuen Donostian, etxez etxe. Ezkondu ostean pisu bat erosi zuen senarrarekin batera. Pisua ordaindu ahal izateko, jostun lanak egin zituen etxean urte askoan.
- ▶ **ASUN:** Asunek Kale Nagusian zuen etxea, eta etxe azpian taberna zuten. Gerra ondoren, herriko bizitza abian nola jarri zen deskribatu digu; beren tabernan denbora eta lan inbertsio handia egin behar izan zuten aurrera ateratzeko.

⁴⁹ Oharra: Berriemailetako askok ez dute beren benetako izena agertzerik nahi, hori dela-eta, berriemaile guztiei ezizen bat asmatu zaie.

- ▶ EUSTAKI: Hernaniko baserri batean jaioa da. Gerran hil zitzaion aita, eta amak bakarrik atera behar izan zituen aurrera lau alaba txiki. Emakume alargun batentzat gerra ondoko bizimodua zein gogorra zen ondo baino hobeto oroitzen du.
- ▶ FATIMA: Primo de Riveraren Diktadurari eta Errepublikari buruzko oroitzapen ugari ditu. Gerra piztu zenean, Frantziara alde egin zuen itsasontziz. Fatimaren aita preso egon zen, eta hainbat urte pasa behar izan zituzten erbestean.
- ▶ HECTOR: Extremaduratik etorria da. Industrializazio garaian iritsi zen Hernanira, baina ez zuen industrian lanik egin. Jatorrizko herrian okina zen eta ofizio berdinarekin jarraitu zuen Hernanin ere. Etorri zenean zortzi bat hilabete pasa zituen apopilo. Ondoren, emaztea eta seme-alabak ekarri zituenean, denboraldi batez lankide zuen andaluziar baten familiarekin erdibanatu zuten etxea, “ con derecho a cocina”.
- ▶ IÑAKI: 1932. urtean jaioa da. Ezkondu arte Portalez-Kanpo bizi izan zen gurasoekin, aiton-amonekin eta zazpi anai-arrebekin. Haurra zela ezagutu zuen 36ko gerrako eta gerra ondorengo Hernani. Izeba-osabek okindegia izan zuten, eta Iñakik okindegi horretan lan egin zuen; ondo ezagutu zituen estraperloaren gorabeherak.
- ▶ ISABEL: Isabelek mugaz haraindiko estraperloa egiten zuen. Senarrak Frantzian lan egiten zuen, eta harako bidaiak erabiltzen zituen itzuleran mugaren alde honetan preziatuak ziren produktuak ekartzeko: kafeontziak, mahai-tresneria, baxera, puruak... “Dirutxo” pixka bat ateratzeko bidea izan zen Isabelentzat.
- ▶ MARISA: Marisaren senarra Badajozetik etorri zen Euskal Herrira lanera. Marisak hilabete batzuk pasa behar izan zituen lau seme-alabekin jatorrizko herrian bakarrik, senarrak diru apur bat aurreztu bitartean. Hernanin bizi aurretik Aizarnazabalen pasa zuten denboraldi bat. Hernanira iristean etxea erdibanatu behar izan zuten.
- ▶ MARTA: 89 urteko emakumea. Hernaniko baserri batean jaio zen; haurra zela, ama hil zitzaion, eta berak hartu behar izan zuen “etxeakoandreen” lekua. Baserrian ekoizten ziren produktuak saltzen zituen. Garai hartako merkatuen funtzionamendua azaldu digu.

- ▶ **MERCEDES:** Mercedesek oso ondo ezagutzen du Hernaniko emakumeek bertako industrietan egin zuten lana. Haurra zenean Zikuñagarako lan egiten zuen, baina etxean. Gerora lantegi honetan bertan aritu zen lanean. JOCeke kidea izan zen, eta Hernanin emakumeek egindako lehen greban parte hartu zuen.
- ▶ **MERTXE:** Mertxe, kalean jaio eta bizi izan zen, baina ukuilu bat zuten etxe azpian eta baratzak Karabel aldean. Bost anai-arrebekin, amarekin eta amonarekin bizi zen (aita 1937an hil zen). Hiru anaiak gerrara joan ziren eta gerra garaian bizirauteko, herrian zeuden soldaduen arropak garbitzen zituen; geroago fabrika ere lan egin zuen Mertxek.
- ▶ **MILAGROS:** 89 urteko emakumea da. Hernaniko baserri batean jaio zen. Gazte garaian, 19 urte zituela, estraperloan ibili zen. Irina ekartzen zuen Iruñatik bere ahizparen eta koinatuaren okindegira. Estraperloaz gain, garai hartako eguneroko bizitzari buruz hitz egiten du; zentzu horretan elkarrizketa aberatsa izan da.
- ▶ **PETRA:** Petra Zinkoenean jaio zen; oso gazte zela, Santa Barbara joan zen bizitzera. Aitak ez zion dirurik gehitzen etxeko ekonomiari, beraz, Petrak eta amak egin behar izan zieten aurre etxeko gastuei.
- ▶ **ROSA:** Rosak hiru urte pasa zituen udaletxean arrazionamendu kartilak eta udaletxera eramaten zuten merkantzia guztia banatzen. Arrazionamendu prozesuari buruzko datuak emateaz gain, gerra ondorengo Hernani deskribatzen lagundu digu.
- ▶ **ROSI:** Gerra ondorenean iritsi ziren Hernanira Rosi eta bere familiako kideak. Okindegi bat hartu zuten. Gerra ondorengo estraperloari buruzko datu asko eman dizkigu, baita gerra ondorengo bizitzari buruzkoak ere.
- ▶ **VALENTINA eta CARLOS:** Bikote hau Avilatik etorri zen Hernanira. Lehenengo senarra etorri zen, apopilo moduan pasa zituen hilabete batzuk. Ondoren, lana eta bizitzeko etxe bat lortu zituenean, emaztea eta seme txikia etorri ziren. Hernanin beste lau seme-alaba izan zituzten. Familiako bi lehengusu (neska eta mutila) eduki zituzten apopilo.

USOA BARRUTIA-BENGOA



HERNANI 1980. HISTORIAN LIZENTZIATUA
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATETIK.



NEREA ELIAS


ATAUN 1980. ANTROPOLOGIAN LIZENTZIATUA
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATETIK.

GAROA GONZALEN



HERNANI 1980. ANTROPOLOGIAN LIZENTZIATUA
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATETIK.

ARAITZ RODRIGUEZ



BARAKALDO 1981. ANTROPOLOGIAN LIZENTZIATUA
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATETIK.

...gerra zela eta, zenbaitetan, ama
berandu itzultzen zen merkatutik.
Urduritasunez itxaroten genion...

...tranblan gonapean izkutatzen
genuen estraperloan lortutako
ogi txuria...

...hilabete bukaerara iritsi ezinez,
bost apopilo sartu behar etxean...



Herriko Udala



9 788493 419318